



# Eskola Antzerkia





**eima**

katalogoa

Eibarko Hezkuntza Esparrua

943.20.27.48

20600 EIBAR





# ESKOLA ANTZERKIA 3

R. 10842



HEZKUNTZA,  
UNIBERTSITATE ETA  
IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,  
UNIVERSIDADES  
E INVESTIGACION

**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**  
**Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco**

Lehenengo argitaraldia: 1992ko abendua  
Ale kopurua: 1.500

© Euskadiko Autonomi Elkarteko Administrazioa  
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila  
Prestatzaileak: Iñaki Artola, Joxe Mari Berasategi

Azala: Jesus Iturriza

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Wellington dukearen kalea, 2 – 01011 Gasteiz

Fotokonposizioa: FONASA. Sancho el Fuerte etorbidea, 26. Iruña

Inprimatzailea: Estudios Gráficos ZURE, S. A.

Carretera Asua-Erandio, 24-A – 48950 Erandio-Goikoa

I.S.B.N.: 84-457-0209-2

Lege Gordailua: BI-2425-92

## AURKIBIDEA

HITZAURREA .....	7
TESTUA: HASTEKO LAU PUNTU <i>Yolanda Arrieta</i> .....	9
ANTZERKI GIDOIAK:	
Mak ikertzaile ausarta <i>Zumaiako ikastolako ikasleak, Mitxel Gorrotxategi eta Uxua Sorazuren ardurapean</i> .....	17
Martzianoen bisita <i>Zizurkilgo P.M. Otaño herri ikastetxeko ikasleak, J.J. Arrietaren ardurapean</i> .....	35
Mugako jostailuak <i>Gernikako Barrutia ikastolako ikasleak, Inmaculada Arruzaren ardurapean</i> .....	49
Naporen istorio historikoak <i>Bittor Arrondo. Donostiako Axular lizeoa</i> .....	73
Non ote da Sol? <i>Karmele Etxebarria. Eibarko Jesusen Bihotza ikastetxea</i> .....	103

Norentzat ari dira iruten hiru atsoak?	
<i>J.A. Elolak itzuli-egokitua. Gernikako Seber Altube ikastola ...</i>	113
Pic-nic	
<i>Luzia Gisasolak itzulia. Bilboko Gabriel Aresti batxilergo institutua .....</i>	125
Poti	
<i>Joxe Martin Urrutia. Durangoko Kurutziaga ikastola .....</i>	151
Printze zoriontsua	
<i>Donostiako Arantzazuko Ama ikastolako ikasleek, M. Maritxalarren ardurapean egokitua .....</i>	173
Txibistoren erbia	
<i>Aizarnako herri ikastetxeko ikasleak, Lukas Dorronsororen ardurapean .....</i>	195
Tximatoli helia	
<i>Koro Irastorzak egokitua. Ordiziako Jakintza ikastola .....</i>	215
Zoroen sorotan	
<i>Zestoako herri ikastetxeko ikasleak, Inmaculada Ezeizaren ardurapean .....</i>	237
Zurineren anaia	
<i>Zizurkilgo P.M. Otaño herri ikastetxeko ikasleak .....</i>	251



## HITZAURREA

Zortzigarren ikasturtea bete du, 1992-93ko honekin, Eskola Antzerki-gintza laguntzeko Hezkuntza Sailak egiten duen laguntza deialdiak. Deialdi horretan parte hartu duten ikastetxeen, eta batez ere ikastetxe horietan gidoiak tajutzen eta lantzen hainbeste ahalegindu diren irakasle eta ikasleen frutu da liburu hau.

Ikastetxeetako taldeei laguntzen truke eskatzen zaiena hauxe da: eskabidearekin batera (beraiek asmatutakoa denean Eguberriak baino lehen) antzezlanaren gidoia Hezkuntza Sailera bidali, euskara landuz antzezlan prestatu eta gutxienez hiru emanaldi egitea, lehena norbere ikastetxean eta beste biak beste hainbatetan. Ikasturte bukaeran, emanaldi bakoitzari dagokion ebaluaketa-fitxa eta antzerkia nola landu den azaltzen duen galdekizuna bidali behar dute.

Eskoletatik bidalitako gidoiek Hezkuntza Sailean gordeta ezin dezaketela etekin handirik eman eta, irakasleek urtero aipatzen duten euskarazko gidoi eskasiari aurre egin nahirik, gidoien artean aukeraketa egin eta liburu hau argitaratzea erabaki da. Argitaratzeko aukeratu ez diren gidoiak, alfabeto ordenaz sailkaturik eta laburpen fitxa aurretik dutela, eskualdeka hedaturiko PATetan daude ikastetxeen eskueran 1992ko irailaz geroztik.

Gidoiok 1988 eta 1991 urteen bitartean jasotakoen artetik hautatuak dira eta, begibistakoa denez, ez dute inolako lehentasun ordenarik: alfabeto ordenaz daude iladan. Lanen egile, itzultzaile, moldatzaile... guztiei eman behar dizkiegu eskerrik beroenak argitalpen hau gauzatu zedin eman

dituzten erraztasunengatik. Esker mila, halaber, Txaro Senosiain lankide ohiari, eginkizun honi eskainitako arduragatik. Beste hainbeste Yolanda Arrietari, gidoiak hautatzen eta hitzaurrearen ondoren azaltzen den sarre-  
ra prestatzen egin duen lanagatik.

Deialdiaren helburu eta nondik norako zehatzagoak jakin nahi ditue-  
nak, 1988an argitaratu zen eta honen aintzindari izan zen *Eskola Antzerkia*  
liburuaren hitzaurrean, urtero ateratzen den deialdian bertan edota Euska-  
ra Zerbitzu honek argitaratutako *Euskararen irakaskuntza: 10 urte* liburuan  
aurki ditzake.

Dena dela, deialdi horren inguruan ikastetxeetan zenbaterainoko mu-  
gimendua dagoen adierazten dute 1992-93 ikasturteko parte hartze datuek:  
120 ikastetxe, 326 talde eta 632 emanaldi.

Gidoi bilduma honek (PATetan ikastetxeen eskuera dauden gainera-  
koek bezalaxe) Eskola Antzerkian murgildurik dabilen ikasle eta irakasle  
jendea sorkuntza lanerako nahi luke kilikatu, emaitzak beste eskolen esku-  
ra jarriko direla eta ahalegin horrek merezi duela erakutsiz. Edozein mo-  
dutan, antzerki gidoi, liburu edo argitalpenei buruzko informazioa nahi  
izanez gero, PATeko Euskara Aholkulariarengana edota ANTZERTIra jo  
daiteke.

*EUSKARA ZERBITZUA*

## **TESTUAK: ANTOLATZEN HASTEKO LAU PUNTU**

### **Sarrera**

Izenburu bereko bigarren liburu honentzat sarreratxo bat egiteko gonbidapena luzatu didatenean, baietza emateaz bat, nondik has naitekeen etorri zait burura; eta erantzuna, ez zait baietza bezain azkar iritsi: gaiaz idea nagusi eta oinarrizkoak buruan dantzan eduki arren, zailen-zailena, hauei nolabaiteko egitura konkretu, ulerterraz eta era berean lagungarria bilatzea egin zait. Eskola Antzerkiari buruzko sarrera orokor bat egin ordez, nere esperientziatik hurbilago dauden apunte egingarriagoak eskaintzea komenigarriago dela pentsatu dut, beraz, azkenean. Hona, bada, lau puntu ahalik garbienetan bai Eskola Antzerkiari buruz josten ari naizen euskarri edo idea nagusiak eta baita hauen enfokearen barruan, testu lanketari ekiteko beste zenbait aukera edo abiapuntu desberdin; beti ere, martxan ateratako ondorio banaka batzuk eta lanari ekiteko puntu xume batzuk baino ez direla ahaztu gabe. Bidea, eginez egiten baita.

### **1. Antzerkia eta dramatizazioa**

Hasiera batean, eta itxuraz berdintsuak diruditen arren, Dramatizazioa eta Antzerkia ez dira gauza bera. Pertsonaia batzuk toki eta une konkretuetan akzio bat agertzea litzateke lehenengoa. Bigarrena ere bai. Hala ere, Antzerkian, ikuslea behar-beharrezkoa da, eta beraz, hainbat entsaio eta errepikapenen ondoren, ikuskizunaren osotasun edo bukaera artistiko-estetikoa da bilatzen dena. Dramatizazioan, bestalde, ikuslearen eta akto-

rearen rolak erraz truka daitezke, prozesua baita honek bilatzen duena, Antzerkiaren teknika eta hizkuntza bereziak, jolasteko eta irakas-ikasteko tresna bihurtzen direlako.

## 2. «Bukaera» ala «Bideak»?

Helburu kontua baino ez da: bukaera dotore, garbi, konkretu eta gustoko batera ailegatzeko, argi dago, errepikapenak, entsaioak eta askotan aspertzea bera ere, behar-beharrezkoak direla. Baina hau lanaren azken fasea da, albora utzi behar ez dena; eta bestea, horra garamatzan bidea, hau da, frogatzea, aldatzea, bilatzea, trukitzea, ikertzea eta azken finean jolastea litzateke, beraz, hasiera bateko helburu.

## 3. Hizkuntza, adierazpide edo espresabide bat

Gizakiok adierazpide bat baino gehiago daukagu. Hizkuntza fresko, dinamiko, bizi eta benetako baten bilaketa lanean bagabiltza ere, Gorputz, Ahots, Musika eta Plastika adierazpideak, laguntasun ezeze, betetasun, osotasun eta integrazio tresna bilakatzen dira.

Hala ere, guzti hau denon buruan argi egon daitekeen arren, lan egiteko orduan, adierazpen arlo bakoitzak bere denbora, dedikazio eta atentzio bereziak «beharko» lituzkeela uste dut. «Beharko» diot, arlo hauek ez baitute behar adinako laguntzarik eta atentziorik izaten gehienetan, tamalez.

Esanak esan, eta lehen aipatutakoari jarraituz, adierazpide guztiek garrantzi berbera izan arren, gizakion ahalbideek muga ezagun-ezagunak topatzen dituzte bidean. Hara bada, nik neuk indar eta adierazpide guztiok Idazketa lana bultzatzeko erabiltzea erabaki dut. Dramatizazioan ari garenez, testuetarantz bideratzea, alegia.

## 4. Testurantz. Nondik hasi?

Adin bakoitzak bere neurriko tratamendua eskatzen duenez gero, asko dira testu bat osatzen hasteko bideak. Maila bakoitzerako «metodoa» bilatzea eta aurkitzea agian interesgarria litzatekeen arren, nik neuk, oraingoz, Goi Ziklora mugatu nahi izan dut, bai adin eta baita interes eta premia aldetik, adierazpide hori lantzeko ziklorik egokiena iruditzen zaidalako.



Honek ez du esan nahi liburuaren sarreratxo hau aprobetxatuz eskaini nahi dizkizuedan abiapuntu banaka hauek egokitu ezinak direnik. Alderantziz, hortxe legoke, agian, mailaketa bakoitzari dagokion «metodoa»ren lehen hurbilketa. Eta hori, denborak eta esperientziak emango lukete.

#### 4.1. *Helburuak:*

- Hizkuntzarekin ondo pasatzea, jolastea, disfrutatzea, hizkuntza hedatzea, esparru berriak irekitzea.
- «Sortzailea»ren mito urruna haustea: edonor izan daiteke sortzaile, denok daukagulako zer esana ugari. Bakoitzari dagokion bide ego-kia bilatzea litzateke kontua.
- Baliabide pertsonal eta materialak ezagutuz lan egitea: «dagoena» eta «daukaguna» aprobetxatzen ikastea. Bakoitzaren mugak ezagutzea: «Zer ahal dut?» «Zer ezin dut?» «Nola aprobetxatu ahal dudana?» «Nola bete, konpondu, ordezkatu eta aberastu ezin dudana?».
- Zaletasunak esnatzea.

#### 4.2. *Gidoiaren zati nagusiak abiapuntu/jarraipen gisa*

Protagonista/Antagonista, toki, garai, konfliktu edo istorioaren egitura orokorra (Aurkezpen, Korapilo eta Etena) aukeratu abiapuntu gisa, zehaztu eta hortik istorioa hasi:

#### *Bideak:*

- *Irudiak:* pertsonaia konkretuen argazkiak, konflikturen bat agertzen den marrazkia, garai edo toki konkretu bat ikusten den kuadroa, ikasleek egindako irudi bat... izan daitezke irudimena esnatzen has-teko bideak.
- *Objetuak:* objektu konkretu batzuen inguruan jolastuz, jabe bat bilatu, edo objektuari pertsona izakera erantsi. Izakera asmatu, toki eta garai konkretu batean konfliktu bat bilatu. (Eskulanetan egindako objektu bat/batzuk, norbere gustoko zerbait...).

- *Egokitzapenak*: Dramatizazioak eskatzen duen *NOIZ?*, *NON?*, *NORTZUK?*, *ZER?* formulara egokitzeko hainbat eta hainbat material daukagu bazterretan:
  - *Kantak*: erromantzeetatik hasi eta azken kanta rokerotaraino, hainbat istorio/pertsonaia/konfliktu aurkitu ahal dugu.
  - *Ipuinak*: mitologikoak, errealistak, fantastikoak, umoretsuak, abenturazaleak, historikoak... edo asmatuak.
  - *Txistek*: protagonistak txistetik kanpoko beste testuinguru batean jarri; txistea gertatu aurretik; txistea gertatu ondoren...
  - *Egunkaria*: atzerriko albisteak, herrikoak, iragarki txikiak (ezkonajentziak, bidaiak, lagun eske dabilen jendea...), eskutitzak (kexak...), azken orrialdeko «txaskarriloak»...
  - *Gertaera historikoak*: dagokien garai eta tokiari buruzko informazioa bilatu, hizkuntza eta gainerako aldagai guztiak egokitu...
- *Joko dramatikoa*: pertsonaia konkretu batzuk, egoera, toki, garai eta ordu konkretu batean jokatzeko jarri. Inprobisatu. Gehitu. Gutxitu. Egokitu. Ondoren, egoerari, jarraipena edo aurretik gertaturikoa erantsi, elementuak egokituz eta hasierako bide berbera erabiliz. Azkenean, txukundu eta behar diren bitxikeria guztiak erantsiz, idatzi.

#### 4.3. Testuarekin jolasean, aukera berri bila

Eginda eta idatzita dauden testuez ere balia gaitzke. Adibidez, testuaren aldagai guztiekin jolastu eta istorioak berridatzi aldaketan arabera:

- Testuaren protagonista/antagonistei adina edo izakerako elementu bat aldatu.
- Pertsonaiak gutxitu/gehitu.
- Tokia aldatu: hiria herri; egongela zelai; mendia etxe; eliza hondartza...
- Garaia aldatu: iraganeko istorioa 2.030. urtean jarri. Oraingoa, bi mende aurretik...
- Konfliktua edo antzezlanaren muina, hau da, pertsonaia guztiak dantzan jartzen dituen egoera berezia aldatu...

- Lan konkretu bateko elkarrizketa zati bat eman eta honen aurretikoa eta ondorengoa bilatu; pertsonaia edo elkarrizketaren protagonisten berezitasunak asmatu; noiz eta non gertatzen den osatu...

Orain, berriro ere aipaturiko abiapuntu guztiak hartu eta elkarrekin jolastuz konbinaketa berriak egiteari ekinez gero, agian beste amaigabeko bide, abiapuntu eta pista zerrenda osatzera iritsiko ginateke. Baina hori, nahiago izan dut zeuen gain uztea; sorpresa eta aukera berriak norberak bidean aurkitzea askoz dibertigarriagoa da eta.

Bitartean, hemen doazkizue zuen zeuen eskolako lanaren fruitu batzuk. Hainbat lanen arteko muestra bat baino ez dira; orain arte egindakoak asko izan badira ere, hemendik aurrera egin ahal direnak beste horrenbeste, behintzat, badirelako.

Animo, eta segi aurrera!

*Yolanda Arrieta*





**ANTZERKI GIDOIAK**



# **MAK IKERTZAILE AUSARTA**

OHOko 8. mailako ikasleak, Mitxel  
Gorrotxategi eta Uxua Sorazuren ardurapean  
Zumea ikastola  
Zumaia 1989





## PERTSONAIAK

Aurkezlea	Al Kapone III.a
Mak	Mr. Money (Mak)
Plumeiro	Alua Dirua (Mrs. Joxepa)
Mrs. Joxepa	Kobratuko Timatuko (Fermintxo)
Butaneroa	Mozkorra
Fermintxo	1. atsoa
Mafiosoen Kapitaina	2. atsoa
Braulio (1. mafioso)	Txakurra
Beste 4 mafioso	

### I. AGERRALDIA

*(Gela zarpail batean, gure Mak ikertzailea aurkitzen da lo zurrunkaka. Aldamenean kaiola batean bere ikerketa laguntzailea, Plumeiro lora.*

*Eguerdiko hamabietan despertadoreak jotzen du eta Mak-ek amorraren amorruez despertadorea jaurtikitzen du ikusleen artera).*

#### **Mak**

Iratzargailu alu hau. Orain ere gaizki jo du. Eguerdiko hamabiak besterik ez dira eta... Beti lelo berdinarekin, baina oso garestiak dira eta hamar urtean langabezian egon eta gero nire poltsikoak ez du gehiagorako ematen.

*(Iratzargailua pitaz loturik dago eta ikertzailea jasotzen hasten da).*

**Plumeiro** Eguzkiarekin batera jaiki naiz eta oraindik gosaldugabe. Hau bizimodua! Nere errua al da gaur zu goizaldera eta gainera izugarrizko atxurrarekin etxeratzea?

**Mak** Atzo bertan erosi nuen alpiste kaxa hau, Plumeiro, ea nerbioak baretzen dizkizun.

*(Lehioan kolpe batzuk entzuten dira. Mrs. Joxepa, bere bizilaguna da, lehiotik begira).*

**Mrs. Joxepa** Hi Mak!, emango al dizkidak bi arraultze? Asteburu honetan etxera datorren ilobarentzat bizkotxo bat egin nahi diat eta ez diat arraultzerik.

*(Mak etxe guztian zehar arraultzeak bilatzen dabil eta azkenean Plumeiroren kaiolara abiatzen da, alpiste kaxa eskuan duela).*

**Mak** Kaixo, zer moduz zabilta, nere bihotzeko azukre koskorra? Nahi al duzu alpiste pittin bat?

**Plumeiro** *(Baxu)* Hau duk hau pelota... *(Ozenki)* Baina nere sabela hutsik dago... *(eta alpistea jateari ekiten dio).*

*(Bitartean, beste eskuarekin disimuloz arraultzeak kentzen ahalegintzen da. Plumeiro konturatzen da eta moko-ka hasten zaio).*

**Plumeiro** Lapurra! Lapurra! Nere bi semetxoak bahitu nahi dizkidate... *(izugarrizko iskanbila sortzen da).*

**Mak** *(Pistola ateratzen du)* Ba al dakizu gaur zer afalduko dudan? *(gogorki Plumeirori apuntatuz).*

**Plumeiro** Zuregatik edozer gauza, nere lagun zaharra. *(Abesten hasten da).*

Uh... vaya lío...  
tu eres mi amigo y déjame vivo...

- Plumeiro** Alpiste hau pikante xamarra dago eta... (*BOOMM-erori egiten da hilik*).
- Mak** Bua-Bua-Bua! Hau zoritxarra. (*Mukizapia hartuz mu-kiak kentzen ditu*). Nere bizitzako lagun bakarra joan zait. Ez nion hainbesteko sustoa eman nahi. Orain bizi-laguna nik bakarrik jasan beharko dut, dudan gosez eta bakardadeaz aparte.
- Mrs. Joxepa** (*Ozenki*) Hemen arraultzeen zain nengoela nitaz zer-bait esaten ari zinela iruditu zait. Zer ari zinen esaten?
- Mak** Zuk niri egunero ematen didazun pelmadaz... (*glup*) la-guntzaz...
- Mrs. Joxepa** Zer?
- Mak** Ez, ez, loroa hil egin zaidala esaten ari nintzaizun (*larri-larri*).
- Mrs. Joxepa** Loroa hil zaizula? Hau da pena (*ikuslegoari begiratzen dio irrifartsu*). Hemendik aurrera lo lasai egin ahal izan-go dut.  
Loroa hil zaizunez, emango al didazu alpistea nere ka-nario ponpoxoarentzat?
- Mak** (*Bere buruarentzako*) Hau duk hau gauza xurra!  
Bai, bai noski... nola ez ba... hartu hartu.  
  
(*Handik minutu gutxitara kanarioaren kantu liraina ent-zuten da Mrs. Joxeparen etxetik*).
- Martxa funebrea: pi pi pi pi pio pio piii... (*BOOMM. Instant batean Mrs. Joxepa azaltzen da oso aurpegi txarra ipiniaz, oso umore txarrez*).
- Mrs. Joxepa** Ne... nere zoritxarra! Kanarioa hil zait! Zer eman diozu nere kanario gaixoari?  
  
(*Makek iritzia eman aurretik, bere etxeko atea jotzen dute. Butaneroa da*).

- Butaneroa** Butaneroooo!!!
- (Makek atea irekitzen dio eszenan sartzen den butaneroari).*
- Butaneroa** Aizu, Mak, gaur aurpegi tristearekin ikusten zaitut, butanoa ordaintzeko dirurik ez ala?
- Mak** Hori bakarrik balitz... *(berriro aurpegi tristea jarriaz).*
- Mrs. Joxepa** Loroa eta kanarioa hil zaizkigu. Hau da zoritxarra!
- Mak** Hau argitu beharra dago *(filosofo aurpegia jarriaz).*
- Mrs. Joxepa** Bai horixe! *(elkarren eskuak kolpatuz eta aurpegi kemen-tsua jarritz).*
- Butaneroa** Utzi filosofiak eta ordaindu butanoak.
- Mak** Ea zerbait dudan *(bere galtzak eta etxe guztia miatzen ditu, dena alderantziz utziaz eta diru faltan, galtzak eta hiru pare galtzontzilo ematen dizkio).*
- Mak** Honekin nahikoa al da?
- Butaneroa** Ummmmmmmm! *(kexati).* Beno, beno, pena ematen didazu. Badut oparia nere aitagarrebarentzat. *(Butaneroak jazkiz beterik aldegiten du).*

## TELOIA IXTEN DA

### II. AGERRALDIA

*(Teloia irekitzen da eta bertan azaltzen dira Mak eta Mrs. Joxepa, Maken etxean).*

- Mrs. Joxepa** Fabriketako alu horiek, diru gehiago irabazteagatik edozer zerrikeria saltzen digute... Ziur nago alpiste hori kadukaturik dagoela.

- Mak** Nere ustez hau H.A.T.K.E-ren lana da, ziur nago (*satisfetxo aurpegia jarriz*).
- Mrs. Joxepa** Bai, bai, hori da... (*atzamarra altxatuz*). Baina, baina zer da hori? (*harridura aurpegiaz*).
- Mak** Oso erraza: HEGO AMERIKETAKO TXORIEN KONTRABANDISTEN ELKARTEA. Hauek alpiste kaxetan «Bektamina» sartzen dute; honen ondorioz txoriak hiltzen dira. Ondoren zabor potoetatik ateratzen dituzte eta Hegoameriketarako esportatzen dituzte hango harategietan saltzeko.
- Mrs. Joxepa** Ziertu, ziertu...! Handia zara gero! Eta orain zer egingo dugu?
- (*Atean txirrina entzuten da*).
- Mrs. Joxepa** Nere iloba Fermintxo izango da.
- Fermintxo** Kaixo izeba, zer moduz? Ondo al zaude?
- Mrs. Joxepa** Ai Fermintxo, Fermintxo (*besarkatuaz*). Jakingo bazenu... Gure Poxpolintxo hil dute.
- Fermintxo** Nolatan?
- Mak** (*Hots handian pentsatuz*) Hau argitu beharra dago!
- Mrs. Joxepa** Makek esaten duenez alpisteagatik da, bere loroak eta gure Poxpolintxok alpistea jan baitzuten. (*Urduri*). Bere ustez H.A.T.K.E-koen lana omen da, alpistea, bahiketa, txoriak saldu BLA-BLA-BLA...
- Fermintxo** Korta el rollo, vieja! Beno, beno, nere Espektrum Plus K-40-ren bidez analisatuko dut. (*Poltsikotik kalkulagailu txiki bat ateratzen du*).  
 $(2 - 4 + 3) \times 5...$  Ai ba, honek tomatea du!  
 Txori hauek HEROINAZ drogatuak izan dira. Nonbait droga trafikatzaileek, alpiste kaxetan droga sartu ondoren, deskuidoz, galdu egin zuten; supermerkatu batean saldua izan zen. Gero gure txorien sabeletara heldu

zen, beraien biziari bukaera emanaz. Izan ala ez izan, hor dago gakoa!

**Mak** Eh!? Oh!? Eh!? AH!? (*harridura aurpegia jarriaz*). Nik pentsatzen nuena, hain xuxen ere!

**Mrs. Joxepa** (*Ironikoki*) Bai, bai, asmatu duzu oraingoan ere. Hau ikertzaile bikaina; ez zait harritzen langabezian aurkitzea.

**Fermintxo** Beno, orain azkar jokatu beharra dugu. Non erosi zenuen alpiste hori?

**Mak** Madariaga kaleko supermerkatuan.

**Fermintxo** Supermerkatura joango gara, droga nork bidali zuen jakitera. Haiek izango baitira ziur aski guk aurkitu nahi ditugun droga trafikatzaileak.

**Mrs. Joxepa** Korta el rollo modorro... Edo barkatu, Fermintxo, goazen azkar. Nere Poxpolintxoren hiltzaileak harrapatze-ko irrikan nago.

*(Fermintxo, Mrs. Joxepa eta Max eszenatokitik irteten dira alpiste kaxarekin. Handik gutxira ganster batzuk azaltzen dira eszenarioan atea behera botaz).*

**Braulio** Ahaiee watta-watta (*atea joaz, hau behera botatzeko ahaleginetan*). Ai, ai, nere hanka!!

**Kapitaina** Mozolo hori! Atea irekita zegoen... Aurrera nere mutilak.

*(Fantasmarena egiten sartzen dira lau mafioso eta beraien kapitaina. Denek eskuetan pistola bana dute, Brauliok ezik, honek platano bat daukalarik. Denbora puska bat pasa ondoren, kapitaina enteratu eta esaten dio).*

**Kapitaina** Hi Braulio, zer egiten duk platano horrekin? Hartu ezak pistola, motel!

**Braulio** (*Platanoa jaten hasten da*) Eh beno... zera... nere bazkaria da... beste poltsikoan dut pistola (*poltsikoan ez du*

*pistolarik aurkitzen*). Aiba! Ez dago hemen. Bazkari bezala jango nuen.

*(Dena nahasten dute, baina ez dute ezer aurkitzen).*

**2. maflosoa** Kapitaina, ez dugu drogaren izpirik ere aurkitzen.

**Kapitaina** Hau bai arraroa. Supermerkatukoak droga zeraman al-piste kaxa horietako bat etxe honetako jabeari saldu ziotela esan digu ba? Al Kapone III.a, gure nagusia, haserretu egingo zaigu.

**Braulio** Nagusi, nagusi, aurkitu dudala uste dut. Hona hemen!

*(Ohe azpitik kaxa bat ateratzen du).*

**Kapitaina** Hori bonboi kaxa da. Ez al duzu NESTLE marka ezagutzen ala? Babo arraioa.

**Braulio** Ah... ez nekien...

*(Jarrantzen dute dena arakatzen eta nahasten atean zarata bat entzuten den arte).*

**3. maflosoa** Eh! Ez al duzue ezer entzun? Norbait dator.

*(Kapitainak eszenatokian dagoen armairu bati begiratzen dio).*

**Kapitaina** Mugitu, denak barrura, mugitu esan dut...

*(Maflosoak armairuan sartzen dira Mrs. Joxepa, Mak eta Fermintxo eszenatokian sartzen diren une berean).*

**Mrs. Joxepa** Zein izango ote da Al Kapone III. hori?

**Fermintxo** Ez da harritzekoa Al Kapone III. delako hori droga munduan sartuta egotea. Arraroena zera da; zergatik sartu duten alpiste kaxetan droga hori.

**Mak** Banekien hasiera-hasieratik Al Kapone delako hori zegoela guzti honen atzetik. Baina arazoa zera da: non aurki dezakegun tipo nazkagarri hori. Je je... Ume moko hauek dena dakitela uste dute. Ea, ea, non dago zure ustez Al Kapone VII.aren ezkutaleku sekretua? Ea, ea, non dago?

*(Fermintxok bere kalkulagailua ateratzen du berriro ere).*

**Fermintxo**  $(4 - 6)^5 + 7/2$ ... Beno, oraintxe esango dizut. Gaizkile kaleko 13. zenbakian.

**Mak** Glup... (gorri-gorri jarriaz). Beno, beno, froga bat besterik ez zen zure bizkortasuna ikusteko.

**Mrs. Joxepa** Ejem-ejem...

**Fermintxo** Diskusioak alde batera utzi eta ekin diezaiogun lanari. Plan bat dut. Gaur gauean Al Kapone III.aren ezkutalekura joango gara eta...

*(Orduantxe armairutik izugarrizko puzkarra entzuten da).*

**4. mafioa** Brauliok puzkar bat bota du. Ahal duenak salba dezala bere burua, hau bizi edo heriotzako kontua da eta.

*(Mafioso guztiak banan-banan armairutik irten eta lehio-tik salto egiten dute, gure lagunak harriturik geldituz. Instant bat geroago...).*

**Mak** Puagg-! Hau usain nazkagarria.

**Mrs. Joxepa** Jasanezina da.

**Fermintxo** Konortea galtzera noala uste dut.

*(Eta izugarriako nazka aurpegia jarriaz gure protagonistak lurrera erortzen dira).*

TELOIA IXTEN DA



### III. AGERRALDIA

*(Eszenatokian mahai bat agertzen da eta nahiko ilunpean dago. Mahaiaren inguruan lau tipo kartetan jolasten ari dira, beste bat erratzaz gela garbitzen eta azkenik beste bi kaniketan).*

**2. mafiooa** Hordago!

**3. mafiooa** Utzi.

*(Braulio erratza pasaz abesten hasten da).*

**Braulio** Oso gaiztoak gara LARA-LARA-LARA.  
Droga asko saltzen dugu *(bi txalo)*.  
Eta gainera... *(desafinatuz)*.

**Al Kapone III.a** Ixooo! *(pistolaz bi tiro botatzen ditu Brauliori apuntatuaz)*.

**Braulio** *(Aieneka hasten da, saltoka, eskuak ipur masailean dituelarik)*. Nere ipurdia, ai, ai, ai...!. Ulertzen dut, ixilduko naiz.

**Al Kapone III.a** Beno, beno. Horrela gustatzen zait. Ikus dezatela hemen nork agintzen duen.

*(Kartetan jarraitzen dute).*

**5. mafiooa** Hordago!

**Al Kapone III.a** Eutsi! Atera kartak *(farrez)*.

**5. mafiooa** Irabazi egin dut! Irabazi egin dut!

**Al Kapone III.a** Mekaben la sorta de Blas!... *(bi tiro jaurtikitzen dizkio bihotzaren ezker aldeko aurikulara)*.

**5. mafiooa** Gora Zumaiako ikastola! *(Lurrera erortzen da hilik)*.

*(Braulio oraindik lurra erratzaz garbitzen ari da eta mafiosoaren gorpuarekin aurkitzen da).*

**Braulio** Zakarrak zakarrontzira, zakarrak zakarrontzira! *(erratxaz kanpora ateratzen du bera ere kanpora doalarik)*.

- Kapitaina** Beno nagusi, mozolo hori kanpoan dagoela eta une apro-  
posa dugu hitz egiteko.
- Al Kapone III.a** Bota bertsoa.  
*(Besteak aho zabalka begira eta entzuten ari dira, biek ezik, kaniketan jarraitzen bait dute).*
- Kapitaina** Miamira joan beharrean izkinako supermerkatu desbi-  
deratu zitzaigun droga. Mak delako detektibe baten es-  
kuetan dagoela jakin ahal izan dugu, baina ezin izan  
dugu eskuratu.
- Al Kapone III.a** Mozolofrasto horiek! Ezin izan duzuela lortu! Nolatan?  
Saiatu al zarete gizagaixo hori sobornatu edo antzeko  
zerbait egiten?
- Kapitaina** Braulioren puzkar baten eraginez korrika irten behar  
izan genuen handik.
- Al Kapone III.a** Beno, ulertzen dut. Brauliorenak dira onenak. Nire ilo-  
ba ez balitz...  
*(Atean kolpeak entzuten dira. Mak, Mrs. Joxepa eta Fer-  
mintxo sartzen dira mozorroturik. Mak Ipar-Ameriketako  
petroleo magnate bezala, Mrs. Joxepa arabiar faraona bat  
bezala eta Fermintxo japoniar enpresari bat bezala).*  
*(Kaniketan ari den mafiosoetako bat altxa eta aurkezpenak  
egiten ditu).*
- 4. mafioso** Nagusi!, hemen dituzu *(lehenik Mak seinalatuz)* Mr. Mo-  
ney, Ipar-Ameriketako petroleo magnatea. Alua Dirua  
arabiar faraona eta Kobratuko Timatuko japoniar enpre-  
saria *(Fermintxo seinalatuz)*.
- Al Kapone III.a** A bai! Espero nituen... Pasa, pasa, jaun-andreak. Eta  
zuek utz gaitzazue, kapitaina, ni eta bostok. *(Presa sar-  
tzeko bi tiro botatzen ditu).*
- Kapitaina** Hitzegin dezagun ba gure negozioez.

**Mr. Money (Mak)** Hallo jaunak! Zer asmo dituzue?

**Kapitaina** Bai, badakizu, pipermina...

**Mr. Money (Mak)** Pipermina?

**Alua Dirua**  
(Mrs. Joxepa) Bai, egunero Cola-Cao-ri bizitzeko botatzen diodana.

**Al Kapone III.a** Ja, ja... Oso ona, andere, oso ona, ja, ja...

**Kapitaina** Zer ordutan?

**Alua Dirua**  
(Mrs. Joxepa) Noiz ba?... Gosaltzeko orduan, jaikitzen naizenean.

**Mr. Money (Mak)** Pipermina? Eta droga noiz?

**Al Kapone III.a** Zer?

**Kobratuko**  
**Timatuko**  
(Fermintxo) Zer, bai? Zera, zera... Zer deritzozue Pasaiako portura zuen untzietako batek ostiralean goizeko zortzietan ekarriko balu?

**Mr. Money (Mak)** Baina pipermina zertarako?

**Alua Dirua**  
(Mrs. Joxepa) Cola-Cao-ri botatzeko, esan ez diat ba?

**Al Kapone III.a** Ja, ja... Oso ona, andere, oso ona.

**Kobratuko**  
**Timatuko**  
(Fermintxo) Ixooooo...!

**Kapitaina** «Glorioso San Telmo» untzian edukiko duzue. Eta dirua?

**Kobratuko**  
**Timatuko**  
(Fermintxo) Dirua, droga lortzen dugun bezain laister hartuko duzue... eta beste ezer esatekorik ez baduzue... agur t'erdi, jaunak.

*(Lepotik Mrs. Joxepa eta Mak hartzen dituela kanporantz abiatzen dira).*

**Mr. Money (Mak)** Eta droga zer?

## TELOIA ISTEN DA

### IV. AGERRALDIA

*(Eszenatokian farol bati heldurik mozkor bat agertzen da. Eskuinaldean komisaldegi bat eta aurrekaldean banku batean eserita bi atso zahar, puntua egiten).*

- Mozkorra** Gora Santo Tomasak! Ez dut ezertxo ere entzuten *(ikuslegoari begira, eskuak mugituaz jendeak erantzuteko)*. Gora Santo Tomasak!
- 1. atsoa** Bai, bai! Gaur Santo Tomasak ospatzen ari da eta bihar beste santuren bat. Badu aitzakia beti ere mozkorturik ibiltzeko.
- 2. atsoa** Gure garaietan... ez zen horrelakorik gertatzen. Hau da gazteria hau... Euskalerrriaren etorkizuna.
- 1. atsoa** Begira, begira nor datorren.
- 2. atsoa** Hemen dator gure Joxpaxi, kotiletan kotilena.
- 1. atsoa** Zurretatik zurrena!
- 2. atsoa** Joxepa gizon gazte batekin dator. Hauek dira azkenengo berriak.
- Mrs. Joxepa** Lasai, lagun zaharrak. Hau nire iloba Fermintxo da eta beste hau nere bizilaguna, Mak ikertzaile ospetsua.
- Fermintxo** Beno izeba, goazen komisaldegira, honez gero enteratuko ziren gu ez ginela egiazko erosleak.

*(Komisaldegirantz abiatzen dira).*

- Mrs. Joxepa** Hau al da fundamentua? Hauen eskuetan jarri behar al dugu herriaren segurtasuna? Orain ere itxita dago.
- Mozkorra** Santo Tomasetan jai egin behar du mundu guztiak. Gora Santo Tomasak!
- Mak** (*Fermintxori begiratzuz*). Eta orain zer egingo dugu? Hirurok bakarrik maltzurkeriaren aurka! (*pistola atereaz*).
- Fermintxo** Jai giroan gaudela eta gure arazoarentzat soluzio bikain bat aurkitu du. Jarrai iezadazue! Gora Santo Tomasak!
- (*Hirurak korrika irteten ari diren bitartean, Makek buelta emanaz eta ikusle goari begiratzuz*).
- Mak** Ez naiz mukizu honetaz fidatzen...
- 1. atsoa** Badirudi gure Joxepari orain dela bi egun zituen artritis, erreuma, gastroenteritis eta gripe gogor hura pasa zaizkiola. Ji ji ji ji...
- 2. atsoa** Ji ji ji ji... Kontu pila bat ditugu gaurko afarian gure elkartean azaltzeko.
- 1. atsoa** Marmarti etengabeen elkartea laneaaaan...! (*doinu berezia emanaz*).
- Mozkorra** Zer, zer? Bai, bai... Gora mozkorti etengabeen elkartea! Eta nola ez? Gora Santo Tomasak!!!
- 2. atsoa** Gizon batek hitzegin digu. Kunplitu hori izango ote?
- 1. atsoa** Hau gizon prestua, bai elegante jantzita dagoela. Hori da pausoaren zuzentasuna!
- (*Mozkorra balantzaka hurbiltzen zaie*).
- Mozkorra** Nitaz hitzegiten ari al zarete?
- 2. atsoa** Hau da kiratsa... Mareatzen ari naizela uste dut.
- 1. atsoa** Baita neu ere. Horrelako kiratsa jasan baino nahiago dut neskazahar hil!

- Mozkorra** Ze soinu da hori? Abesten ari al zarete?
- (Atzera begiratzuz mareaturik daudela konturatzen da).*
- (Festak direla eta pasakailean bi erraldoi eta buruhandi bat agertzen dira jende pila bat atzetik doala, batzuk txaloka, besteak dantzan eta eszenatokiaren ixkinatik mafiosoak sartzen dira).*
- Al Kapone III.a** Uf, uf... Lasaiago, mutilak, ezin dut gehiago, hemen egongo dira.
- 1. mafioso** Baina jauna!
- Al Kapone III.a** *(Jendeari begira)* Puff... ezin dut gehiago, hemen egongo dira.
- Kapitaina** Baina jauna, jarraitu egin beharko dugu aurrera, ihes egingo dute bestela.
- Al Kapone III.a** Ixooo... bestela *(pistola atereaz)*.
- 2. mafioso** Baina, hemen ze gertazten da hainbeste jende egoteko?
- Braulio** Santo Tomas eguna! Zuek ez dakizue ezer... *(abesten hasten da)*.  
Santo Tomasen feria  
txorixua ta ogia...
- 3. mafioso** Hainbeste jenderen artean nola aurkituko ditugu hemen?
- Braulio** Ba, nola ba? Gona azpian begiratzuz, noski...
- Kapitaina** Bai, baina txarrena zera da, beraien ipurdiak ez dituzula ezagutzen, aurpegira begiratu beharko diezue.
- (Jende artean begiratzen hasten dira eta erraldoiak eta buruhandiak mafiosoak jotzen hasten dira).*
- 4. mafioso** Ai... Ostras, alu hauek...

- Braulio** Ostras, hau dek txintxoia hau! (*Bere aldamenean dagoen mafiosoari begiratzuz*). Hi izan haiz; hartuko dituk orain epelak. (*Zaplastako bat eman ez lurrean zerraldo geratzen da*).
- (*Erraldoi bat Al Kapone III.ari joka ari da. Jo ta jo ta jo...*).
- Al Kapone III.a** Hemen hego haizea dabil edo euli bat ote? (*Buelta ematen du eta ez du inor ikusten*). Ba... nire irudipena ote? bai, hala izango da.
- (*Erraldoi batek kapitaina jo behar zuenean, honek buelta ematen du eta Mak dela ohartzen da*).
- Kapitaina** Hauek dira! Erraldoien barruan ixkutaturik daude!
- (*Al Kaponek bi tiro botatzen ditu eta protagonistak ezik jende guztiak eszenatokitik izuturik alde egiten du makakorrotu handiak eginaz. Erraldoiak eta buruhandiak mozturroak kentzen dituzte Mak, Mrs. Joxepa eta Fermintxo agertuz. Denak korrika hasten dira iladan eta mafiosoetatik lehenengo Braulio doa eta puzkarra botatzen du*).
- 2. eta**  
**4. mafiosoak** Hau da kiratsa... (*lurrera erortzen dira*).
- (*Ondoren denak farolaren inguruan biraka hasten dira. Fermintxo borobiletik irteten da eta zangozabatu egiten du Kapitaina*).
- Kapitaina** Mekaben... mekaben (*lurrera erortzen da eta Fermintxok hankak eta eskuak lotzen dizkio*).
- Fermintxo** Bat gutxiago...! (*marrua eginez*).
- (*Orduan txakur bat gerturatzen da farol aldera*).
- Txakurra** Guau... Guau... Hau txisalarria (*Hanka altxata txisa egiten du; farolari bueltaka dabilzan guztiak txakurrari begira gelditzen dira*).
- Mrs. Joxepa** Puff... Hau da usain txarra!

*(Al Kaponeri pistola erortzen zaio eta txakurrak hartzen du, eszenatokitik desagertuz).*

**Al Kapone III.a** Nere pistola... *(Negarrez)* nere pistola... *(Al Kaponek korrika alde giten du txakurraren atzetik).*

**Mak** Orain zanbuilo hau bakarrik geratzen zaigu.

*(Fermintxo, karate eginaz, erori egiten da. Denak saiatzen dira Braulio atxilotzen, baina ez dute lortzen. Azkenik, «Gusanitos» pakete batekin sobornatzen dute eta beraien kide egiten da).*

## TELOIA IXTEN DA

### V. AGERRALDIA

*(Eszenatokian gizon bat, telebistako aurkezlea. Mahai batean, paperak, telefonoa, mikrofonoa e.a...).*

**Aurkezlea** Egun on ikusentzuleok! Gaurko berri aipagarriena hauxe dugu: droga trafikatzaille banda bat harrapatu dute gure herriko hiru biztanlek: Mak Agirre, Joxepa Garcia eta Fermintxo Valerok, azkenengoaren ilobak. Droga trafikatzaille guztiak atxilotu dituzte, hauen nagusia izan ezik; Al Kapone III.a Txinaldean ikusia izan da txakur baten atzetik korrika. Jarraipena. Hauetako trafikatzaille bat, Braulio Gorostiaga, «Gusanito» batzurengatik bere lagunen aurka deklaratzeko prest agertu da. Honela, badirudi epaiketaren ondoren denak kartzelera-tuak izango direla. Gure hiru protagonista hauek harrapatzeagatik 20.000 milioi jasoko dituzte saritzat. Bihar arte, agur esaten dizue Mitxel Zubiaurrek.



# **MARTZIANOEN BISITA**

OHOko 7. mailako ikasleak,  
J.J. Arrietaren ardurapean  
P.M. Otaño herri ikastetxea  
Zizurkil 1989



## PERTSONALIAK

Kepa	Josetxu
Maritxu	Kustrok
Piki	Malik
Jon	Koxak

### I. EKITALDIA

*(Herriko plazan: Josetxu bokadiloa jaten eta Asterix bat irakurtzen; Jon makinitarekin jolasten eta Maritxu eta Piki sokasaltoan.*

*(Halako batean Kepa korrika sartzen da).*

**Kepa** Maritxu, Piki, Jon, Joxe, etorri azkar, badakizue zein zurrumurru dabilen herrian?

**Denak** Zer?, zer? *(Galdetuz, beregana hurbiltzen dira).*

**Kepa** Ba, agoazilak edo norbaitek martzianoak herrira etorri direla esan omen du.

**Josetxu** Ba, hori agoazilaren istorioren bat izango da, beti mozkorra dago eta txerri bat ikusiko zuen eta martziano bat zela usteko zuen.

- Kepa** Ezetz, kontxo. Atzo gauean kristoren argia ikusi omen zuten Pagamuño baserrikoek, eta gau osoa lo egin gabe pasa omen zuten.
- Maritxu** Hori tximista bat izango zen, motel! Badakizu nolakoak diren baserri horretakoak! Ez zara gogoratzen iaz ere nola ibili ziren? Zirko-funtzioa ikusi ondoren etxera joan zirenean txakurra ikusi eta, a zer istiluak, lehoia zela eta!
- Kepa** Bai, bai, baina Pagamuñokoak bakarrik ez ziren izan argi hori ikusi zutenak. Moxtak ere ikusi zuela esaten du, eta ez esan Moxta formala ez denik.
- Piki** Bai, formala da, baina bakarrik bizi denez auskalo zer ikusiko zuen horrek.
- Kepa** Eta zuk zer diozu martzianoez, Jon?
- Jon** Martzianoez? Ba, laurogei puntu daramatela, eta utzi pakean (*makinatxoaz jolasteari utzi gabe*).
- Kepa** Ez ote da espabilatuko mutil hau? Beti gauza berdinetan pentsatzen...  
Adizue, zergatik ez gara gaur gauean mendira joaten?
- Piki** Mendira? Eta martzianoena egia baldin bada zer? Gainera niri ez didate utziko gaez mendira joaten.
- Kepa** Baina ez al duzu zuk esan oraintxe bertan martzianoen zurrumurru hori gezurra dela?
- Piki** Bai, baina gauean eta mendira...
- Kepa** Eta zuek zer diozue?
- Jon** Nola, nola?
- Kepa** Ezer ez, motel, ezer ez. Hau beti bezala ilargian!
- Maritxu** Niri gustatuko litzaidake gau bat mendian pasatzea, baina ez dakit utziko didaten.

- Kepa** Eta zuk, Josetxu, zer diozu?
- Josetxu** Bai, bai, neregatik bai, noski. Badakizue ni beti prest nagoela horrelako gauzetarako.
- Kepa** Beno Maritxu, orduan zu zer? Uzten badizute, etorriko zara?
- Maritxu** Bai, baina ez dakit zer esan amari uzteko. A, beno, bai, uste dut badakidala zer esan.
- Josetxu** Zer?
- Maritxu** Zera esango dut: Pikiren etxera joango naizela lo egitera, bere gurasoak kanpora irten direlako.
- Kepa** Ba zuk, Piki, Maritxuren etxean lo egingo duzula esan eta kitto!
- Piki** Bai, baina...
- Maritxu** Benga, Piki, ez zaitez kokildu, ez zaigu ezer gertatuko eta. Pentsa zein abentura polita izango den!
- Piki** Beno ba...
- Kepa** Eta zu, Jon, zer?
- Jon** Zer, zer?
- Kepa** (*Haserre*) Utzi ezazu makinatxo zahar hori eta entzun ezazu zer esaten ari garen, demontre!
- Jon** Beno, beno, ez haserretu eta esaidazue zertan ari zinteen.
- Kepa** Ba gaur gaua mendian pasatzeaz ari ginen. Gurekin etorriko zara? Bai ala ez?
- Jon** Gaur gauean mendira, zertara? Perretxiku bila, ala?
- Josetxu** Hau ume leloa hau! Martzianoak ikusten ditugun begiratzera, motel! (*karraxika*).

- Jon** Beno, beno, baina ez moskeatu, motel!
- Kepa** Orduan, gaueko bederatzietan Pagamuño baserri aurrean elkartuko gara denok, bale?
- Piki** Adizu, ni haraino bakarrik ez noa, beldurra diot gauari.
- Maritxu** Lasai, Piki, ni zurekin joango naiz.
- Josetxu** Adizu, Kepa, jateko zerbait eraman beharko dugu, ez? Bestela ni gosez hilko naiz.
- Maritxu** Ez al dizu lotsarik ematen? Halako triparekin eta beti janarietan pentsatzen!
- Josetxu** Ui, begira zer dion gure Madonnak! Zer nahi duzu, «yogur semidesnatado» batekin gau osoa pasatzea?
- Kepa** Beno, bale. Nik uste dut bakoitzak bokadiloa eta linterna bat eramatearekin nahikoa duela, eta benga, goazen orain etxera.
- Denak** Bale, agur.
- Jon** *(Makinaz jolasten)* Eh! nora zoazte orain?
- Piki** Etxera motel, eta badakizu e! Bederatzietan Pagamuño.
- Jon** Bale, bale, agur.
- (Honela bukatzen da lehenengo ekitaldia. Argiak itzaltzen dira eta eszenatokia aldatzen da).*

## II. EKITALDIA

*(Eszenatokia ilun. Josetxu linternarekin Asterix irakurtzen ari da eta Kepa sartzen da bere linterna eskuan duelarik).*

- Kepa** Eup, nor dago hemen?
- Josetxu** Ni motel, ez al nauzu ezagutzen?

- Kepa** Ez al da inor gehiago etorri, Josetxu?
- Josetxu** Ba ez, plantoia eman digutela dirudi.
- Kepa** Lasai egon motel, oraindik etorriko dira eta.  
*(Makinatxoaren zarata entzuten da).*
- Josetxu** Entzun, oker ez banago, hor dator Jon.  
*(Jon sartzen da eszenatokian, linterna ahoan duelarik eta makinatxoaz jolasten, noski).*
- Jon** Kaixo *(gaizki esanda, linternak traba egiten diolako).*
- Kepa** Orain ere makina zahar horrekin. Ez al zara aspertzen?
- Jon** Zer, gu bakarrik al gaude? Ez al dira etorri beste neska poxpolin horiek?
- Josetxu** Ba, ikusten duzu. Oraindik preparatzen ariko dira. Badakizu nolakoak diren neskak, mendira etortzeko ere makilatu egin beharko dira.
- Kepa** Joba, Josetxu, oraindik haserre al zaude Maritxuk esandakoarengatik?
- Josetxu** Ez, ez motel, baina ikusten duzu, bederatziak eta laurden dira eta oraindik ez dira etorri.
- Kepa** Zerbait gertatuko zitzaien bidean.
- Jon** Eta zer egiten ari gara hemen?
- Josetxu** Esan dizut ba, martziano bila etorri garela.
- Jon** Martziano bila? Nik txantxetan ari zinetela uste nuen. Baina nola egongo dira martzianoak hemen?
- Kepa** Ba herritar guztiak horretaz hitz egiten ari dira.

- Josetxu** Ni gosetzen hasia naiz eta, azkar ez badira etortzen, bokadiloa jaten hasiko naiz.  
Ikusi al duzue zer «trainera» jarri didan amak? (*Eta kristoren bokadiloa erakusten du*).
- Kepa** Baina, zer da hori? Denontzako afaria edo zer? Ja, ja, ja...
- Josetxu** Bai, bai, zuk farre egin baina gero gosez baldin bazaudete, niri ez eskatu e?
- Jon** Beno, baina hemen pasa behar al dugu gau osoa?
- Kepa** Lasai motel, itxoin piska bat Maritxu eta Piki etorri arte.
- Josetxu** Bai, etorri arte. Horiek ez dira etorriko, ikusiko duzu. Bihar izango dute aitzakiaren bat: gurasoak ez zietela uzten.
- Jon** Bai, bai, beti bezala. Neska horiekin ezin da behin ere planik egin.  
  
(*Halako batean zarata haundi bat entzuten da eta argiak pizten dira*).
- Kepa** (*Beldurrez*). Baina, baina, zer gertatzen ari da hemen?
- Josetxu** Ez dakit baina goazen lehenbailehen hemendik etxera (*beldurtuta hau ere*).
- Jon** Ai ama, ai ama, ai ama!  
  
(*Orduan, pistolaz armatuak doazen 3 martziano sartzen dira*).
- Kustrok** Baina, baina, zeintzuk dira mutil hauek?  
  
Zer egiten duzue hemen? (*haserre*).
- Kepa** (*Beldurrez*) Ba, ba... Ni Kepa naiz... eta perretxiku bila etorri gara.



- Kustrok** Zer Kepa eta zer «otxokuartos».
- Adizu, Malik, lotu itzazu hauek, hemendik aurrera gure presoak izango dira eta.
- (Malik-ek eta Koxak mutilak lotzen hasten dira eta Joni makinatxoa erortzen zaio).*
- Koxak** Ikusi, ikusi, zein jostailu polita!
- Kustrok** Ea ba, erakutsi. Horiek txorakeriak dira motel, bota ezazu hori harrika.
- Koxak** Ez, ez, utzi hau neretzat gordetzen, mesedez!
- Kustrok** Beno, beno, gorde. Horregatik ez gara haserretuko.
- Malik** Adizue, begira zer daukan honek hemen *(eta Josetxuri bokadiloa kentzen dio)*.
- Zer ote da hau?
- Kustrok** Kontuz ibil zaitez, agian arma arriskutsuren bat izango da eta.
- Josetxu** Mesedez, nahi duzuna egin, baina hori ez kendu, mesedez *(erdi negarrez)*.
- Kustrok** Ikusten, esaten nizuna, kontuz ibili horrekin, Malik, arriskutsua izango da eta...
- Malik** Ba usain ona du *(eta usaitzen hasten da)*.
- Kustrok** Horrekin kontuz ibiltzeko esaten dizut! Agian benenoa izango da eta.
- (Malik-ek bokadiloa izkin batean uzten du eta Josetxu baba dariola gelditzen da begira).*
- Kustrok** Bainan zuek zer egiten duzue hemen? Gure informee-tan azaltzen denez, planeta honetan munstroak ba-

karririk bizi dira eta zuek ez zarete munstroak, gure antzekoak baizik.

Ea, zuek zein galaxiatatik etorri zarete?

**Kepa** *(Beldurrez)* Gu... gu... galaxia?... Gu, hemengoak gara.

**Kustrok** Hemengoak? Eta munstro hauek ez al dituzue ezagutzen?

*(Eta Kustrok-ek lehoi baten argazkia erakusten die).*

**Kepa** A bai, horiek lehoiak dira eta oso peligrosoak dira, baina...

**Kustrok** Nola esan duzu deitzen direla?

**Kepa** Lehoiak. *(Kustrok-ek argazkiaren atzean lehoi hitza idazten du).*

Eta zuek nortzuk zarete? *(konfidantza hartzen).*

**Kustrok** Ni Kustrok naiz, Andromedako buruzagia, eta gu unibertsoa konkistatzera etorri gara. Hauek berriz Malik eta Koxak dira. Eta zuek zein izen duzue?

**Kepa** Nik Kepa dut izena.

**Malik** Eta zuk Potolo, ez da?

**Josetxu** Adizu, ni ez naiz potoloa, eh? Gertatzen dena zera da: sabela baxu xamarra dudala, besterik ez.

**Malik** Berdin da, potolo edo tripaundi, zer izen duzu?

**Josetxu** Nik Josetxu dut izena *(haserre xamar).*

**Koxak** Eta zuk?

**Jon** Nik Jon, baina zer egingo duzue gurekin.

**Kustrok** Ba gure galaxiara eraman eta planeta honetako informazio gehiago lortu ondoren, ikusiko dugu. Beno, ea, zuek hemen gelditu hauek zaintzen eta ni inguruak begiratzera noa, ea zer edo zer gehiago aurkitzen dudan.

**Koxak eta Malik** Bale, bale, agur agintari jauna.

*(Koxak makinatxoaz jolasten hasten da eta Malik kontu handiarekin bokadiloa dagoen tokira hurbiltzen da eta papera kentzen hasten da poliki-poliki).*

**Josetxu** Hori ez mesedez, gosez hilko naiz eta *(erdi negarrez)*.

**Kepa** Ixil zaitez, Josetxu, ez dakite zer den eta!

**Koxak** Nork daki nola jolasten den honekin?

**Jon** Nik, nik *(pozik)*.

*(Jon eta Koxak makinatxoaz jolasten hasten dira. Bapatean Kustrok sartzen da eszenatokian).*

**Kustrok** Adizue, etorri hona, uste dut norbait datorrela. Eta zuk zer egiten duzu hor, Koxak?

**Koxak** Zer, zer? Ni? Ba... jolasten.

**Kustrok** Baina zer pentsatzen duzu, jolastera etorri garela hona edo zer? Etorri azkar hona, demontre!

**Malik** Eta non aditu dituzu zarata horiek, buruzagi jauna?

**Kustrok** Ba hortxe, gure espaziontzia-aren ondoan.

**Koxak** Ez dira lehoiak izango, ez da? *(Beldurrez)*.

**Kustrok** Ez dakit, baina goazen bada ez bada ere begiratzera.

*(Hirurak eszenatokitik irten dira eta handik gutxira Maritxu eta Piki sartzen dira).*

**Maritxu** Baina zer egiten duzue hemen horrela? Ikusi al duzue zein gauza arraroa dagoen han?

**Kepa** Bai, bai martzianoen ontzia da.

**Piki** Martzianoen ontzia! *(Beldurrez)*. Goazen azkar etxera!

- Kepa** Ez, ez, ezin gara etxera joan eta martzianoak hemen utzi, zerbait asmatu beharko dugu martzianoak hemendik bidaltzeko.
- Josetxu** Niri behintzat bokadiloa ekariezadazue, gosez hilko naiz bestela eta.
- Maritxu** Horrelako egoera larrian gaude eta zu hala ere beti bezala janarian pentsatzen.
- Josetxu** Joba, hasi da gure Madonna txorakeriak esaten.
- Kepa** Bueno utzi ditzagun berriketak eta goazen zerbait asmatzera, bestela horiek etorriko dira eta.
- Piki** Jo, nik martzianoei beldur handia diet, goazen etxeraaa... A bai! Badakit, badakit zer egingo dugun! Gogoratzen zarete iaz inauterietan nola disfrazatu ginen lehoiez?
- Denak** Bai, eta zer? Zertara dator orain hori?
- Kepa** Ba hori, zuek, Maritxu eta Piki, etxera joan zaitezte, lehoi-disfrazak jantzi eta hona etorri.
- Jon** Eta guk zer egingo dugu?
- Kepa** Hemen itxoingo dugu, horiek itzuli arte.
- Maritxu** Eta guk, lehoi-disfrazak jantzi eta zer egingo dugu?
- Kepa** Ba ahal duzuen zarata handiena atera, martzianoak beldurtu daitezten. Gu ere saiatuko gara beldur gehiago sartzen. Benga, segi azkar, denbora galdu gabe. Uste dut badatozela, bizkor!
- (Maritxu eta Piki eszenatokitik ateratzen dira eta martzianoak sartzen dira).*
- Kustrok** Ez dugu ezer aurkitu. Zuek norbait ikusi al duzue hemen? *(Haserre).*

- Kepa** (Beldurrez) Guk, guk... ba, ez. Baina basapizti asko ibiltzen dira gauez mendian eta agian horrelakoren bat izango zen.
- Koxak** Basapiztiak? (Beldurrez).
- Kustrok** Ixo, hemen galderak egiten dituen bakarra neu naiz.
- Koxak** Bai, bai, buruzagi jauna.
- Kustrok** Eta zer dira basapiztiak?
- Kepa** Ba zuk argazkian dauzkazunak bezalakoak.
- Koxak** Eta zer egiten dute horiek? (Beldurtuak).
- Kustrok** Ez al duzu aditu, ixilik egoteko!
- Koxak** Bai, bai, buruzagi jauna.
- Kustrok** Eta zer egiten dute orduan, munstro horiek?
- Kepa** Ba gu bezalakoei eraso egin eta begiak, belarriak, eskuak eta piti... beno, badakizu, hori dena jan.
- Malik** Hori ere bai?
- Josetxu** Bai, bai, munstro horiek ni bezalakoak dira, den-dena jaten dute.
- Kustrok** Ba guri berdin zaigu, «laxer izpi» hauekin segituan hilko ditugu.
- Kepa** Ez dut uste. Guk arma mota guztiekin probatu dugu eta munstro horiek ez dira inolaz ere hiltzen.
- Koxak** Ba niri ikara ematen didate.
- Malik** Niri ere bai.
- Kustrok** Ixil zaitetze. Hori dena gezurra izango da eta. Beno, goazen hemendik, hartu presoak eta goazen. Ala, benga... azkar.

*(Orduan lehoi-marruak entzuten dira. Mirentxu eta Piki lehoiez mozorrotuak sartzen dira, hain zuzen).*

**Koxak**

Munstroak, argazkiko munstroak!

*(Hiru martzianoak korrika ateratzen dira. Zarata haundi bat entzuten da, martzianoen espaziontziek egiten duten bezala, eta argiak itzaltzen dira. Mutilek linternak pizten dituzte eta):*

**Denak**

Ja, ja, ja...

**Kepa**

Ez dut uste horiek gehiagotan ikusiko ditugunik.

**Josetxu**

E! E! Ez zapaldu nire bokadilo maitea!

**Maritxu**

Berriz ere bokadiloarekin bueltaka. Harritzekoa!

**Jon**

*(Erdi-negarrez)* Martziano horiek nere makinatxoa eraman dute.

**Kepa**

Hotebo, pozten naiz. Ea piska bat espabilatzen zaren orain.

**Piki**

Zer da hau? *(lurretik makina jasotzen du).*

**Jon**

Nere makina, nere makina!

**Kepa**

Benga, goazen gure herrira, gaurko saioarekin bukatu dugu eta.

**Denak**

*AGUR.*

# **MUGAKO JOSTAILUAK**

OHOko 7. mailako ikasleak,  
Inmaculada Arruzaren ardurapean  
Barrutia ikastola  
Gernika 1990





## PERTSONAIAK

Karabineroen kapitaina	Jostailuak:
Alanbrezko bibotedun karabineroa	Elefantea
Kandido karabineroa	Negarti panpina
1. karabineroa	Liburua
2. karabineroa	Begi majikodun irratia
3. karabineroa	Txirrindo
Bidaiariak	Koloretako baloia
Geltokiko langileak	Pianoa

### I. AGERRALDIA

*(Dekoratua: Lurralde biren arteko muga. HAN-burgo eta HEMEN-burgo. Beraien hiriburuak «HONA» eta «HARA» dira.*

*Eskuinaldean, bulego txiki bat; ezkerrean, manpara batekin bananduta, merkantzia gela dago. Hau paketez eta kaxaz beterik dago. Atzeko leihoetatik tren geltokia ikusten da: argiak, seinaleak, txartelak...*

*Hiru karabinero paketeak zabaltzen ari dira: irрати bat, bizikleta, txartelak, liburuak, panpina... agertzen dira.*

*Karabineroen kapitaina Alanbrezko bibotedun karabine-roarekin hizketan ari da bulegoan).*

**Kapitaina**

Ziur al zaude?

**Alanbrezko  
bibotedun  
karabineroa**

*(Takoikada bat emanaz)* Bai, kapitaina.

**Kapitaina**

Errukitu egin dela eta kontrabandoa pasatzen utzi dela diozu?

**Al. bib. karab.**

Bai, kapitaina. Nik uste dut mundu guztiko kontrabandistak enteratu egin direla jadanik. Denak doaz berarengana. Gogoratzen duzu emakume hura, bitxiekin harrapatu genuena?

**Kapitaina**

Bai.

**Al. bib. karab.**

Ba, lehengo egunean, zu permisoz joan zinenean, berriro pasatu zen hemendik. Ni hor nengoen. Kandido karabineroak ea zer zekarren galdetu zion. *(Eta orain emakume ahotsa imitatuz)*. «Zer dakardan? Ba ez askorik. Nere arropak, ui!, ez begiratu mesedez, zikin-zikina dago eta lotsatu egiten naiz. *(Orain Kandidoren ahotsa)* «Hau?» *(Emakumearena)* «Aguamarina koilar bat, nere alabatxoarena da» Eta pasatzen utzi zion! Pasatzen utzi zion, kapitaina!! Eskerrak neu hantxe nengoela eta harrapatu nuela. Lapurturiko bitxiak baitziren!

*(Kapitaina zutitzen da eta paseatzen hasten da. Kezkatua ematen du. Hiru karabineroak kaxak zapaltzen dihardute).*

**1. karabineroa**

Ez dakit zergatik ez dituzten zabalik uzten pakete guztiak. Errezago izango litzateke begiratzea.

*(Mailu handi batekin jotzen ari da).*

**2. karabineroa**

*(Destorlojagailu handi batekin dabil)* .

Arrazoa duzu, X izpiekin ikusi beharko genituzke. Egunero amaitzen dut hatzamarrak minberatuta. Inurriak ditudala iruditzen zait.

**3. karabineroa**

Ba, niri batzuetan pena handia ematen dit apurtzea. Pakete batzuk hain dira lirainak eta hain ondo eta kon-

tu handiz eginak... (*Jarraian izugarrizko kolpeak ematen dizkio apurtzeko asmoz; alikate handi batzuekin ari da*).

(*Une horretan kapitaina agertzen zaie atean*).

## **Kapitaina**

(*Garrasika*) Ixilik!! Lan gehiago eta hizketa gutxiago!  
(*Haserre dago eta hiru karabineroak beldurtzen ditu*)  
Hmm! Grr!

(*Berriro bere bulegora doa eta tinko geratu den Alanbrezko bibotedun karabineroarekin elkartzeko da*).

Brrr! Esaiozu tontolapiko horri oraintxe bertan etortzeko!

**Al. bib. karab.** Zure aginduetara, kapitaina!

(*Takoikada bat ematen du baina, beti bezala, min hartzen du. Aieneka doa. Beste karabineroen aurretik pasatzen da. Hauek marmarka ari dira. Kapitaina bere mahaian dago. Pentsakor dago. Idazten ari da. Tren bat geltokira sartzen da. Jende piloia etorri da paketez beterik*).

## **Jendea**

(*Kantuan*).

Bidaiariak gara  
gu goaz, Hara eta Hona  
poltsaz eta paketez  
beterik beti gabiltza  
Orain gu hemen muga  
karabineroekin  
kontrabandoa dela-ta  
zoratu gaituzte! Brrr!

(*Hirugarren karabineroa paketeak zabaltzen ari da. Izugarrizko nahastea eginda dago*).

**2. karabineroa** Lotu ala askatu egin behar zaitut?

(*1. karabineroa bere lagunaren estuasunez barrezka ari da*).

- 3. karabineroa** Antza denez paper gabe geratu dira.  
*(Lotzeko papera kentzea lortu du eta kartoizko elefante bat agertzen da).*
- 1. karabineroa** Aiba! Elefante bat!!  
*(Liluraturik elefanteari begira geratzen da. Gero bulegora doa).*
- Elefante bat pasa daiteke, Kapitaina?
- Kapitaina** *(Harrituta).* Elefante bat? Nondik?
- 3. karabineroa** Mugatik.
- Kapitaina** Beno, apurtzen ez badu...
- 3. karabineroa** Kartoizkoa da. Eta... zein tarifa kobratzen zaio elefante bati?
- Kapitaina** Ba, jostailuena, tontolapiko hori!! Zein izango da ba?
- 3. karabineroa** Baina oso handia da...
- Kapitaina** *(Haserre bizian).* Ba, orduan berari galdetu! Nahikoa da!! Ixilik eta lanera!  
*(Tren bat heltzen ikusten da. Jendea eta zaratak entzuten dira. Geltokiko langileak paketeekin datoz).*  
*(Kandido karabineroa dator).*
- 2. karabineroa** Sasoia izan da, Kandido!
- 1. karabineroa** Zuk bai bizimodua daramazuna, txo!
- Kandido** *(Burua atetik atereaz)* Sartu al naiteke, kapitaina?
- Kapitaina** Bai, bai, aurrera. *(Bere lanetik bururik altxatu gabe).*
- Kandido** *(Dudaz).* Sartu al naiteke?

- Kapitaina** *(Haserre, mahaian ukabilkada handi bat eman ez).*  
Baietz esan dizut!! Sartu eta itxi atea!
- Kandido** Zure aginduetara, kapitaina! Alanbrezko bibotedun karabineroak nerekin hitz egin nahi duzula esan dit.
- Kapitaina** *(Berrito eseri da eta urduri samar dago. Puzka ari da).*  
Kandido, ba al dakizu zertarako gauden gu hemen?
- Kandido** Ez.
- Kapitaina** Nola ezetz!? Ez dizut mila aldiz esan hau muga bat dela eta guk hemen ezin dugula ezer pasatzen utzi? Beno, gure herritarrentzat kaltegarri diren gauzak behintzat...
- Kandido** Bai.
- Kapitaina** Guri enkargatu digute misio hau aduanako langileak engainatzen zituztelako. Eta batzuk tonto plantak egin eta dirua eman ezkeron kontrabandoa pasatzen uzten zuten!! Gure disziplinaren beharra egon da. Gu ez gara hain erraz erosten!!
- Kandido** Bai.
- Kapitaina** Bai, zer?
- Kandido** Ezetz!
- Kapitaina** Nola ezetz!?
- Kandido** *(Lio bat eginda).* Baietz!!
- Kapitaina** A, beno! Inork ez gaitu diruagatik erosiko! Gu zintzoak garai. Horregatik agindu digute guri lan hau egiteko. Ez du ezerk pasa behar. EZERK ERE EZ!! Ulertzen duzu? Mila begirekin begiratu behar da HAN-burgotik datorren merkantzia guztia. Karabinero on batek begi azkarrekin begiratu behar du HAN-burgotik HEMEN-burgora ezer pasa ez dadin. Zuk mugako karabinero on bat zarela pentsatzen al duzu?

- Kandido** Ez.
- Kapitaina** Nola ezetz?
- Kandido** Nik begi bi besterik ez ditut. Betaurrekoak kontatuz lau, ordea.
- Kapitaina** *(Bere onetik irten beharrean). Ixilik!! (Kandidori begiratu) Kandido... egia al da lehengo egunean aguamarina koilar bat pasatzen utzi zenuela?*
- Kandido** Bai.
- Kapitaina** Nola!? Baina, zer ziren jakinaren gainean?
- Kandido** Bai, nere kapitaina. Baina neskatxa baten izena iruditu zitzaidan... Aguamarina, Josefina, Carolina... Ez nuen ondo ulertu!
- Kapitaina** Baina nolako astogorria zaren!
- Kandido** Nere alabatxoak Josefina du izena. Eta gainera, emakume hark hain begi urdin eta goxoak zituenez... Ile-horia zen!
- Kapitaina** *(Garrasika). Ixilik!! (Tinko dagoen besteari begiratzuz). Atsedeen!!*
- Kandido** *(Oso lasai eta eroso jartzen da mahai gainean). Eskerrik asko!!*
- Kapitaina** Atsedeen posizioa esan dut eta ez tripaz gora jezarteko! Hau al da disziplina!?
- Kandido** *(Zutituz) Barkatu... (orain tontotuta bezala). Ba, joño, «disziplina»! Honek ere neskatxa izena ematen du, gutxiago bada ere: Disziplina, Josefina, Aguamarina... Izugarri gustatzen zaizkit -ina amaiera duten hitzak!*
- Kapitaina** Nahi-ko-a da ton-to-ke-ri-a ho-rie-kin!! *(Mahai gainean ukabilkada handi bat emanaz. Ixilune baten ondoren...).* Non sartu zara arratsalde guztian?

**Kandido** Nere alabatxoari esan nion tren baten etorrera ikustera ekarriko nuela eta...

**Kapitaina** (*Gutziz haserre, ahots beldurgarri batekin*). Kandido karabineroa... egoera honek ezin du honela jarraitu! Lehengoetara itzultzen bazara, gartzelaratuko zaitut!! Gartzelara!! Entzun duzu?  
(*Zutitu egin da eta mahaiari bueltak ematen hasi da. Kandidori aurpegi misteriotsu eta serioaz begiratzuz, honela esaten du*) Mugako karabinero on batek arima ere karabinerotu behar du! Kandido, gaur gau osoa geldituko zara zeu bakarrik heldu diren pakete guztiak zabaltzen! (*eta badoa*).

**Kandido** (*Abestuz*).  
«Beti, beti  
beti berdina!  
Neretzat zigorrak eta sermoiak!  
Ez dut, ez dut  
inoiz lortuko,  
gauzak txukun egitea.  
Beti, beti  
beti berdina  
neretzat zigorrak dira!!

(*Jostailuak abestia errepikatzen dute «neretzat» esan beharrean «zuretzat» esanez*).  
(*Lanean hasten da nekez eta...*

## TELOIA BEHERA

### II. AGERRALDIA

(*Dekoratu berdina*).  
*Gaua da. Bulegoa hutsik eta ilun dago. Kandido kontuz-kontuz paketeak zabaltzen ari da. Ez darabil tresnarik. Leihotik geltokiko argia ikusten da. Pakete zabalduen artean ikusten diren gauzak hauek dira: irrati bat, liburu pila bat, kartoizko elefantea, bizi-*

*kleta bat, piano bat (jostailuzkoa), koloretako baloia eta panpina negarti handi bat. Gauza guzti hauek foko batekin argituak izango dira).*

**Kandido karab.** *(Bakarrik hitz egiten, kexaz eta erdi negarrez) Muga batean gaude, ezin dugu ezer pasatzen utzi! Mila begi eduki behar ditugu. (Barre apur bat egiten du orain) Barregarria izango litzateke... Ja, mila begi.! Ez gutxi ere! Betaurrekotan ere ez nuke egingo! (Barrezka) Zikinkeri bat bi begietan batera sartuko balitzait, zer? Ja, eta negar egiteari ekingo banio? (Igerian dabilen plantak egiten hasten da) Glu, glu, glu! Ez tristetu ni mesedez, itto egingo naiz eta! Glu, glu, glu. Laguntzaaaa!!!*

*(Alanbrezko bibotedun karabineroa dator. Harrituta gelditzen da Kandido tontokeria horiek egiten ikusirik)  
(Kandido disimulatzen hasten da. Zerbaiten bila dabilen plantak egiten ditu).  
«Tornilo bat galdu zait!».*

**Al. bib. karab.** Norena? Zeurea?

**Kandido** Ez, ez, kaxa horrena. Ez dakit zer dela eta erabiltzen dituzten torniloak, untzeak erabili beharrean!

**Al. bib. karab.** *(Urreratuz)* Baina untzez josita dago eta!

**Kandido** Aiba, horregatik ez nuen aurkitzen torniloa, ja!

**Al. bib. karab.** Aizu, Kandido, nahikoa duzula uste dut e? Tontokeria gehiegi egiten ari zara... Kapitainak izugarrizko «sermoia» bota dizula entzun dut.

**Kandido** Bai, mila begi ez edukitzeagatik egin dit agirika! Muga-ko karabinero batek mila begi eduki behar ditu eta nik bi besterik ez ditut. Betaurrekoekin, lau.  
A, eta arima ere karabinerotu egin behar dugu!

**Al. bib. karab.** Egunen batean gartzelan sartuko zaitu. Eta beharbada karabinerotzatik ere kanpora bidaliko zaitu!



**Kandido** Ba hobeto! Nik ez nuen mugara etorri nahi. Inoiz ez dut ulertu zertarako balio duen muga batek. Ba al dakizu Josefina nire alabatxoak kontrabandoa egiten duela? Eta nik lagundu egiten diot. HAN-burgoko karabinero baten alabaren lagun handia da. Eta, kasualitatez, bere lagun-txoari hemengo panpinak gustatzen zaizkio eta Josefina-ri hangoak. Dirua aurreratzen dute eta nahikoa dute-nean, panpina bat erosten dute batak besteari bidaltzeko! Eta bere aitak eta nik hemendik pasatzen ditugu, mugatik, estraperlo modura. Baina (*ikaraturik*) ez kapitainari ezer esan, eh?

**Al. bib. karab.** Alaba hori eduki zenuenetik eta hona, kokolotu egin zara. Haurtxo bat bihurtu zara. Karabinero batek ez luke umerik eduki behar!

**Kandido** Zergatik ez? Josefinak gauza asko irakatsi dizkit. Umeek badute zer irakatsi nagusiei. Barre egiten, adibidez. Nik edozeri egiten diot barre. Denak ematen dit barregura. Nagusien bizia jolas bat bezala ikusten dut. Baina jolas triste bat da. Nik neuk ere, uniforme honekin benetakoa ez banintz bezala ikusten dut neure burua. Jostailuzko karabinero bat naizela ematen dut. Josefinak esan dit gauzek ere hitz egiten dutela. Entzun ditzakegu. Galdetu ezkerro, erantzun egiten dizute. Eta zeuri galderak egin ere bai! Josefina bera ere, jolasten ari denean, patatekin ere hizketan ibiltzen da...

**Al. bib. karab.** (*Zoro keinua eginez*). Bai, bai, jarrai zazu tornilo horren bila, ea aurkitzen duzun!

**Kandido** Ez barrerik egin! Nik paketeetan datozen gauzekin hitz egiten dut. Ea kontrabandorik dakarten galdegiten diet eta horrela ez dut zabaldu beharrik. Gero edozein gaiez hitz egiten dugu. Horregatik ez zait inporta kapitainak gau osorako zigorra ematea. Oso ondo pasatuko dugu! HAN-burgoko gauzez hitz egiten didate eta abestiak ere irakasten dizkidate! Entzun, entzun!

(*Elefantearengana hurbilduz*).

Elefante jauna, Indiatik ala Afrikatik zatoz?

- Elefantea** Afrikatik nator, ez zait gustatzen «indioarena» egitea!  
(*Buelta-bueltaka ari da*).
- Kandido** Zergatik ari zara buelta-bueltaka?
- Elefantea** Izugarrizko «tronpa» dudalako!  
(*Kandido barrezka ari da. Bere lankidea tinko eta geldi dago, ezer entzun ez ikusi ez balu bezala*).
- Al. bib. karab.** Nik ez dut ezer entzuten. Tira, etor zaitez nerekin bulegora. Kapitainak pakete hauen paperak zuri emateko agindu dit.  
(*Badoaz biak bulegora. Alanbrezko bibotedun karabine-roak argia piztu du eta paper artean bila hasi da. Batzuk hartu eta Kandidori eman dizkio*).
- (*Jostailuak, bakarrik gelditu direnean, hizketan hasten dira*).
- Negarti panpina** (*Negarrez eta mugitzen*). Ai, ai, nolako beldurra!! Hotz naiz eta beldurturik nago. Oso beldurturik. Buaaa!
- Begi majikodun irratia** Zeren beldur zara, Negarti panpina?  
(*Berehala argi bat piztu zaio eta gizon ahots batek irteten dio*).
- «ESTATU BATUETAKO AGINTARIEK ESAN DUTENEZ PATRUILA MILITAR BAT ANTOLATUKO DUTE EUREN HERRIA BESTE PLANETA BATZUETATIK ETOR DAITEZKEENENGANDIK ZAINTZEKO...».
- (*Argia keinuka hasi da eta irratia buelta-bueltaka*).
- Zeren beldur zara, Negarti panpina? Zeren beldur?

## Liburua

Baina zergatik hitz egiten duzu horrela, Begi majikodun irratia? Ahots batekin hasten zara eta gero beste batekin irtetzen dizu. Gauza arraroak esaten dituzu!

## Begi majikodun irratia

Ez dakit zer gertatzen zaidan.

*(Eta orain lokutorearen ahotsarekin...).*

«SIRIA BARNEKO TENTSIOA GERO ETA HAN-DIAGOA DA. GOBERNUA ETA ARMADA IRAKEN ALDE DAUDE...».

*(Berrito ume ahotsa).*

Gauza bat esatera noanean, zas!! *(Lokutore ahotsa berriro...).*

«ERRUSIA MILITAR ETA INDUSTRIALKI SENDOTZEKO PLAN BAT PRESTATZEN ARI DA».  
*(Ume ahotsa...).*

... pentsatzen ari nintzenarekin zer ikusirik ez duen beste gauza bat esaten dut!!

## Elefantea

Barruan pizten zaizkizun argi horiekin erdi zoraturik egongo zara, Begi majikodun irratia! Ez dakit nola eduki ahal dituzun horrenbeste ahots hor barruan...!

## Begi majikodun irratia

Zeren beldur zara, Negarti panpina?  
Zeren beldur zara, Negarti panpina?  
Zeren...

*(Argi bat piztu eta itzali ari zaio, zarata arraroak entzuten diren bitartean: txori txio-txioak, oihuak, sirenak, abesti zatiak hizkuntza arrotzetan, ahots desberdinak...).*

*(Beste jostailu guztiak barrezka ari dira eta buelta-buelta-ka. Bitartean, karabinero biak paper artean ari dira zerbaiten bila).*

- Al. bib. karab.** (*Paper pilo bat besteari emanetz*). Hauek denak dira.
- Kandido** (*Alboko gelan zerbait entzun duen planta egiten du*).  
Ez al duzu entzuten? Ederto pasatzen ari dira! Ikus dezagun zertan ari diren.  
  
(*Aterantz doa, bestea arrastaka daramala*).
- Begi majikodun irratia** Barkatu, Negarti panpina. Ez dakit zer esaten ari nintzen... (*Txistu txiki batzuk egiten ditu*) Piiit-Pit-Piiit...
- Negarti panpina** (*Negarrez hara eta hona dabil*). Ui, nolako beldurra! Hotz eta beldur naiz. Oso beldur. Gela handi eta hotz honek beldurtu egiten nau!! Eta karabineroek !! Bidaiatik zorabiatuta nator. Ez nuen inoiz pentsatuko horrenbeste denbora bidaiari egingo nuenik. Munduak itzelezkoa izan behar du! Baina agian berari buelta-bueltaka ibili gara... Egia al da muga batean gaudela eta denok aztertuko gaituztela? Alanbrezko bibotedun karabinero bat ikusi dut. Ui, nolako beldurra! Alanbrezko bibotedun karabinero bat!! BUAAA!!
- Kandido** (*Barrezka*). Zutaz hitzegiten ari dira. Itzelezko beldurra ematen diezu zeure alanbrezko bibote horiekin.
- Txirrindo** (*Bere hizketa berezi horrekin. Burla antzerako erritmoarekin hitzegiten du, besteak beldurtu nahian*).  
Ja, ja, tripak-aterako-dizkizute. Ja, ja, barrutik-aztertuko-zaituzte, ja, ja, bai-bai-ja, ja, ja.
- Liburua** Ez zaitetz astokiloa izan, Txirrindo! Ez al duzu ikusten Negarti panpina ikaratzen ari zarela?
- Txirrindo** (*Kasurik egin gabe*). Kontrabandoa baldin badaramazu... Ja, ja, ja. Bitxiak ote dakartzazun, ja, ja, ja. Eta inork ez du igarriko nik zer dakardan nire gurpiletan, ja, ja, ja.
- Koloretako baloia** Haizez beterik daude!
- Txirrindo** Ez horixe! Ez daude haizez beterik. Ez horixe, ja, ja, ja. Tripak-aterako-dizkizute-Ala, ala!



Zergatik ezin  
aurrera joan  
geratu gabe  
beti gu mugan? } (BIS)

Betiko arazoa...  
(*eta abar*).

### III. AGERRALDIA

(*Dekoratu berdina. Bidaiariak datoz. Kapitaina ere bada-  
tor. Loguraz dago oraindik*).

**Bidaiariak** (*Abestuz. Doinua: Kasianoren beste abesti famatu batena*).

«Beti bezala gatoz  
gu poltsaz beterik;  
trenez etorri gara  
gure lagunekin.

Eta orain hemen, mugan,  
karabineroekin  
eztabaidan hasteko } (BIS)  
gogorik ez dut nik!

**Kapitaina** «Milagroa» izango litzateke! Inoiz ez ditut goizetan la-  
nean aurkitzen! (*Beste karabineroengatik*).

(*Bere bulegoan paperak begiratzen ari da. Begiak igurtziz  
eta aho-zabalka ari da*).

**Al. bib. karab.** Sartu al naiteke?

(*Ez dio entzuten. Ahoa zabaltzen ari da orain ere, zarata  
handia eginez. Orain oihuka esaten dio...*).

SARTU AL NAITEKE, nere kapitaina?

**Kapitaina** (*Disimulatuz*). Bai, bai, aurrera! (...).  
Tira, sartu hadi ba! Zertan ari zara hor atean tonto bat  
bezala?

- Al. bib. karab.** (*Txapela eskuan duela, bere nagusiaren mahai aurrera doa*). Zure aginduetara, nere kapitaina! Ez naiz lehena-go sartu zure erantzunik entzun ez dudalako...
- Kapitaina** Ia ordubete daramat lanean paper hauekin eta lanean nabilenean, ez naiz beste ezertaz konturatzen. (*Lekutik altxatu eta paper mordo bat hartzen du*). Goazen pakete hauek aztertzeraz.
- Al. bib. karab.** (*Berari atzetik jarraituz*): Zure aginduetara, nere kapitaina!
- Kapitaina** (*Bere paperei begira*) Ea, 522. paketea!
- Al. bib. karab.** (*Paper artean bilatuz*). Bai, hauxe da.
- Kapitaina** Prismatiko alemaniar batzuk dira hiriko optika baterako. Begiratuta al dago?
- Al. bib. karab.** Ez, antza denez ez. Ez du gurutzerik eginda. (*Orain barrua aztertuz*). Baina erraza da. Hemen ezin da ezer etorri. Ez badute kontrabandoa kristal artean sartu...
- Kapitaina** Begira ezazu, badaezpada.  
  
(*Karabineroa prismatikoak hartu eta begiratzen hasten da*).
- Al. bib. karab.** (*Kapitainari enfokatuz*) Aiba!! Zer txikia ikusten zaitudan! A, alderantziz jarri ditut eta. (*Orain buelta emanaz*) Orain erraldoi baten itxura duzu, nere kapitaina! Zein hurbil zauden!
- Kapitaina** (*Haserreturik*) Nahikoa da! Ez gara jolasean ari (*Eskuaz mehatxatuz*).
- Al. bib. karab.** (*Eskua aurpegira eramaten du, aurpegiko bat hartu balu bezala*). Hain hurbil ikusi zaitudanez, jo egingo nauzula pentsatu dut! Ia-ia mina ere sentitzen dut! (*Prismatiko hauek uzten ditu eta beste batzuk hartu, beraietatik begiratuz*).  
Ezer ez, ez dute ezer.

- Kapitaina** Pasatu orduan. Klarionaz gurutze bat egiozu.
- (Hau egin ondoren, Karabineroak paketetik liburu bat hartzen du).*
- Utzi hori Kandidorentzat eta ikus dezagun bizikleta hori.
- Al. bib. karab.** *(Bizikletaren gurpilak begiratzuz).* Zer gorde daiteke bizikleta baten barruan? Ez gara hasiko, ba, tubo guztiak askatzen...
- Hau 535.a da.
- Kapitaina** *(Bere paperei begira)* Bai, 535.a da.
- (I. agerraldiko hiru karabineroak sartzen dira).*
- Hiru karabineroak** *(Denak batera)* Zure aginduetara, nere kapitaina!!
- Kapitaina** Benga, hasi berehala lanean! Beti berandu zatozte eta egunen batean aspertuko naiz... Aizu! Begira ondo liburu pakete hori!
- Karabinero buru-soila** Zure aginduetara, 604.a da.
- Kapitaina** Bai, konprobatu dut *(Alanbrezko bibotedun karabineroari)* Zer dago kaxa horretan?
- Al. bib. karab.** Jostailuak. Baina gurutzatuta daude.
- Kapitaina** Ummm! Ez dakit, ez dakit... Hemen zerbait arraroa dagoela susmatzen dut. Kandidorekin ez naiz fidatzen. Jostailuak! Lar zintzoegiak... Ondo begiratu behar dira: 581.a da.
- Al. bib. karab.** Bai. *(Etiketan irakurriz)* Jostailuak dira.
- Kapitaina** Bai, bai, «jostailuak»! Ikusiko dugu. Benga, hasi dena ateratzen!



- Al. bib. karab.** Pilota bat... Hemen ezin dute ezer sartu.
- Kapitaina** Noski, haizez beteta egon beharrean, beste zerbait ez badu...
- Al. bib. karab.** Baina zabaltzen badugu, agur pilota!
- 1. karabineroa** *(Beste gauzen artean begiratzen)* Ikasteko liburuak dira denak.
- Kapitaina** Zer ikasteko? Ea, bota ezazu begirada bat. *(Alanbrezko bibotedun karabineroari)* Beno, utzi pilota hori.
- Al. bib. karab.** *(Pilotari ostikada bat ematen dio eta «AI» bat entzuten da).* E!?
- Kapitaina** *(Haserre)* Nork esan du «AI»?
- Al. bib. karab.** Pilota ez bada izan... Kandido karabineroak gauzek hitz egiten dutela esaten du.  
*(Karabinero guztiak barrezka. Kapitaina ere bai).*
- Kapitaina** Ala! Jarraitu. Zer gehiago dago?
- Al. bib. karab.** Jolasteko piano bat.
- Kapitaina** Piano bat? Nonbaitetik zabaldu ahal da?
- Al. bib. karab.** Baietz uste dut. Tornilo bi ditu. *(Destorlojagailu bat hartzen du).* Zabalduko al dut?
- Kapitaina** Noski baietz! Zeri itxaroten zaude? Piano horretan joan den hilean HAN-burgon lapurtutako bitxi guztiak egon daitezke...  
*(Alanbrezko bibotedun karabineroa torniloak lasaitzen hasten da eta Pianoak zarata bat egiten du).*
- Kapitaina** Baina, zer da hau? Zarata egiten duen jostailu bat? *(Beste karabineroei).* Aizue!! Beharbada hitz egiten ere jakingo du eta muga zertarako pasatu nahi duen kontatuko

digu! (*Karabinero guztien artean hartzen dute*). Berak esango digu zer duen barruan!

**Pianoa** (*Nota batzuk entzun ondoren, hitz egiten hasten da*). Nahikoa da! Dena esango dut!! Utzi pakean! Nahikoa da!

**Kapitaina** Ekarri hona! Ea, esan: nondik zatoz?

**Pianoa** HAN-burgotik. Ume batzuk bidaltzen naute HEMEN-burgoko lagun batzuentzat opari bezala.

**Kapitaina** Eta zer duzu barruan?

**Pianoa** Musika. Bakarrik musika!

**Kapitaina** Musika, e? Ba orain kantatuko duzu! (*Alanbrezko bibotedun karabineroari*). Destorlojagailua! (*Karabineroa torniloa zabaltzen hasten da*).

**Pianoa** Ez, ez, mesedez! Kantatuko dut! Zuek nahi duzuen kantatuko dut! Zer nahi duzue kantatzea? TRA-LA-RI-LO-RE-RO... (*Abesti nota batzuekin hasten da, baina gero garrasika*). Ai, Ai, astokilo hori! Tapa apurtuko didazu!! Ai, ai!

(*Karabineroak azkenean tapa zabaltzen du*).

**Al. bib. karab.** Ez dago ezer. Musika-hari batzuk besterik ez.

**Kapitaina** Ondo dago. Utzi, ba. (*Beste karabinero bati*) Zuk ipini torniloak! Eta zuk (*Alanbrezko bibotedun karabineroari*) ikusi zer gehiago dagoen pakete horretan!

**Al. bib. karab.** Panpina bat eta libreto bat.

**Pianoa** (*Ahots ahularekin*). Partitura bat da, «Fa» klabean.

**Kapitaina** Klabean, e? Espionaia egiten ari zara, ala? Liburu hori ez da mugatik pasatuko! Bahituta geratzen da!! Har eza-zu panpina; ikus dezagun.

*(Alanbrezko bibotedun karabineroa makurtu egin da, ikuslegoari lepoa emanez, kaxa irekian zerbait aurkitzeko. Berehala zutitu egin da, esku bat aurpegian duela).*

**Al. bib. karab.** Aurpegiko bat eman dit!!

**Kapitaina** Nork?

**Al. bib. karab.** Panpinak!!

**Kapitaina** Baina, zoratzen ari gara ala zer? Hitzegiten eta salto-saltoka dabilzan pianoak, aurpegikoak ematen dituzten panpinak... Harrapa ezazu berehala! Hemen misterio handia dago!

*(Alanbrezko bibotedun karabineroak Negarti panpina ateratzen du, gorputzetik helduta. Hau beso eta hankak mugitzen ari da).*

**Negarti panpina** *(Garrasika)*. Ez, ez, niri ez! Mesedez, ez minik egin, karabinero jaunak!! Beldurtuta nago. Barkaidazu, alanbrezko bibotedun karabinero jauna!! Urduri jarri naiz eta... Horregatik eman dizut aurpegikoa.

**Kapitaina** Kendu iezaizkiozue arropak!

*(Alanbrezko bibotedun karabineroak hala egiten du. Bere lagunak etorri behar izan dira laguntzera, beso eta hanketatik heltzeko. Azkenean Negarti panpina biluzik geratzen da).*

**Kapitaina** *(1. karabineroari)*. Zuk arropa horiek ondo aztertu!

**Negarti panpina** *(Oihuka)*. Ui, hotzak hiltzen nago! Ez ni ukitu tabakoak horitutako hatzamar horiekin!! Ez ukitu, Jainkoarren! Nazka ematen dit!! Ni oso mindulina naiz!

**Kapitaina** *(Hobeto ikusteko asmoz hurbilduz)*. Zer da hori?

*(Panpinaren gorputz erdi-erdia seinalatuz).*

**Al. bib. karab.** *(Puntu berdina seinalatuz)*. Hori? Ez dakit, bada!!

**Negarti panpina** Negar egiteko balio duen zila da! Ez ukitu, kapitain jauna! Esaiezu ez ukitzeko!!

**Kapitaina** *(Alanbrezko bibotedun karabineruari)* Ea ateratzen diozun!

*(Panpina garrasika dagoen bitartean, alanbrezko bibotedun karabineroak alikate handi batzuk hartu eta negar egiteko zila kentzen hasi da).*

**Al. bib. karab.** Ezin da!

**Kapitaina** Ba sartu barrurantz. Zulo horretatik hatzamarra sartu ahal izango duzu, barruan zer dagoen jakiteko. Gero buru eta ile artean ere begiratuko diozu, toki guztietan.

*(Guzti hau egiten ari den artean, Negarti panpina negarrez eta oihuka ari da).*

**Al. bib. karab.** Ezer ez. Ez dago ezertxo ere. *(Bitartean tren bat heltzen da geltokira).*

**Kapitaina** Beno, ongi da. Utzi bakean. Goazen! «Expresoa» iritsi da eta bidaiariak errejistratu behar ditugu. Gero jarraituko dugu horrekin *(Denak doaz. Jostailuak geldi-geldi geratzen dira bakarrik. Negar apur bat entzuten da).*

*(Kandido ixil-ixilik sartzen da. Inor ez dagoela ikusirik, arinago ibiltzen hasten da. Jostailuak dauden tokirantz doa).*

**Kandido** *(Oihu bat egitera doa, baina ixiltzen da).*  
Zer da hau? *(Negarrez hasi da),* Negarti panpina, zer egin dizute? *(Kontuz ukitzen du; panpina ez da mugitzen).* Konortea galdu duzu!! Gorputz guztia zauritu dizute astokilo horiek eta zure negar egiteko zila kendu!!... Nolako mina egin behar izan dizuten! *(Negarrez indartsu hasten da)* BUAAAA!!!... Eta zuk, Piano, beharbada oraindik aurrera ezin izango duzu gehiago soinurik aterara, tapa guztia apurtuta duzu eta...

*(Froga egiteko pianoa jotzen hasten da. Soinu ahul bategi irteten du) Beno, eskerrak zu behintzat salbatu egin zarela. Koloretako Pilota (Honek salto bat egiten du «Ai»! bat esanez) Zuri ere min egin dizute, Pilota? (Pilota salto-saltoka ari da eta salto bakoitzean «Ai»!! egiten du). (Kandido, Pianoa eta Negarti panpina aztertzen ari da. Gero kajoi batetik pintura zuria, pintzelak eta oihal batzuk ateratzen ditu. Jostailuengana doa. Pianoa margotzen hasten da, berrizteko asmoz. Gero oihala apurtzen du zatietan eta panpina bendatzen hasten da, berriro negar egiteko zila bere tokian ipini ondoren. Orraztu eta jantzi egiten du).*

«Zuen paketea klarionez markatu nuen ea salbatzen zintuztedan, baina alferrik izan da. Zuk duzun soinu alai horrekin, Pianotxo; zu zaren politarekin, Negarti panpina...! Josefina zoriontsu izango litzateke zuekin, bai horixe! Zuri, Negarti panpina, bere ohean sartu eta abestiak kantatuko lizkizuke, amatxo txiki batek bezala eta loak hartu ondoren, muxu bat emango lizuke, poliki-poliki eta ixil-ixilik... itzartu ez zaitzan».

*(Une honetan Panpina jazten amaitu du eta Kaxa barruan sartzera doa. Esan daiteke seaskatxo batean ipintzera doala, hain kontuz eta goxo tratatzen duenez. Utzi du eta Pianoa hartzera doa. Harekin dagoen artean, atzetik ixilka Negarti panpina etorri da eta muxu bat eman dio. Gero, korrika doa berriro era kaxara eta barruan sartzen da).*

«Ah sorgintxo hori, ez zara lo egon, ez?»...

*(Orduan jostailu guztiak irten dira kaxatik: «EZ»!!! esanez eta azken abestia kantatzen dute, «Aitorren Hizkuntz Zaharra» doinuaz).*

Mugako jostailuok  
azaldu nahi dugu  
zure bihotz ona ta  
maitasun handia

Inoiz ez dugu ahaztuko  
munduan daudela  
zu bezalako gizonak } (*BIS*)  
zintzo eta leialak

AMAIA

# **NAPOREN ISTORIO HISTORIKOAK**

Bittor Arrondo  
Axular lizeoa  
Donostia 1989





## PERTSONALIAK

Napo	Zesar
Maritxu	Pelorrata
Koldo	Anttoni
Antton	Kolon
Fermintxo	Pinzon
Adan	2 marinel
Eva	3 indio
2 saltzaile	Iraultzaren Nagusia
Petronila	Borreroa
Klodobika	Epailea
Harri	Noblea
3 soldadu	Apaiza

### I. ESZENA

*(Haur batzuk gelan, 7. mailan daude. Beren lehen klase eguna da).*

- Fermintxo**      Kaixo, lagunak! Zer moduz?
- Maritxu**      Nahiko gaizki. Ez al duzu ikusten? Berriz ere ikastolara!
- Antton**      Bukatu zaigu oporraldia! Akabo onena!
- Koldo**      Jo, gainera aurten gai berri bat daukagu.

<b>Besteak</b>	Zein?
<b>Koldo</b>	Gizarten, Historia!
<b>Fermintxo</b>	Hori da onena, lagunok!
<b>Antton</b>	Isildu hadi, hi txoratuta hago eta!
<b>Fermintxo</b>	Baietz, ba! Ba al dakizue nork emango digun Historia?
<b>Besteak</b>	Nork? Esan, esan!
<b>Fermintxo</b>	Napoleon Colontegi Cesarmendia. Denek «Napo» ezi-zenez ezagutzen dute. Tipoa txoratuta dago. Esaten duenez, gizonik famatuenak bere arbasoak omen dira.
<b>Maritxu</b>	Ederra egin dugu! Gainera gure tutorea izango da.
<b>Koldo</b>	Eseri, eseri, badatorrela!
<b>Napo</b>	Egunon, ikasle maiteok!
<b>Denak zutituta</b>	Egunon, Napo jauna.
<b>Napo</b>	Zer diozue? Ni ez naiz Napo, ni Napoleon Colontegi Cesarmendia naiz; eta ohore, ospe eta entzute handiko izen eta deiturak ditut.
<b>Fermintxo</b>	Maisu jauna!
<b>Napo</b>	Zer?
<b>Fermintxo</b>	Ez haserretu mesedez, Napo esaterakoan zurekiko samurtasuna adierazi nahi genuen.
<b>Napo</b>	Horrela bada, tira! Baina berriro ez dadila gerta. Niri zuzentzerakoan Napoleon Colontegi Cesarmendia jauna esango duzue. Ulertzen?
<b>Besteak</b>	Bai, Napo jauna.
<b>Napo</b>	Nola?

- Besteak** Barkatu, Napoleon Colontegi Cesarmendia jauna.
- Napo** Beno ba! Utz ditzagun aurkezpenak eta izenak une egokiagorako eta has gaitzen gaiarekin.
- Besteak** Gaur gaiarekin ez, mesedez! Lehenengo eguna da eta!
- Napo** Bai, ikasle maiteok. Baina lasai. Gaur bakarrik sarrera-txo bat emango dizuet. Entzun. Nerekin ikasiko duzuen historia ez da liburuetan azaltzen dena. Hori gaizki dago.
- Maritxu** Eta hori, nola dakizu?
- Napo** Nere arbasoek horrela esan didatelako.
- Koldo** Eta, nortzuk dira zure arbasoak?
- Napo** Nere arbasoak, ba: Julius Cesar, Astigarragan bizi zen Australopitekoa, Cristobal Maton...
- Antton** Cristobal Colon izango da.
- Napo** Ez, ez, Cristobal MA-TON. Hori horrela da, denak kolpeka tratatzen zituen eta. Beno arbasoak aipatzen jarraituko dut: Cristobal Maton, Napoleon Boinaaparte eta abar luze bat.
- Antton** Eta nola esan dizute haiek, hilda badaude?
- Napo** Beraiek ez didate esan, beren izpirituek baizik.
- Koldo** (*Fermintxori*) Hau jota zegok, motel!
- Fermintxo** Zeharo, gainera, zeharo.
- Napo** Beno. Has gaitzen. Bi eratako historiak daude, batzuk errealak eta besteak irrealak. Hauei mitologikoak deritzaie. Lehenik hauei ekingo diegu. Hemen dudarik ez, pertsonaiarik famatuenak Adan eta Eva izan ziren. Dakizuenez, Adan eta Eva paradisuari bizi ziren eta guregana iritsi den bertsioa zera izan zen: deabruak, suge

bihurtu eta sagar bat eskainita, bi hauek tentazioan erori zirela.

**Maritxu** Bai, nik hori katekesian entzun diot apaizari!

**Napo** Ba, hori ez da horrela, hori gezurra da!

**Besteak** Bai? Eta nola izan zen? Kontatu, kontatu.

**Napo** Erne egon zaitezte eta bideo hau ikus ezazue.

## II. ESZENA

*(Adan, Eva, 1. saltzailea eta 2. saltzailea).*

**Adan** Evaa, kutxi-kutxi! Non zaude?

**Eva** Hemeen! ezetz asmatu!

**Adan** Evaa, pitxurritxu... Ezin zaitut aurkitu. Irten, mesedez.

**Eva** Irteten banaiz, zer emango didazu?

**Adan** Musutxo handi-handia.

**Eva** *(Salto batez)* Hemen nago, laztana! Emaidazu agindu didazun musutxo hori.  
*(Musua ematen dio).*

**Eva** Ai, zein muxu goxoa! Zoragarria zara. Maite, maite, maite, zaitut, zaitut, zaitut.

**Adan** Mua, mua, mua, mua.

**Eva** Zein ondo bizi naizen hemen! Paradisua dirudi. Ez dugu ikastolara joan behar, ez eta lanera ere. Beti oporretan gaude eta gainera zu zaitut.

**Adan** Guzti hori egia da, baina azkenengo bost hilabete hauetan ezer jan gabe gaude. Zerbait egin beharko dugu.

- Eva** Lasai egon zaitez, hauetako egun batean sugea azalduko zaigu eta sagar bana emango digu.
- Adan** Baina Eva, zuk ere sinisten al duzu sagarraren historia hori? Hori gezurra da.
- Eva** Aiba! Eta ni orain arte enteratu gabe! Sagarrrik ez badago zer jango dugu orain?
- Adan** Horretxek kezkatzen nau ni, maitea.
- Eva** Ai ene!
- 1. saltzailea** (*Saltzaile bat azaltzen da*) Pipas, caramelos, chufas, palomitas...
- Eva** Nor da hori?
- Adan** Estraterrestre bat izango da.
- 2. saltzailea** (*Beste saltzaile bat*) Coco, al rico coco!...
- Eva** Eta hori?
- Adan** Ez dut ezer ulertzen.
- Eva** Aizue, nortzuk zarete?
- 1. saltzailea** Ni saltzailea naiz.
- Adan** Eta zu?
- 2. saltzailea** Ni ere bai.
- Eva** Eta zer saltzen duzue?
- 1. saltzailea** Nik fruitu lehorrak, entzun, entzun: pipas, caramelos, chufas, palomitas...
- Eva** Eta zuk?
- 2. saltzailea** Nik? Entzun, entzun: coco, al rico coco! Merke-merke...

- 1. saltzailea** Nereak goxoak dira.
- 2. saltzailea** Bai zera, hireak izango dituk ba, nereak dituk goxoak. Hire fruitu lehorrekin dena lehortu egiten zaik. Kaka ere lehortuko zaik deskuidatzen bahaiz.
- 1. saltzailea** Eta hire kaka edo delako horrekin zer?
- 2. saltzailea** Nerea ez duk kaka, nerea KO-KO duk.
- 1. saltzailea** Eta zer dik horrek nere fruitu lehorrek ez dutena?
- 2. saltzailea** Goxoagoa duk, ur kokoa oso freskagarria duk, eta bitamina asko zeuzkak. Gainera larruarentzat oso ona duk.
- Eva** Nik koko hau nahi dut.
- 2. saltzailea** Ondo egiten duzu, emakume, niri erosi. Ba al dakizu zein den nere lema?
- Eva** Zein? Probatu, konparatu eta, aurkitzen baduzu zerbait hobe, erosi!
- Adan** Lema polita benetan! Nonbait entzun dut nik horrelako zerbait.
- 2. saltzailea** Ez dut uste, oraintxe asmatu dut eta.
- 1. saltzailea** Eta niri zer? Ez al didazu ezer erosi behar?
- Adan** Sentitzen dugu baina hilaren azken egunetan gaude eta daukagun dirua sobran.
- 1. saltzailea** Beno, zer egingo diogu ba! Ea aurkitzen dudan bezero hoberik! Pipas, caramelos, chufas, palomitas...
- Eva** Beno, emaguzu koko bana.
- 2. saltzailea** Hartu nahi dituzuenak.
- Adan** Eskerrik asko.

**2. saltzailea** Agur. Coco, al rico coco!

**Adan** Ai, zer gosea!

**Eva** Jan ditzagun, bada!

**Adan** Eta nola jaten dira hauek?

**Eva** Ez dakit, instrukzioak irakurri. Ea zer jartzen duen? Tira anilatik. Made in Taiwan.

**Adan** Nereak ez dauka anilarik.

**Eva** Nereak ere ez. Agian zerbait gehiago jarriko du.

**Adan** Anilarik ez balego, puskatu kokoa aldamenekoaren buruan. Sentitzen dut, Eva, baina dudan gosearekin.

**Eva** Adan, mesedez!

**Adan** Sentitzen dut, baina...

**Eva** Egin behar badugu, biok batera. Kolpea hartu eta... Zer da hau?

**Adan** Zer egiten dut hemen?

**Eva** Non gaude?

**Adan** Aber, aber. Oihanean bagaude, ni mutila banaiz eta zu neska bazara, eta gainera eskuan koko bana badugu. Nortzuk gara?

**Eva** Ba, ez dakit.

**Adan** Bai neska. Ni Tarzan eta zu Jane.

**Eva** Eta Txita?

**Adan** Egia, ez dakit, goazen bilatzera.

**Napo** Eta horrela izan zen Adan eta Evaren benetako historia. Gustatu zaizue?

**Denak** Bai, beste bat, beste bat!

**Napo** Lasai, lasai. Orain Historiari ekingo diogu. Historian bi aro daude: Historiaurrea eta Historia bera. Lehenengoan gizakiak tximinoaren itxura zuen eta orain ikusiko dituzue bere zenbait ohitura. Harri aroan kokatuko gara.

### III. ESZENA

**Petronila** Zer gertatzen zaizu, Klodobika?

**Klodobika** Ez dakit.

**Petronila** Gaizki xamar ikusten zaitut. Bihotzeko mina, akaso?

**Klodobika** Horrelako zerbait.

**Petronila** Kontatu, kontatu.

**Klodobika** Gizon batez maitemindu naiz.

**Petronila** Ah, bai! Zein da gizon hori?

**Klodobika** Harri Garmendia, neska. Gure garaiko playboy-a! Ez dakit zer egin.

**Petronila** Zergatik ez zara beregana joaten eta niri esan didazuna berari kontatzen?

**Klodobika** Erotuta al zaude? Lotsaz hilko nintzateke! Gainera ezezkoa emango balit, zer?

**Petronila** Hori bada zure problema zergatik ez duzu erantzuna bilatzen?

**Klodobika** Nola jakingo dut berari galdetu gabe?

**Petronila** Harrien jokoa eginez.

**Klodobika** Egia da. Saiatzera noa.



**Petronila**                   Tori harriak!

**Klodobika**                   (*Harriak hartuz*). Maite nau, ez nau maite, maite nau...  
Ez nau maite. (*Orduan lurretik beste harri bat hartuz*).  
Maite nau.

**Petronila**                   Zorionak, Klodobika. Hori zorrea! Ikusi, hor dator.

**Klodobika**                   Nor?

**Petronila**                   Nor izango da, bada? HARRI, HARRI Garmendia!

**Klodobika**                   Ai ene! Oraintxe bertan esango diot nere laranja erdia  
dela.  
  
(*Azaltzen da Harri eta...*).

**Klodobika**                   Kaixo, laztana.

**Harri**                         Zer? Niri esaten al didazu?

**Klodobika**                   Noski, nori nahi duzu esatea? Nere lagunari ez diot ba  
esango!

**Harri**                         Uste dut konfundituta zaudela.

**Klodobika**                   Entzuten al duzu, Petronila? Harriek esan dutena Harri  
batek ukatzea. Aizu, zuk ba al dakizu zer den demokra-  
zia?

**Harri**                         Bai, noski.

**Klodobika**                   Zer?

**Harri**                         Gehiengoaren nahia bete behar da.

**Klodobika**                   Horixe bada.

**Harri**                         Eta zer?

**Klodobika**                   Esaiozu zeuk, Petronila, esaiozu.

- Petronila** Ba lehen harri askok esan dute zuk nere laguna, Klodobika, maite duzula. Aurka azaldu den bakarra zeu izan zara, beraz, botazioa eginez gero, zuk galtzen duzu. Demokrazian gaudenez, onartu behar duzu gehiengoak nahi duena.
- Harri** Baina erotuta al zaude? Gainera, polita balitz, baina mamut batek baino bibote luzeagoa dauka.
- Klodobika** Entzun al diozu?
- Petronila** Bai, neska. Zuk Harri Garmendia izan beharrean Harro Garmendia izan beharko zenuke. Nik zuk bezala jo eta emango nioke makilkada ederra.
- Klodobika** Horixe egitera nindoan. Etorri hadi, maite kuttun hori, akatu egingo haut eta!
- (Ematen dio kolpea eta konorterik gabe gelditzen da).*
- Klodobika** Petronila, lagundu iezadazu nere etxera eramaten.
- Petronila** Bale. Zuk hanketatik heldu eta nik besoetatik.
- Klodobika** Konforme.
- Petronila** Zenbat pisatzen duen tipo nazkagarri honek!
- Klodobika** Petronila, Petronila! Kontuz esaten duzunarekin, nere maitea da eta. Hementxe utzi ezazu.
- Petronila** Beno, agur Klodobika, zortea izan, nik etxera joan behar dut eta.
- Klodobika** Agur, agur.
- (Esnatzen denean Klodobika bere zain dago eskuan makilak duela)*
- Harri** *(Esnatu eta)* Aaaa...!!!!
- Klodobika** Zer gertatzen zaizu, kuttuna? Ez didazu bildurrik izango?

**Harri** Nola edukiko ez dizut ba beldurra. Deskuidatzen banaiz akatzen nauzu.

**Klodobika** Egon zaitez lasai. Nahi izanez gero, bertan seko utziko zintuzket eta.

**Harri** Bueno, ni etxera noa.

**Klodobika** Zu hemen gelditzen zara, kuttuna!

**Harri** Ai ama!

**Klodobika** Utzi ama pakean! Orain zuk ni nauzu.

**Harri** Nik zu zaitudala! Ez al da alderantziz izango?

**Klodobika** Ez maitea, makila eta biok zureak gaituzu. Bai ala ez?

**Harri** Horrela bada.

**Klodobika** Bueno bihotza! Etorkizunaz mintzatuko gara. Norentzat ehizatuko dituzu diplodokusak? (*Makila ja-soaz*).

**Harri** Nik? Eeee... zuretzat.

**Klodobika** Ai maitea, zein zoragarria zaren! Eta mamutak?

**Harri** Zuretzat.

**Klodobika** Eta dinosaurioak?

**Harri** Zuretzat.

**Klodobika** Eta norentzat eraikiko duzu trikuharri bat?

**Harri** Hori ere egin behar al dut?

**Klodobika** Norentzat? (*Mehatxatuz*).

**Harri** Zuretzat, noski.

- Klodobika** Ai, zein zoriontsu izango garen!  
*(Bitartean sartzen dira Adan eta Eva).*
- Adan** Txita, etorri...
- Eva** Polita, etorri aitatxo eta amatxorekin.
- Harri** Ai ama!
- Klodobika** Zer egiten duzue zuek hemen?
- Adan eta Eva** Gure Txitaren bila.
- Klodobika** Zein Txita eta zein demontre? Zuek historiaz konfunditu zarete. Alde egin ezazue hemendik!  
*(Eta korrika irtetzen dira Klodobika atzetik dutela).  
(Hurbiltzen da Harriengana eta).*
- Klodobika** Hori jendilajea, gure maitasun giro goxoa apurtu nahian. Eskerrak ni nauzula!  
*(Isten da teloia eta «Napo» azaltzen da).*
- Napo** Horrelakoak ziren Historiaurrean, Harri Aroan, hain zuzen, gizon-emakumeen arteko harremanak. Ikusi duzue-nez, adostasun batera iristen ziren. Garai honekin bukatzen da Historiaurrea eta Historian sartzen gara. Garai berriari buruz hitz egiterakoan ezinbestekoa dugu erromatarrak aipatzea.

#### IV. ESZENA

- Soldadua** Zutik! Julio Kaio Obtulio Agamenon, alias «Cesar», datorkigu.
- 1.-2. soldaduak** Ave Cesar! Zu zerbitzatzeko prest gaudenok agurtzen zaitugu.
- Zesar** Lasai, lasai! Zuti zaitezte.

- 1. soldadua** Berdin da, horrela ondo gaude (*etzanda*).
- Zesar** Beno, beno, ez nekatu! Ba al dakizue zein egun den gaur?
- 1. soldadua** Gaur? Asteartea.
- Zesar** Bai. Baino zer ospatzen da?
- 2. soldadua** Hik ba al dakik? (*1. soldaduari*).
- 1. soldadua** Ez, eta hik?
- 2. soldadua** Ezta.
- Zesar** Ba gaur nere urtebetetzea dugu.
- 1. soldadua** Bai eta?
- Zesar** Kontxo, ba ni Zesar naizela eta gaur nere urtebetetzea dela.
- 2. soldadua** Lasai, lasai. Eta zer egiten da horrelako kasuetan?
- Zesar** Zutitu, tente jarri eta zorionak eman.
- 1. soldadua** Nahi baduzu zorionduko zaitugu baina aurreneko beste bi gauzak neketsuak dira eta nekatuko ginатеке eginez gero.
- Zesar** Hau errespetoa!
- 2. soldadua** Zer errespeto eta zer demontre! Zutitzea eta horiek aintzinako gauzak dira. Gaur egun ez da hori egiten. Karrozila hutsa zara.
- Zesar** Ederki gaude! Beno, beno. Nik nere urtebetetzea ospatu nahi dut eta ez dakit zer egin.
- 1. soldadua** Eta guri zer?
- Zesar** Errespeto pixka bat, bestela, zigortu egingo zaituztet.

- 2. soldadua** Ez esan txorakeriarik, tio!
- 1. soldadua** Ausartu eta lantza sartuko dizut zilborretik.
- Zesar** Zergatik ez didazue laguntzen zerbait prestatzen?
- 1. soldadua** Eta zergatik lagundu behar dizugu guk?
- Zesar** Mundu guztiari laguntza eskatzen diot eta denek ukatzen didate.
- 2. soldadua** Eta zure emazteak?
- Zesar** Egia da. Deituko al diozue?
- 1. soldadua** (*Txistu eginez*) Pelorrata!!
- Pelorrata** Kaixo, zer moduz, soldadu maiteok?
- 1.-2. soldadua** Kaixo!
- Pelorrata** Zer nahi duzue?
- 1. soldadua** Guk ezer ez. Horrek deitzeko esan digu eta...
- Pelorrata** (*Zesarri haserre*). Eta zuk, gizajo pastel horrek, zer nahi duzu?
- Zesar** Baino, ez al zara gogoratzen?
- Pelorrata** Ez daukat ezer gogoratzeko.
- Zesar** Gaur nere urtebetetzea dela eta...
- Pelorrata** Eta zer?
- Zesar** Zerbait handia egin nahi nuela hori ospatzeko.
- Pelorrata** Ba egin nahi duzuen, baina ni utzi pakean.
- 1. soldadua** (*Bigarrenari*) Zergatik ez diogu adarra jotzen?

**2. soldadua** Nola?

**1. soldadua** Utzidak nere eskutan.  
*(Zesar, barkatu, guk lagunduko dizugu eta uste dut Pelorrata ere prest egongo dela).*

**Pelorrata** Ni?

**2. soldadua** Ixo, ixo! Adarra jotzeko da eta.

**Pelorrata** Beno, akaso. Baina ez duzu merezi.

**Zesar** Eskerrik asko guztioi. Nabaritzen da buruzagi errespeta-  
garri eta obeditua naizela. Ea zer bururatzen zaizun?

**1. soldadua** Pentsatzen aritu naiz eta bururatu zait erromatar jokoak  
ospa ditzakegula.

**2. soldadua** Oso ideia zoragarria!

**Zesar** Ideia ona da, baina urtero gauza berdina egiten dugu.

**1. soldadua** Bai, baina aurten aldaketa bat izango du.

**Zesar** Zein?

**1. soldadua** Zeu izango zara protagonista.

**Zesar** Eta neuk burukatu beharko dut lehoiekin?

**1. soldadua** Bai horixe!

**Pelorrata** Hori bai dela ideia zoragarria!

**Zesar** Eta galtzen badut?

**1. soldadua** Hori ezinezkoa da. Zu indartsuena zara.

**Zesar** Hori egia al da?

**Pelorrata** Izango ez da ba! Beti esan dizut gauza bera.

- Zesar** Ba, nik behin ere ez dizut horrelakorik entzun.
- Pelorrata** Hortxe ikusten da ez didazula sekula kasorik egin.
- Zesar** Eta, zer egin beharko dut?
- 2. soldadua** Lehenengo ekitaldian Brutus Kabernikulus gladiadorearen aurka burrukatuko duzu.
- Zesar** Baina horrek 250 kg. ditu.
- 2. soldadua** Eta zer?
- Zesar** Eta gainera 2 metro eta 15 zentimetro neurtzen ditu.
- Pelorrata** Hori zuretzat «txupao» dago.
- 2. soldadua** Eta gero kristau jantziak ipini eta lehoiekin burruka egingo duzu, baina bi hankak lotuta.
- Zesar** Horrela bada, ondo. Ihes egiteko abantaila izango dut.
- 1. soldadua** Uste dut ez duzula ulertu. Bi hankak lotuta eramango dituen zara.
- Zesar** Baina, hilko naiz!
- 2. soldadua** Keba!
- Pelorrata** Gainera Herriak eskertuko dizu horrenbesteko ausardia eta beti gogoratua izango zara.
- Zesar** Egia da. Komentzitu nauzue azkenean. Ikusten ari naiz jende guztia ni txalotzen. Zesar! Zesar! Oihukatzen. Hunkituko naiz.
- Pelorrata** Hirugarren frogara zera izan daiteke: jendeak pasiloa egingo dizu eta zuk erditik pasa beharko duzu.
- Zesar** Baina, hortik pasaz gero, jo egingo naute.
- 1. soldadua** Baina zaplasteko horien bitartez zureganako maitasuna adieraziko dute.



- 2. soldadua** Orduan konturatuko zara zein maitatua zaren.
- Zesar** Zoragarriak zarete. Ez nuen zuengandik horrelako erantzunik espero. Zuekin edonora joan naiteke. Zer egin dezaket zuengatik? Erakutsi didazue gainera, uste nuen baino gehiago balio dudala.
- 1. soldadua** Apostu bat egingo dizut.
- Zesar** Tira! Zein?
- 1. soldadua** Ezetz sartu laban hori zure bularrean hamar aldiz baino gehiago?
- Zesar** Baietz!
- Pelorrata** Hori da senarra, erakutsi zure ausardia eta indarra!
- Zesar** Hastera noa.
- 1. soldadua** Barkatu, Zesar. Zergatik ez duzu nere labana hartzen, zorrotzagoa da eta.
- Zesar** Konforme, ekarri!
- 1. soldadua** Ea bada, listo, hasi!
- Zesar** 1, 2, 3, 4, 5, 6 (*izorratuta*), 7, zortzi, be-de-ra-tzi, eta ha... mar.
- Pelorrata** Bat gehiago polita!
- Zesar** Banoa laztana. Ha-mai-ka. Irabazi dut. (*Eta hil egiten da*).
- Besteak** Gora Zesar!!
- Anttoni** Nik uste nuen bere semea zen Brutusek hil zuela.
- Napo** Ez, ez zen horrela gertatu. Gertatzen dena da bera nahiko «brutoa» zela. Orduan herriari ez adierazteko zein lerdoa zen bere buruzagia, Zesarren ingurukoek Brutusen istorioa asmatu zuten.

- Fermintxo** Napoleon Colontegi Cesarmendia jauna. Zer kontatu behar diguzu orain?
- Napo** Jarraian, historian salto luze bat emango dugu (*salto bat emanaz*) eta Ameriketako deskubrimendua nola izan zen aztertuko dugu.

## V. ESZENA

(*Eszenariotik at*).

- Kolon** Ez dakit zertarako deskubritu behar dugun Amerika. Azken finean, badakite hor dagoela.
- Pinzon** Bertakoek jakingo dute, zeren guk sei hilabete daramagu gora eta behera eta oraindik itsasoa besterik ez dugu ikusi. Bisigu aurpegiarekin bukatuko dugu.
- 1. marinela** Zuk, kaitik irten baino lehenagotik bazenuen aurpegi hori, beraz ez harritu.
- 2. marinela** Eta zer aurkituko dugu Amerikan?
- Kolon** Ez al dakizu? Liburuetan azaltzen da eta! Indioak aurkituko ditugu eta beren ohitura zaharrak ikusiko. Ikusiko ditugu eguzkiari dantzak eskaintzen, gu lapikoetan sartzten, e. a. Oso atzeratuta daude. Pentsa ez dakitela zer den kotxe bat.
- Pinzon** Nik ere ez!
- 1. marinela** Noski, oraindik ez dute inbentatu!
- Pinzon** Ko, ko, ko, ko...
- 2. marinela** Begiratu, oilo bihurtu zaigu!
- Pinzon** Zer oilo eta zer demontre! Kolon esan nahi nuen, baina trabatu naiz.
- Kolon** Zer dela eta?

- Pinzon** Lurra, lurra ikusi dudalako!
- Kolon** Prestatu lurra hartzeko. Jarri guapo, Amerika deskubritu dugu eta egunkarietan irtengo gara.
- 2. marinela** Armak ere hartu beharko ditugu.
- Kolon** Bai noski, oso basatiak dira bertakoak.
- Pinzon** Eta zuk hori nola dakizu?
- Kolon** Eskolan horrela erakutsi zidatelako.  
*(Lurra hartzen dute).*
- Pinzon** Hemen ez dago inor.  
*(Bapatean indio bat).*
- 1. indioa** Garaia zen!
- 1. marinela** Sokorro! Jango nauela!
- 1. indioa** Zertan ari zara? Txoratuta al zaude? Berandu zatozte eta oraindik adarra jotzen ala?
- Kolon** Zergatik adarra jotzen? Zergatik berandu?
- 1. indioa** Ez al dakizue urriaren 12an iritsi behar zenutela eta azaroaren 27an gaudela?
- Pinzon** Kontxo, kontxo. Hauek guk baino gehiago dakite.
- 1. indioa** Zer uste duzue, bada? Ez da zaila.
- 2. marinela** Gosez nago.
- 2. indioa** Jan hau.
- 2. marinela** Zer da?
- 2. indioa** Zer izango dira? Patatak, motel, patatak!

- 2. marinela**           Eta zer da hori?
- 3. indioa**             Ez al dakizu?
- 2. marinela**           Ez.
- 3. indioa**             Eta zuek?
- Besteak**               Ezta ere.
- Indio guztiak  
parrezka**               Ja, ja... hauek tontoak dira!
- 1. indioa**             Probatu, ikusiko duzue zein goxoak diren.
- Kolon**                 Nik probatuko ditut. Zer goxoak!
- 3. indioa**             Edan nahi al duzue?
- Pinzon**                Bai.
- 3. indioa**             Hartu. (*Kokakola emanaz*).
- Pinzon**                Zer da hau?
- 3. indioa**             Kokakola.
- Pinzon**                Eta zer da hori?
- 3. indioa**             Edari bat!
- 1. marinela**           Lata itxura dauka.
- Pinzon**                Granada bat dirudi. Eta nola edaten da?
- 2. indioa**             Anilatik tira eta...
- Pinzon**                Eta kaka zaharra!... Gero eztanda egingo dit!
- 3. indioa**             Hau ergela tipoa! Anila kendu eta edan! Horrela!
- Pinzon**                Aaaa... Eske amerikano hauek «la leche» dira. Pues, goxoa dago.

- 2. marinela** Utzi niri ere edaten.
- 1. marinela** Nik ere nahi dut.
- Kolon** Eta nik!  
*(Denak edaten).*
- Pinzon** Hau nor da? *(Tipo bat, Batmanez jantzita).*
- Kolon** Hetxizeroa izango da.
- 1. indioa** Keba! Honek Batman pelikula ikusi du eta txoratuta dago, zuek bezala.
- 2. indioa** Dantza egin nahi duzue?
- Kolon** Zer ondo! Orain hemengo dantza bat ikusi eta ikasiko dugu.
- 2. indioa** Zer diozu? Dantza hau diskotekeroa da.
- Kolon** Disko... zer?
- 2. indioa** Diskotekeroa. Diskoteketan dantza egiten dena.
- 2. marinela** Diskoteka? Hauen tenplo bat izango da.
- 3. indioa** Zer txorakeriak esaten dituzuen! Diskoteka zera da: dantza egiteko tokia.
- 1. indioa** Beno, dantza egin nahi duzue ala ez?
- Kolon** Eta nork abestuko du?
- 2. indioa** Magnetofoiak!
- Kolon** Magne... zer?
- 1. indioa** Eta zuek gu deskubritzera etorri zarete? Has gaitezen dantzan.

*(Musika eta dantza) (Lambada).*

- Koldo** Zer polita! Zer ondo pasa behar dugun hemen! Aizu, non eraikiko ditugu gure etxeak?
- 3. indioa** Zuek hemen bizi! Ezta pentsatu ere!
- Pinzon** Erregeak esan digu hau deskubritzeko eta bertan gelditzeko.
- 2. indioa** Hemen ezin zarete gelditu. Oso atzeratuta zaudete.
- 1. marinela** Eta zuentzat lana egingo bagenu?
- 1. indioa** Beno, akaso! Orduan... agian! Zer iruditzen zaizue besteoi?
- Indioak** Guretzat lan egin ezkeru...? Konforme!
- Kolon eta besteak** Iupi!
- Napo** Hau eta ez bestea ian zen Kolon eta bere lagunek indioei eman zieten laguntza. Ikusi duzuenez Europan Amerikako berririk ez zuten eta haiek baino atzeratuago zeuden. Horixe ikusiko duzue Frantziako Iraultzan. Hau XVIII. mendearen bukaeran gertatu zen.

## VI. ESZENA

*(Borreroa sartzen da Iraultzaren Nagusiaren bulegoan).*

- Borreroa** Tak, tak *(Atean joka)*.
- Iraultzaren Nagusia** Aurrera! Zer nahi duzu?
- Borreroa** Egunkarian irakurri dut jendea behar dela borrero izateko.

**Iraultzaren Nagusia** Irakurri, ondo irakurri duzu. Azkenaldi honetan jende gaizto pila bat dago eta gainezka gabiltza. Ez al da horrela!

**Epailea** Egia da! Ziur zaude lan hau betetzeko balio duzula.

**Borreroa** Ziur? Noski baietz!

**Iraultzaren Nagusia** Ea ba, odola ikusi ezkerro mareatzen al zara?

**Borreroa** Ez. Edan egiten dut. Ona dela diote eta.

**Epailea** Konforme. Eta erruduna zuregana hurbiltzen denean zuk burua mozteko, pena ematen al dizu?

**Borreroa** Pena? Bai zera! Irriparra.

**Iraultzaren Nagusia** Irriparra?

**Borreroa** Bai, pentsatzen dudalako zer aurpegi jarriko duen burua moztu eta gero.

**Epailea** Uste dut tipo honek balio duela.

**Iraultzaren Nagusia** Noizbait egin al duzu lan hau?

**Borreroa** Ez, baina txerriak hil ditut eta berdin samar izango dela pentsatzen dut.

**Iraultzaren Nagusia** Beno, aste betean probatuko zaitugu eta lana ondo egiten baduzu, zurea izango da.

**Borreroa** Eskerrik asko. Gustora geldituko zarete nere lanarekin.

**Iraultzaren Nagusia** Hasiko al gara epaiketekin?

- Epailea** Has gaitezen, bada. Irrikitan nago ikusteko borrero berriak nola betetzen duen bere lana.
- Iraultzaren Nagusia** Lehenengo akusatua!  
(*Sartzen da*).
- Epailea** Zein da zure kontra duzun akusazioa, noble?
- Noblea** Ez dakit.
- Epailea** Nola ez dakizula?
- Noblea** Ez dakidala! Markes baten jauregian nengoen festa batean dantzan. Bapatean soldaduak sartu ziren eta atxilotu gintuzten.
- Epailea** Zer ospatzen zenuten?
- Noblea** Mozorrotuta geunden dantzan, besterik ez.
- Iraultzaren Nagusia** Besterik ez? Hortxe daukazu. Mozorrotu eta gero atrako bat egiteko. Gilotinara, merezi duzu!
- Noblea** Gilotinara ni, ezer egin gabe? Ez dut merezi! Ez da bidezkoa!
- Epailea** Lasai, lasai. Ea, gizona. Galdera bat egingo dizut. Zure laguntza beharko balu gizon batek lan egiteko, lagunduko al zenioke?
- Noblea** Noski.
- Epailea** Konforme.
- Noblea** Orduan libre nago, ezta?
- Epailea** Ez, gilotinara zoaz.
- Noblea** Zergatik?



<b>Epailea</b>	Zeuk horrela nahi izan duzulako.
<b>Noblea</b>	Nik? Nola?
<b>Epailea</b>	Zerorrek esan duzu beste batek lan egiteko laguntza eskainiko zeniokeela. Orduan gure borreroak lan egiteko zu behar zaitugu. Zure burua mozten ez badu, lanik gabe geldituko da. Ez duzu hori nahiko, ezta?
<b>Noblea</b>	Baina, baina.
<b>Iraultzaren Nagusia</b>	Denok ados gaude. Gilotinara.
<b>Epailea</b>	Hurrengoa. ( <i>Apaiza</i> ).
<b>Apaiza</b>	Egunon anaiok.
<b>Iraultzaren Nagusia</b>	Ni ez naiz zure anaia.
<b>Apaiza</b>	Zergatik daukazu aurpegia estalia?
<b>Borreroa</b>	Lotsatu egiten naizelako. Ez zait fama gustatzen.
<b>Epailea</b>	Zer leporatzen dizute?
<b>Iraultzaren Nagusia</b>	Kontuz honekin, hau gaiztoa da eta!
<b>Apaiza</b>	Anaia, lasai zaitez. Dirua neretzat gordetzea? Baina ez da egia.
<b>Epailea</b>	Zein da egia?
<b>Apaiza</b>	Guk Jainkoarentzat jasotzen dugu dirua elizetan. Ondoren, nik bildu egiten dut Jainkoari emateko.
<b>Epailea</b>	Eta ez al diozu ematen?
<b>Apaiza</b>	Emango nioke, baina ikusten ez dudanez...

**Epailea** Zer?

**Apaiza** Gorde egiten dut. Ikusten dudanean emango diot.

**Epailea** Galdera bat egin behar dizut.

**Apaiza** Egin lasai.

**Epailea** Gizon batek kalte egingo balizu, barkatuko al zenioke?

**Apaiza** Noski, Jainkoaren izenean.

**Epailea** Orduan barka ezazu borreroa, berak zu behar zaitu eta.

**Apaiza** Baina...

**Iraultzaren Nagusia** Barkatzeko esan dizu.

**Apaiza** «In nomine patris et filii et...».

**Iraultzaren Nagusia** Eta nahikoa da. Borrero, orain zure txanda da.

**Borreroa** Etorri hona, mesedez. Sartu hemen burua, segituan bukatuko dut. Zerbait esan al diezu besteei? Agurtu. Aiba! Ez du funtzionatzen.

**Iraultzaren Nagusia** Hasi al gara? Ekarri inutil hori. Ba hau ondo dago.

**Noblea** Uste dut ni gaizki jarrita nagoela.

**Iraultzaren Nagusia** Ba jarri ondo.

**Noblea** Ez dakit. Lehenengo aldia da burua mozten didatena.

**Iraultzaren Nagusia** Utzi niri, nik erakutsiko dizut. Sartu behar duzu horrela. Eta gero borreroak burua mozten dizu.

**Noblea** Nola?

**Iraultzaren Nagusia** Horrela. Borrero, moztu.

**Borreroa** Baina...

**Iraultzaren Nagusia** Kaso egiteko esan dizut.

**Borreroa** Bale, bale...  
*(Askatzen du eta burua mozten dio).*

**Epailea** Baina zer egin duzu?

**Borreroa** Berak esan didana.

**Epailea** Kanpora, lanik gabe.

**Borreroa** Eta hauek, nork hilko ditu hauek?

**Epailea** Beste bat kontratatuko dut, zuk alde hemendik!

## VII. ESZENA

**Napo** Gustatzen al zaizue Historia?

**Antton** Guzti hori ikasi behar dugu?

**Napo** Etorkizunerako ondo etorriko zaizue.

**Fermintxo** Baina gehiegi izango da.

**Napo** Mundu honetan ez dago ezer gehiago esaterik.

**Maritxu** Nik pelikulak ikusi ditut, eta gauzak ez ziren horrela gertatzen.

**Napo** Hori, neska, jendeak kulturarik ez duelako. Baina lasai. Nerekin gauzak gertatu ziren bezala ikasiko dituzue eta asko gainera.

*(Din-donak jo).*

**Napo** Joan zaitezketete, bihar arte.

**Koldo** Agur «Napo».

**Napo** Zer?

# **NON OTE DA SOL?**

Karmele Etxebarria  
Jesusen Bihotza ikastetxea  
Eibar 1989



## PERTSONAIAK

Notak: DO  
RE  
MI  
FA  
SOL

Erlojua: Ordu guztiak: 12ak, 11ak, 10ak, 9ak... etab.  
Bibolina  
Txirula  
Tronpeta  
Pello

*(Eszenatokia ilun dago, pixkanaka-pixkanaka argitzen doa... Ordulari bat agertzen da. Ume bakoitza ordu bat delarik. Erlojua lotan dago. Bapatean 12 zenbakia duen umea hasten da kaja txinoa jotzen erritmo bat jarraituz, beltzaren erritmoa. Gero 11, 10, 1 eta 2 zenbakia dutenak hasten dira klabeak jotzen, kortxeen erritmoa atereaz eta, bukatzeko, beste zenbakiak dituzten umeak belaunikatzen dira erloju borobil bat osatuz).*

*(Halako batean 12 zenbakia duen mutilaren atzetik iratzargiluaren txirrin hotsa egiten duen mutikoa ateratzen da, burua mugituz).*

### Erlojua

Rinnng... Trinnnnnn... *(Isiltzen da eta lurrean zeuden notak esnatzen dira).*

- FA** *(Aharrausika)* A! Ze ongi egin dudan lo. O! Zelako eguraldi ederra dugun gaur, eguzki disdiratsu bat agertu zaigu zeruan. E! esnatu, goiza da!
- MI** *(Aharrausika)* A! Bai, begiak itxita ditut. Beno, nere ahotsa probatuko dut. *(Hasten da abesten)* Miiii... Mi... O! Zelako desafinoa egin dudan, jo!... gargarak egitera noa.
- FA** E! Re! Esnatu, ez duzu erlojua entzun ala?
- RE** E! A! Bai... oraintxe, oraintxe, utzi minutu txiki bat gehiago mesedez... *(Berriro lotara doa)*.
- FA** Ez! Ez! Entseia egin behar dugu! Altxa zaitetz!
- RE** O! Zer plasta zaren, Fa! Beno aurpegia garbitzera noa, begiak erantsita ditut eta...
- MI** Beno, afinatuta nago! E! Do-k oraindik lotan jarraitzen du!
- FA** A! Potolontzi hau, beti da azkena esnatzen!
- MI** Bion artean esnatuko dugu.
- RE** E! Nik ere esnatu nahi dut!
- (Hirurak batera karrasi egiten dute, bakoitzak bere nota abestuz).*
- DO** *(Ikaraldia hartuz)* A! Astoak! Susto ederra eman didazuena! Zer gertatzen da?
- RE** Ezer ez, lotan zaudela eta saioa egin behar dugula, besterik ez!
- DO** A! Bai, goazen ba saioa egitera. Ni lehenengoa naiz.
- (Bere nota abestu egiten du).* Doooooo
- RE** Reeceee



- MI** Miiiiii
- FA** Faaaaa  
*(Pausa, laurak elkarri begira).*
- FA** Sol! *(Harrituta)* Sol falta zaigu. Non ote da?  
*(Do bitartean lotan geratu da lurrean).*
- RE** Atzo galdu zen, hemen ez du gaua pasatu.
- MI** Ai! Ama! Ederra egin dugu, ba horrela ezin dugu orkestara joan!
- RE** Bere bila joan beharko dugu.
- FA** Bai, baina nora joan? Pentsatu behar dugu.
- RE** Ez dakit, atzo bibolinarekin egon ginen, agian... Zuk zer diozu, Do?
- DO** *(Lotan dago berriro) zzzzzzz...*
- MI** Do! *(Haserre)* Berriro lotan? Arazo larri baten aurrean gaude eta zuk lo besterik ez duzu egiten. *(Bultzatuz)* Esnatu, rekortxos!
- DO** *(Esnatzen da)* A! Bai, lotan nengoen baina dena entzundut! Bibolinarengana joango gara. Benga! Arin!  
*(Bibolina eszenatokian agertzen da. Bibolinaren soinua entzuten da. Nota batzuk eseritzen dira ondoan liluraturik eta beste batzuk dantza egiten dute. Bukatzerakoan...).*
- FA** Oso polita, bibolina... *(Txalotzen dute).*
- Bibolina** Eskerrik asko... Zer ari zarete egiten? Oso arraroa egiten zait zuek hemendik paseatzen ikustea, beti lanpeturik zabilzate eta.
- MI** Bai, baina gaur ezin dugu musika egin, Sol galdu zaigulako.

- Bibolina** Sol galdu dela? Ba nik ez dut ikusi. Atzo nerekin egon zen, baina gaur ez dago!
- RE** Eta ez dakizu non egon daitekeen?
- Bibolina** Beharbada tronpetak edukiko du!
- FA** Eta non dago tronpeta?
- Bibolina** Uf! Hori beti bakarrik ibiltzen da zarata asko ateratzen duelako, segituan aurkituko duzue, zarata fin bat entzuten duzuenean harengana joan eta bera izango da. (*Joaten da*).
- RE** Beno, goazen ba tronpeta ikustera! (*Konturatzen dira Do atzean lotan geratu dela*).
- FA** Baina Do! Azkar etorri, ezin dugu denborarik galdu. (*Do-k begiak ireki gabe jarraitzen du ibiltzen*).
- DO** Lasai, banoa  
  
(*Joaten den bitartean*).
- MI** A! Beti berdin, egunen batean irristailu bi ipini eta arrastaka eramango dugu leku guztietara.
- RE** (*Atzetik bultzatuz*) Ala! Potolontzito, agudo!  
  
(*Eszenatokian leunki joaz tronpeta bat agertzen da. Re, Mi eta Fa-k, keinuak eginez adierazten diote tronperati Do-rengana hurbiltzeko. Tronpeta hurbiltzen da eta gogorki joaz esnatu egiten du*).
- DO** (*Karrasika*) A! Amatxo maitia! Zerriak! (*Denak parrez*). Nola ausartzen zarete?
- RE** Kaixo tronpeta, Sol-en bila gabiltza! Ikusi al duzu?
- Tronpeta** Ba ez! Gaur Donostiako orkestan egon naiz, baina ez dut Sol nota ikusi.

**MI** O! Ba ez badugu aurkitzen ezingo dugu orkestako instrumentuetan sartu!

**Tronpeta** Sentitzen dut, baina nik ezin dizuet lagundu! Barkatu baina nere saioa egitera noa... (*Jotzen joaten da*).

*(Notak lurrean eserita eta oso triste gelditzen dira. Bapatean, erlojuaren orduak, sintetizadorea eta bateria jotzen hasten dira, notei gertatutakoa abestuz. Bukatzen denean Do zutitzen da).*

### ABESTIA

Do Re Mi Fa lau notak,  
nota politak, baina Sol falta da  
eta Do Re Mi eta Fa  
negarrez daude, negarrez daude.  
Gure lagun Do Re Mi Fa  
Sol non ote da? galdezka.  
Bibolin, ikusi al duzu Sol nota?  
Txiruliruli, txirula ta bibolin  
Txiruliruli, txirula ta bibolin.

Ezezka jaso dute  
Ai ze pena, ai ze pena!  
Tronpeta, ikusi al  
duzu zuk laguna?  
Txiruliruli, tronpeta ta tronpetin  
Txiruliruli, tronpeta ta tronpetin.

**DO** A! Txirulari ez diogu bisitarik egin eta nere ustez han egongo da.

**MI** Aiba! Esnatu zara!

**RE** Ba nik ez dut uste han izango denik!

**FA** Begira! Eguna iluntzen doa, eguzkia sartu da eta ilargia ateratzen ari da.

**MI** A! Zer logurea! Ni ez noa Txirularengana!

- DO** Nola ezetz? Orain esnatu naiz ni eta zuek lotan! Ba ederra egin dugu!
- RE** Beno Do-k arrazoia du! Goazen Txirularengana.
- Eszenatokian txirula agertzen da Sol zulo batean harra-  
patuta duelarik.
- Txirula** Azkenean! Etorri zarete! Begira, hau barruan dudala, bakarrik Sol nota jo dezaket, ezin ditut nik maite ditudan abestiak jo.
- DO** Eta zer egin dezakegu?
- SOL** Nahi duzuen egin, baina arin! Itotzen ari naiz eta.
- FA** A! Badakit, aizu Txirula, zuk jo eta horrela Sol azpiko zulotik aterako da.
- Txirula** Bai baina, nik ezin dut jo! Norbaitek haizea bota behar dit eta pertsona bat izan behar du.
- RE** Arranopola! Baina hemen ez dago inor.
- MI** Bai, entzun, hor dator norbait txistuka.
- Pello** Kaixo! Nortzuk zarete zuek?
- FA** Notak gara!
- Pello** Notak? Zein nota?
- DO** Begira eta, batez ere, entzun! (*Hasten dira abesten*).
- Pello** O! Baina zedozer falta da hor, ezta?
- RE** Bai, Sol falta zaigu eta txirula barruan sartuta dago.
- Pello** A! Ba atera!
- MI** Bai, zuk oso erraz esan duzu, baina zure laguntza behar dugu.

- Pello** Nola? Zer egin behar dut nik?
- DO** Etorri hona! Igo gora eta putz egin.  
*(Pellok putz egiten du baina Sol ez da ateratzen).*
- SOL** Aizu, kontuz ibili! Bestela lepoa moztuko didazu!
- RE** Ea berriro, Pello! Aupa!  
*(Pellok berriro putz handia egiten du. Azkenean Sol ateratzen da).*
- Denak** Aupa, oso ongi *(Saltoka hasten dira).*  
*(Berriro erlojuaren orduak musika jotzen hasten dira eta historiaren bukaera abesten dute. Gero notak lotara doaz. Pellok ere agurtu egiten ditu eta erlojua, esnatu den bezala, lo hartzen doa pixkanaka).*

## AMAIERA



# **NORENTZAT ARI DIRA IRUTEN HIRU ATSOAK?**

G. Rodari  
J.A. Elolak itzuli-egokitua  
Seber Altube ikastola  
Gernika 1988





## PERTSONAIAK

Apolo	Jenerala
3 Atsoak	Almirantea
Admeto	Txanbelana
Morroia	Sukaldaria
Aita	Maiordomoa
Ama	Aholkulariak
Presoak	Alzestes
Gaisoa	Herkules
Ministroa	Igitaidun zaharra (Herio)

### Narratzailea

Ipuin zaharretako jainkoak minbera samarrak ziren. Behin batean Zeusek Apolo iraindu zuen, agian kaske-taldi bat asetzeko. Apolo mindu egin zen eta aukera eduki zuenean, ziklope batzuk hilaz mendekatu zen. Ziklopeak Tartaloren moduko erraldoi begibakarrak dira. Jakina denez, Zeusi argizpiak egiten dizkiotenak ziklopeak dira. Ez da munduan hain izpi onak egingo dituen enpresarik.

Zeusek, Apolok egindakoaren berri izan zuenean, benetan haserre dei egin zion. Apolok nahitaez azaldu behar du, Zeus baita jainko guztien jainkoa.

— Entzun. Egindakoagatik zigor bat jasan beharko duzu —esan zion Zeusek— Zazpi urtetan lurrera herbestera-tuko zara eta zazpi urtetan jardungo zara Admeto, Tes-saliako erregearen etxean morroi gisara zerbitzen.

Apolok zigorra txintik atera gabe betetzen du. Apolo mutil ona eta maitagarria da. Admetorekin kidentu eta lagun egiten dira. Zazpi urte igaro ondoren Olinpora, jainkoak bizi diren mendira itzultzen da. Etxerako bidean, iruten ari diren atso batzuk agurtzen dutela entzuten du. Hiru atso horiek gizon bakoitzaren patua gobernatzan dute jaiotzen denetik hil arteraino. Gizon bakoitzarentzat hari bat iruten dute eta hari hori ebakitzen dutenean, zast! Gizon hori hil egiten da.

- Apolo** Zelan doa erreuma hori?
- 1. atsoa** Ez gara kexatzen.
- Apolo** Lana guztiz aurreraturik daramazuela dakusat.
- 2. atsoa** Egia da. Hari hau ia amaituta daukagu. Eta badakizu norena den?
- Apolo** Ez.
- 2. atsoa** Admeto erregearena da. Bizpahiru egun besterik ez zaizkio geratzen.
- Apolo** Arranopola! Osasun onarekin utzi dut gaur goizean eta begira zer espero dion. Gizarajoa. Entzun! Admeto nere laguna da. Ezin al diezaiokezue urte batzuk gehiago bizitzen utzi?
- 3. atsoa** Eta zer egin dezakegu? Guk bere aurka ezertxo ere ez dugu. Baratzuria baino zintzoagoa da. Baina, suertatzen zaionari suertatzen zaio! Heriotzak bere saria jaso behar du.
- 1. atsoa** Ez da adin kontua, maitea. Baina zuk asko maite duzu, ez da?
- Apolo** Esan dizuet. Oso lagun onak gara.
- 3. atsoa** Bueno. Oraingoagatik zerbait egin dezakegu: bere harria geldiarazi eta zain utziko dugu. Baina baldintza batekin: beste norbaitek bere ordeztu behar du. Konforme?

- Apolo** Noski! Mila esker!
- 1. atsoa** Begira! Zuri atsegin emateko edozer gauza egiteko prest egongo ginateke.
- Apolo** Admetori berria ematera noa. Agur.
- (Apolo etxetik ere ez da pasatzen. Lurrera itzultzen da hegan eta Admeto ozta-ozta harrapatzen du teatrorra joateko prest zegoenean).*
- Apolo** Entzun, Admeto! Bizitzaren halabeharra gobernatzaren duten hiru atsoekin izan naiz eta zure haria iruten ari ziren. Laburtzeko, ozta-ozta atera zara bizirik, baina beharrezkoa da zure ordeztan beste norbait hiltzea. Hilketan zure lekua beteko duen norbait aurkituko al duzu?
- Admeto** Hala espero dut. Errege naiz ala ez naiz? Nere bizitza oso garrantzitsua da herriarentzat eta estatuarentzat. Nahiz eta, arraioa! Izerdi hotza ateratzea lortu duzu.
- Apolo** Zer egingo dugu ba? Bizitza horrelakoxea da.
- Admeto** Ez, ez. Guztiz alderantzizkoa da.
- Apolo** Agur ba, orduan.
- Admeto** Agur, Apolo, agur. Eskerrak emateko ere arnasarik ez dut. Hainbeste atsegin zitzaizkizun botila haiekin betetako kaxa bat igorriko dizut laster.
- (Admeto bakarrik geratzen da).*
- Admeto** Mila deabru kankailu! Hau ere niri gertatu behar! Eskerrak bene-benetako lagunak ditudala. Sugandilen hesteak!
- (Admetok bere morroi leialenari deitzen dio).*
- Admeto** Alejandro! Nere morroi leial eta zintzo hori, zatoz. Entzun duzu ez da? Presta zaitez, beraz.

- Morroia** Zertarako, errege jauna?
- Admeto** Eta gainera galdetu egiten duzu? Garbi dago, hiltzeko, Alejandro, hiltzeko. Zure bizia nerearen ordezkari emateko. Mesede hori ezin diezadakezu ukatu. Ez al naiz ba, beti, zuretzat ugazaba on bat izan?
- Morroia** Egia da, jauna. Egia da.
- Admeto** Hori da ba. Ez dago denbora galtzerik. Zuk, hiltzean besterik ez ezazu pentsatu, ni beste guztiaz arduratuko naiz: primerako hilgurdia, hilarri eder bat izango duen hilobia, krabelin zuri eta gorriak, alargunarentzat diru laguntza, zure umezurtzentzat ikasketetarako diru laguntza... Ados?
- Morroia** Ados, errege jauna. Bihar goizean egina egongo da.
- Admeto** Zergatik bihar? Ez utzi biharko gaur egin dezakezuna.
- Morroia** Errege jauna, gutun batzuk idatzi behar ditut, zenbait burubide hartu, gainera bainatu egin behar dut.
- Admeto** Bihar ba. Baina goizean goizetik, e!
- Morroia** Egunsentian, jauna, egunsentian.
- (Alejandro morroia irten egiten da eta Admeto zizpuru luze bat eginaz patxadan ezartzen da. Gero, beste morroi bat sartzen da eta Admetori zuzentzen zaio).*
- Morroia** Jauna, Alejandro morroiak hanka egin du feniziar untzi batean. Dagoeneko itsas zabalean dago Zerdeña bidean.
- (Admeto, benetan haserre).*
- Admeto** Fida zaitetz gero betidaniko morroi leialez. Gehien behar dituzunean...
- (Admetok buelta batzuk ematen ditu).*
- Admeto** Aitatxo, amatxo, zatozte.

*(Gurasoak sartzen dira).*

- Admeto** Ai. Zuek zarete ni maite nauzuen bakarrak.
- Aita** Hori beldur gabe esan dezakezu.
- Admeto** Bihotza eskuetan harturik, edozer gauza eska diezaiekedan bakarrak zarete.
- Ama** Oliba batzuk nahi dituzu?
- Admeto** Ez, zuetako norbait nere ordezt hiltzea nahi dut.
- Ama** Admetotxo, bizitza eman dizugunak gara eta zuk, ordainez, gurea nahi duzu. Esker txarreko semea.
- Admeto** Baina ez al duzue ikusten, zuen adinean, hanka bat hilibian duzuela?
- Aita** Suertatzen zaigunean hilko gara. Ez dizugu gure ordezt joateko eskatuko.
- Admeto** Ulertzen dut. Ulertzen dut. Honela maitatzen nauzue.
- Ama** Eta zuk hitzegiten duzu honela? Errege aulkia eta daukazun guztia eman dizugu eta gero... hau! Esker txarreko seme madarikatua!
- (Gurasoak haserre doaz).*
- Admeto** Ekariez azkizidazue giltzapetan ditugun atxilotuak.
- (Gudariak atxilotuak ekartzen dituzte. Kateaturik dakartzate. Admetoren aurrean belaunikatzen dira).*
- Admeto** Zuetako norbaitek nere ordezt hil nahi al du?
- Presoa** Noski ezetz! Zu hildakoan, gainera, asko poztuko gara. Agian zure ondorengo erregeak askatasuna emango digu.
- (Gudariak gaisotasun sendaezina daukan bat ekartzen dute).*

- Admeto** Zuk gaisotasun sendaezin bat daukazu. Ez al zenuke nere ordezt hil nahi?
- Gaisoa** Ez jauna. Jendeak, nere gaisotasuna sendaezina dela dio. Baina itxaropena da azkena galtzen dena.
- Admeto** Betozt nere ministro, konseilari, jeneral, almirante, txanbelan, sukaldari, maiordomo eta aholkulari guztiak.  
*(Denak datoz).*
- Admeto** Zuetatik nor emango du bere bizitza nerearen ordezt?
- Ministroa** Majestate, zure ordezt pozik hilko nintzateke baina, hiru izeba adintsu ditut. Zer gertatuko litzaieke ni bakarrik?
- Sukaldaria** Oso pozik jauna, ahal izan banu, baina atzo bertan hartu nituen oporrak.
- Almirantea** Errege jauna, itxaron, nere memoriak idazten amaitu behar dut eta.
- Admeto** Koldarrak! Zain eta odol gabeko morroiak! Hainbeste beldur diozue heriotzari, beraz. Guztiok sama ebakitzeko agindua emango dut. Nere mesederako ez da izango. Ni salbatuko nauek bere borondatezt hil behar baitu, baina gutxienez ez naiz bakarrik lehertuko. Inpernura prozesio ederra egingo dugu!  
Eraman itzazue koldar guzti hauek zigor geletara eta borreroak aizkorak zorrotzen has bitez.  
*(Denak atxiloturik eramaten dituzte).*
- Admeto** Alzestes, emazte maitea! Presta iezadazu zumo bat, egarri naiz eta.  
*(Zumoa ekartzen dio).*
- Admeto** Alzestes maitea, azkenengoz elkar agurtu behar dugu. Ezagutzen duzu hiru atsoen kontua... Apolo benetako laguna izan da... Denak asko maite naute, baina inork ez du nere ordezt hil nahi.

- Alzestes**                    Eta txikertasun horregatik zaude etsita? Niri ez didazu ezer eskatu.
- Admeto**                    Zuri?
- Alzestes**                    Noski. Zure orde z hilko naiz, oso erraza da.
- Admeto**                    Erotu al zara, Alzestes? Ez al duzu nere saminaz pentsatzen? Ez al duzu ikusten zure hiletetan zenbat nigar egingo duan?
- Alzestes**                    Nigar egingo duzu, baina gero pasako zaizu.
- Admeto**                    Ez, ez zait pasako.
- Alzestes**                    Bai, pasako zaizu eta urte askotan pozik eta zoriontsu biziko zara.
- Admeto**                    Zuk uste duzu?
- Alzestes**                    Bai gizon, nik diotsut.
- Admeto**                    Beno... Hala bada... Buru belarri hortan bazaude...
- (Agurraren besarkada ematen diote elkarri. Alzestes bere gelara doa eta hil egiten da. Morroi bat gelatik irteten da, berria ematen du eta denak nigarrez hasten dira. Nigar gehiena egiten duena Admeto da. Hil kanpaiak entzuten dira).*
- Admeto**                    Espetxean daudenak aska itzazue.
- (Admeto hiletak prestatzen ari da morroi bat azaltzen denean).*
- Morroia**                    Jauna, gizon indartsu bat etorri da zutaz galdezka.
- Admeto**                    Betor.
- (Herkules sartzen da).*
- Admeto**                    Kaixo, Herkules, lagun zaharra.

- Herkules** Kaixo Admeto. Hemendik pasa beharra izan dut Hesperidesen lorategiko urrezko sagarrak lapurtzera joateko eta une batez zu agurtzeko sartzea pentsatu dut.
- Admeto** Ondo egin duzu. Hasarretu egingo nintzatekeen ez bazina sartu.
- Herkules** Ordu txarrean nator, ikusten dudanez, hiletak baitituzue.
- Admeto** Bai, emakume bat hil da. Baina zu goibeltzeko arrazoirik ez dago. Gonbidatua sakratua da. Zuretzat bainu bat prestatzeko aginduko dut. Gero afaldu eta antzinako kontuez hitz egingo dugu.
- (Bi txalo jotzen ditu eta morroiak sartzen dira bainurako behar diren gauzekin).*
- Herkules** Bai, benetan behar dut. Beti hortik nabil lan harrigarriak egiten, mamutzarrak hiltzen, kortak garbitzen, edozein behar astun eta gaitz egiten. Urtean behin bainera bat ikusten badut, asko da.
- (Bainatzen hasten da eta bere abesti gogokoena abesten hasten da).*
- Morroiak** Jauna, ez zenuke abestu behar, gure etxeakoandre ona hil berria da eta.
- Herkules** Zeer? Nor hil da?
- Morroia** Alzestes, etxeakoandrea, Admetoren emaztea.
- Herkules** Alzestes gaixoa! Eta Admeto gizarajoa!
- (Ia negarrez hasten da).*
- Herkules** Baina nigar egin? Ez, hau gauzatxo bat egiteko unea da. E, aizak, gelazain! Nere buru-makila bila ezak. Sarrerako ontzian utziko nian.
- (Herkules Alzestesengan sartzen da. Zarata batzuk entzuten dira eta Herkules eta «Herio» irteten dira. Borroka egiten dute eta azkenean igitaidun zaharrak alde egiten du).*



**Igitaidun zaharra** Herkules, zu ni baino indartsuagoa zara eta banoa.

**Herkules** Iuuu! Iuuu!

*(Berriz ere abesten hasten da. Jauregiko morroiak marmar-ka).*

**Morroiak** Denak bihotz minez gaude eta gonbidatua kantari.

**Herkules** Admeto, Admeto, lortu dut.

**Admeto** Zer gertatzen da Herkules?

**Herkules** Igitaidun zaharra ihesean jarri dut. Alzestes biziko da.

*(Admeto zurbil geratzen da, zurbilago ezin. Bere beldur guztiak berriz ere gaineratzen zaizkio. Urratsak entzuten ditu. Alzestes da bizirik. Beregana dator barkamena eskatzeko itxuraz).*

**Herkules** Baina ez al zaudete pozik? Goazen diberti gaitzen.

*(Hiletak orain hasten direla dirudi. Admeto butaka batean erortzen da eta dardarka dago. Alzestesek begiak beherantza dauzka).*

**Herkules** Baina, ikus dezagun. Poz handia ematen nizuelakoan nengoen eta iraindu egin zaituztedala dirudi. Gaur egun, batek ez daki lagunekin nola jardun behar duen. Bueno, banoa. Noizbehinka idatziezadazue.

*(Herkules haserre doa buru-makila mugituz. Admetok be-larria zorrozten du. Urrunean hots bat entzuten duela iru-ditzen zaio. Han goian, bere balkoian, hiru atsoak iruten ari dira, irun eta irun. Nork daki norentzat?)*

**ADMETO, ZURE EGUNAK BETE DITUZU!!**



# **PIC-NIC**

F. Arrabal  
Luzia Gisasolak itzulia  
Gabriel Aresti batxilergo institutua  
Bilbo 1990



## PERTSONAIAK

Zapo  
Tepan jauna  
Tepan anderea  
Zepo  
1. andaria  
2. andaria

## DEKORATUA

Gudu lakua. Ezkerretik eskumara, eszenategi osoa zeharkatuz, alanbrada bat. Alanbradaren ondoan, lur zaku batzuk daude.

*(Gudua pil-pilean dago. Tiroak, bonbak eta txarraska boladak entzuten dira. Zapo, bakarrik, lur zakuen artean dago ezkutatu nahirik. Beldurrez dago. Gudua unea amaitzen da. Isiltasuna. Zapok kartutxerak, kaskoa eta fusila dauzka. Otxara batetik artile mataza eta galtzortzak ateratzen ditu. Nahiko aurreratua daukan jertse bat egiten hasten da. Bere ondoan daukan kanpaina telefonoa joka hasten da).*

**Zapo**

Bai... bai... zure aginduetara kapitain jauna... Bai, neu naiz 47. kotako zaindaria... Ezer berririk ez, nere kapi-

tain jauna... Barkatu, kapitain jauna, noiz hasiko da berriz gudu?... Eta, bonbak noiz bidaltzen ditut?... Baina aurrerantz ala atzerantz?... Ez zaitez horrela jarri nerekin. Ez zaitut nekarazi nahi... kapitain jauna, oso bakarrik sentitzen naiz. Ezin diezadakezu lagun bat bialdu?... Ez eta ahuntza ere?... (*Kapitainak errieta egiten dio*) Zeure esanetara... Zeure esanetara, kapitain jauna. (*Zapok telefonoa eskegitzen du*).

(*Isiltasuna. Tepan jauna eta Tepan anderea eszenan sartzen dira, otxara batzuekin, basajana egitera joango balira bezala. Zaporengana doaz. Zapok ez du gertatzen dena ikusten, atzea emanaz dagoelako zakuen artean ezkutaturik*).

**Tepan jauna** (*Zeremonia handiz*): Seme, altxa zaitez eta emaiozu zeure amari musu bat bekokian. (*Zapok, harriturik, altxatu eta bere ama musukatzen du bekokian errespetu handiz. Hitzegin nahian dabil, baina aitak ez dio uzten*). Eta orain neuri musua.

**Zapo** Baina, guraso maiteak, nolatan etorri zarete hona hain arriskutsua izanik? Aldegin berehala.

**Tepan jauna** Guduak eta arriskuak nolakoak diren irakatsi nahi diozu aitari, ala? Egun hau, jolasaldi bat bezalakoa da neretzat.

**Tepan anderea** Aspertua egongo zinelakoan, zu ikustera etorri gara. Hainbeste guduk aspertu egin behar zaitu.

**Zapo** Zer nolako guduak diren.

**Tepan jauna** Nik ondo dakit zer gertatzen den. Hasieran, gauza berria denez, gustokoa duzu. Beste norbait hiltzea eta hain dotore egonarazten zaituen kasko hori eramatea, hasieran atsegina da, baina azkenean izorratu egingo zaitu. Nere denboretan beste zenbait gauza gertatu izango zatekeen. Guduak anitzagoak ziren, kolorea zuten. Eta batez ere, zaldiak zeuden, zaldi asko.

**Tepan anderea** Ni beti izan naiz gerrazalea. Txikitan, koronela izango nintzela esaten nuen. Baina amak ez ninduen utzi. Badakizu nolako ideia zaharkituak zituen.

- Tepan jauna** Zure ama beti berean.
- Zapo** Barkaidazue. Joan beharra daukazue. Gerrara etortzea debekatua dago soldadua ez bazara.
- Tepan jauna** Neuri bost axola! Gu ez gara hona etorri gerra egitera, zurekin igandea pasatzera baizik.
- Tepan anderea** Eta horretarako janari oso ona prestatu dut: patata tortila, urdaiazpiko otartekoak, ardo beltza, entsalada eta pastelak.
- Zapo** Beno, beno... Nahi duzuen bezala, baina kapitain jauna etortzen baldin bada, nik ez dakit ezer honetaz. Nola jarriko den! Beti esaten digu: «Gerran, disziplina eta bonbak. Besterik ez».
- Tepan jauna** Ez zaitetz larritu, seme. Nik esango dizkiot pare bat gauza «kapitain jaun» horri.
- Zapo** Eta berriro hasten bada gudua?
- Tepan jauna** Beldurtuko naizelakoan zaude ala? Egoera latzagoak pasa behar izan ditut. Lehen bezala izango balitz oraindik ere, zaldi lodiekin edonondik. Baina denborak aurrera doaz, ez duzu ulertzen? (*isilunea*) Motorrean etorri gara eta ez digu inork ezer esan.
- Zapo** Arbitroak zinetela usteko zuten.
- Tepan jauna** Hainbeste jeep eta tanke aurreratzea izan da txarrena.
- Tepan anderea** Eta gogora ezazu kainoi hura, nolako arazoa sortu duen.
- Tepan jauna** Hau da hau gerra.
- Tepan anderea** Utz ditzagun kontuak eta has gaitzen jaten.
- Tepan jauna** Bai, has gaitzen. Polbora usai honek jangura ematen dit.
- Tepan anderea** Hementxe bertan jango dugu, burusiaren gainean.

- Zapo** Fusilarekin jango dut?
- Tepan jauna** Jaterakoan fusilik ez. Gizabide txarrekoa da hori. Utz ezazu zaku horien ondoan.
- Zapo** Eta etsaiak agertzen badira?
- Tepan jauna** Hemen nago ni bi hitz esateko.
- Tepan anderea** (*Bere semearen botak harriturik begiratzuz*) Baina, baina, semetxo. Nola zaude hain zikin?
- Zapo** Gerraren gauzak dira hauek, amatxo.
- Tepan anderea** Beno, berdin dio. Ikus dezagun nola zauden. Etzan zaitetz burusiaren gainean.
- (*Zapo burusian etzaten da. Amak, 4 urteko umea balitz bezala begiratzen du*).
- Tepan anderea** Ikus ditzagun nere seme kuttunaren belaunak. (*Belau-nak begibistan uzten ditu*) Baina... oso zikin dituzu. Zer egin duzu, ba, horrela izateko?
- Zapo** (*Lotsaz*) Ezer ez. Ez dut ezer txarrik egin.
- Tepan anderea** Esaiozu amari egia (*Ama on bat lez elkarrizketa osoan*)
- Zapo** (*Lotsaz*) Atzo, maniobrak zirela eta, lurrean narraztien moduan ibili nintzen.
- Tepan anderea** Eta gaur goizean ez duzu burua garbitu.
- Zapo** (*Lotsaren lotsaz gorri-gorri*) Ez.
- Tepan anderea** Ez ezazu berriro egin.
- Zapo** Zin dagizut.
- Tepan anderea** Eta orain... Ea nola daukan tripatxoa nire semetxoak... (*Brageta jaitsiz, «tripatxoa» ikusteko. Hurbil hurbiletik*)



*arakatzen du «tripatxoa». Zapo barrezka hasten da gelditu ezinik).*

**Tepan anderea** Zergatik ari zara barrezka?

**Zapo** Kilikiliak egiten dizkidazu, amatxo.

**Tepan anderea** Kilikiliak egiten dizkizudala?

**Zapo** Bai, sudurtxoarekin. (*Barre egiten du*).

**Tepan anderea** Baina tripatxoa zikin daukazu.

**Zapo** (*Lotsatua*) Garbitzea ahaztu dut.

**Tepan anderea** Ez dadila berriro gertatu. Talko hauts hauek jarriko dizkizut. (*Tepan andereak talko hautsak ateratzen ditu otxara batetik, eta ia pote osoa jartzen dio tripatxoan*) Horrela nere semetxoa ondo egonen da. Eta belarriak nola dituzu? Erakutsiezazkiozu amari.

**Zapo** Gaur goizean garbitu ditut.

**Tepan anderea** Oso ondo. Eta haginak? (*Zapok haginak erakusten ditu*). Oso ondo. (*Tepan jaunari begiratzuz*). Nork eman-go dizkio bi musutxo gure semetxoari? (*Tepan jaunak musuak ematen dizkio*). Ezin daitekeena onartu zera da: gerraren kontua dela eta zure garbitasunaz ez arduratzea.

**Zapo** Bai, ama (*Jaten hasten dira*).

**Tepan jauna** Asko hil dituzu, ene semetxo?

**Zapo** Noiz?

**Tepan jauna** Egun hauetan.

**Zapo** Non?

**Tepan jauna** Ba gerra honetan.

**Zapo** Ez asko. Ezer gutxi. Ia inor ez.

- Tepan jauna** Eta zer gehiago? Zaldiak ala soldaduak?
- Zapo** Zaldirik ez, aita. Ez dago zaldirik.
- Tepan jauna** Eta soldadurik?
- Zapo** Agian.
- Tepan jauna** Nola «agian»? Ez dakizu zer egiten duzun?
- Zapo** Ez, begiratu barik egiten baitut tiro. (*Isilunea*) Gainera oso gutxi egiten dut tiro. Eta tiro egiten dudan bakoi-tzean «Gure Aita» bat esaten diot Jainkoari, hil dudan tipoagatik.
- Tepan jauna** Adore gehiago izan behar duzu. Zure aitak bezala.
- Tepan anderea** Disko bat jarriko dut.
- (*Disko bat jartzen du. Hirurak, lurrean eserita, musika entzuten dute*).
- Tepan jauna** Hau bai dela musika!
- (*Musika entzuten jarraitzen dute. Soldadu etsai bat sartzen da eszenan: Zepo. Zapo bezala doa jantzita. Aldatzen den bakarra kolorea da. Zepo berdez doa, eta Zapo grisez. Zepok, musika entzuten du, Tepan familiaren atzekaldean. Diskoa amaitzen da. Zapok, zutik jartzera-koan, Zepo ikusten du, eta Zepok Zapo. Biok altxatzen dituzte eskuak. Tepan jaun-andereak harriturik daude*).
- Tepan jauna** Zer pasatzen da?
- (*Zapok erreakzionatzen du lehenago. Duda-mudan dago. Gero, guztiz erabakia, fusila hartu eta Zepo apuntatzen du*).
- Zapo** Gora eskuak!
- (*Zepok gorago altxatzen ditu eskuak, beldurraren beldurraz. Zapok ez daki zer egin. Ezer esan gabe, Zeporengana doa eta sorbaldan kolpetxo bat ematen dio, esanez*).

- Zapo** ¡PAN Y TOMATE PARA QUE NO TE ESCAPES!
- Tepan jauna** Beno, eta orain zer?
- Tepan anderea** Lotu ezazu, ihes ez egiteko.
- Zapo** Lotu?
- Tepan jauna** Bai. Ez dakizu atxilotuak berehala lotu behar direla?
- Zapo** Nola lotuko dut?
- Tepan jauna** Lotu iezazkiozu eskuak.
- Tepan anderea** Bai. Eskuak batez ere. Beti ikusi izan dut horrela egi-  
ten dela.
- Zapo** Beno. (*Zepori*) Eskuak elkarren ondoan jartzeko fabo-  
rea egingo didazu, lotu egingen zaitut eta.
- Zepo** Ez iezadazu min askorik egin.
- Zapo** Ez.
- Zepo** Ai! Min ematen didazu! Odolaren zirkulazioa mozten  
didazula!
- Tepan anderea** Hori da nik irakatsi dizudana? Ez dizut mila bider  
errepikatu ona izan behar duzula edonorekin?
- Zapo** (*Ia-ia negarrez*) Ez zaitetze horrela jarri nerekin. Ez dut  
intentzio txarrarekin egin.
- (*Zapok oso txarto lotzen dizkio eskuak. Esan daiteke Ze-  
pok edozein momentutan ken ditzakeela sokak*).
- Zapo** Eta horrela, ondo zaude horrela?
- Zepo** Bai, ondo nago.
- Tepan jauna** Esazu egia. Konfidantza osoz. Ez zaitetz lotsatu gu  
aurrean gaudelako. Txarto baldin bazaude, esazu eta  
konponduko dugu.

- Zepo** Ez, ondo nago.
- Tepan jauna** Seme, lotu hankak ere, ihes ez egiteko.
- Zapo** Hankak ere bai?
- Tepan jauna** Ez dizkizute ordenantzak irakatsi?
- Zapo** Bai.
- Tepan jauna** Ba guzti hori ordenantzetan dago.
- Zapo** (*Zepori, modu oso onez*) Mesedez, eseri zaitez lurrean, hankak lotuko dizkizut eta.
- Zepo** Baina ez iezadazu minik egin, lehengoan bezala.
- Tepan jauna** Bai, ez minik egin, bestela tirria hartuko dizu.
- Zapo** Ez dit tirriarik hartuko. Minik bai?
- Zepo** Ez.
- Zapo** Nahi badazu lasago utziko dizkizut.
- Zepo** Ez, mila esker, horrela ondo dago.
- Tepan jauna** Eta orain bozatu egin beharko dugu.
- Zapo** Bozatu?
- Tepan jauna** Noski, semetxo.
- Zapo** Zertarako hori?
- Tepan jauna** Oihuka egin ez dezan.
- Zapo** Baina horrela ez du hitz egiterik izango.
- Tepan jauna** Hori da lortu nahi duguna.
- Zapo** Eta txisterik badaki?

- Tepan jauna** Txisterik badaki, zer?
- Zapo** Ba, berarekin gaudenez eta basaegun bat pasatzen ari garenez, txisteak kontatuz diberti gaitzakeela.
- Tepan jauna** Ideia ona da hori.
- Zapo** (*Zepori zuzenduz*) Badakizu txisterik?
- Zepo** (*Apala eta lotsatua*) Bai, bakarren batzuk bai. (*Isilunea. Oraindik lotsatuagoa*) Baina berdetxoak dira.
- Tepan anderea** Horrek ez dio axola, ni ez naiz izutzen.
- Zapo** Zer egingo dugu orduan, aita? Bozatu ala ez?
- Tepan jauna** Ez, utz ezazu horrela.
- Zapo** (*Ideia bat izanez*) Aitatxo, aitatxo, egidazu argazki bat, atxilotua lurrean etzana eta nire oina bere triparen gainean jarrita. Ideia ona da, ez da?
- Tepan jauna** Bai, egia! Oso ondo aterako zara!
- Zepo** A ez, hori ez dut onartzen!
- Tepan anderea** Esazu baietz. Ez zaitetz burugorra izan.
- Zepo** Ez. Ezetz esan dut eta ezetz da.
- Tepan anderea** Baina zer axola dizu zuri argazki batek! Eta guk, nere senarrak orain dela 13 urte irabazitako naufrago salbatzaile diplomaren ondoan jar genezake gure etxeke jantokian.
- Zepo** Ez nauzue konbentzituko. Ez uste.
- Zapo** Baina, zergatik ez duzu nahi?
- Zepo** Emaztegaia dudalako eta, ikusten badu, gerra egiten ez dakidala esango du.

- Zapo** Ez, gizona. Ez zarela zu esaten diozu, behean dagoena pantera bat dela.
- Tepan anderea** Mesedez, baietz esan.
- Zepo** Bale, baina zuei fabore bat egitearren bakarrik.
- Zapo** Etzan zaitez.
- (Zepo etzaten da. Zapok, itxura oso beldurgarriaz, fusila hartu eta Zeporen gainean oin bat jartzen du).*
- Tepan jauna** *(Zapori)* Atera gehiago bular hori.
- Zapo** Horrela ondo dago?
- Tepan anderea** Bai, oso ondo. Ez ezazu arnasarik har.
- Tepan jauna** Heroi aurpegi gehiago jar ezazu.
- Zapo** Eta nola jartzen da hori?
- Tepan jauna** Oso erraz: harakinak bere konkista amorosoak kontatze-rakoan jartzen zuen aurpegia jar ezazu.
- Zapo** Horrela?
- Tepan jauna** Bai, horrela.
- Tepan anderea** Batez ere bularra atera eta ez ezazu arnasarik har.
- Zepo** Amaituko duzue behingoz?
- Tepan jauna** Pazientzia pixka bat, mesedez. Bat, bi, eta... hiru.
- Zapo** Ondo atera behar izan dut.
- Tepan anderea** Soldadu itxura osoa zeneukan.
- Tepan jauna** Ziur ondo atera dela.

- Tepan anderea** (*Tepan jaunari*) Zurekin bat ateratzeko gogoia sartu zait niri ere.
- Tepan jauna** Bai, oso ondo geratuko litzateke.
- Zapo** Nahi izanez gero, nik aterako dizuet argazkia.
- Tepan anderea** Kaskoa utziko didazu, militar itxura gehiago izateko?
- Zepo** Ez dut argazki gehiago nahi. Batekin nahikoa da.
- Zapo** Ez zaitez horrela jarri. Zuri berdin dizu bat edo mila argazki izateak.
- Zepo** Ez. Ez dut argazki gehiago nahi. Neure azken hitza da.
- Tepan jauna** (*Tepan andereari*) Utz ezazue horrela. Atxilotuak oso minberak izan ohi dira. Horrela jarraituz gero, festa hondatuko digu.
- Zapo** Eta orain zer egingo dugu presoaz?
- Tepan anderea** Ondo baderitzozue jatera gonbida genezake.
- Tepan jauna** Nigatik ondo.
- Zapo** (*Zepori*) Zer diozu zuk? Gurekin jan nahi duzu?
- Zepo** Ba... nik...
- Tepan jauna** Ardo beltz ona ekarri dugu.
- Zepo** Horrela bada, bai.
- Tepan jauna** Etxean bazina bezala egin. Eska iezaguzu nahi duzuna.
- Zepo** Ondo da.
- Tepan jauna** Eta? Asko hil dituzu?
- Zepo** Noiz?

- Tepan jauna** Egun hauetan.
- Zepo** Non?
- Tepan jauna** Ba gerra honetan.
- Zepo** Ez asko. Ezer gutxi. Ia ezer ez.
- Tepan jauna** Eta, zer gehiago? Zaldiak ala soldaduak?
- Zepo** Zaldirik ez. Ez dago zaldirik.
- Tepan jauna** Eta soldadurik.
- Zepo** Agian.
- Tepan jauna** Nola «agian»? Ez dakizu zer egiten duzun?
- Zepo** Ez, begiratu barik egiten baitut tiro. (*Isilunea*). Gainera oso gutxi egiten dut tiro. Eta tiro egiten dudan bakoi-tzean «Agur Mari» bat esaten diot Jainkoari, hil dudan tipoagatik.
- Tepan jauna** «Agur Mari» bat? «Gure Aita» bat esango zenuelakoan nengoen.
- Zepo** Ez. Beti-beti «Agur Mari» bat. (*Isilunea*). Laburragoa da.
- Tepan jauna** Gora animo hori, gizona. Adore gehiago izan behar duzu.
- Tepan anderea** (*Zepori*) Nahi izanez gero, sokak kenduko dizkizugu.
- Zepo** Ez, ez dauka garrantzirik.
- Tepan jauna** Ez zara orain gurekin txorakeriatan hasiko, ez da? Sokak kentzea nahi baduzu, esaiguzu.
- Tepan anderea** Ahalbait erosoan jar zaitez.
- Zepo** Beno, horrela jartzen bazarete, ken iezazkidazue sokak. Baina faborea egiteagatik diotsuet hau.



- Tepan jauna** Seme, ken iezazkiozu sokak. (*Zapok, oinetako sokak kentzen dizkio*).
- Tepan anderea** Hobeto zaude. Ez da?
- Zepo** Bai, dudarik gabe. Agian nekarazten zaituztet, ez?
- Tepan jauna** Ez, ez gaituzu nekarazten. Etxean bazina bezala egin. Eta eskuetako sokak kentzea nahi baduzu, eskatu besterik ez duzu egin behar.
- Zepo** Ez, eskuak ez. Gehiegi eskatzea da.
- Tepan jauna** Ezetz ba, ezetz. Ez gaituzula ezer nekarazten.
- Zepo** Horrela bada... ken iezazkidazue eskuetako sokak. Baina jateko bakarrik. Ez dut entzuterik nahi gero, hatzamarra ematen didazuela eta esku osoa hartzen dudala.
- Tepan jauna** Ume, ken iezazkiozu eskuetako sokak.
- Tepan anderea** Zein ondo. Basaegun zoragarria pasatuko dugu. Eta gainera preso jauna oso maitagarria da.
- Zepo** Ez didazu «preso jauna» esan behar. Esan ezazu «preso» besterik gabe.
- Tepan anderea** Ez zaitu nekaraziko?
- Zepo** Inola ez.
- Tepan jauna** Zu bai zarela apala.  
(*Hegazkin zarata entzuten hasten da*).
- Zapo** Hegazkinak! Ziurrenik bonbak botako dizkigute!  
(*Zapo eta Zepo azkar baino azkarrago ezkututzen dira zakuen artean*).
- Zapo** (*Gurasoei*) Ezkutatu azkar. Bonbak gainean jausiko zaizkizue bestela.

*(Pixkanaka-pixkanaka, hegazkinen zarata gero eta gehiago entzuten da, dena bete arte. Berehala, bonbak erortzen hasten dira. Hurbil jotzen dute, baina eszenategian batek ere ez. Zarata izugarria. Zapo eta Zepo zakuen artean daude izkutaturik. Tepan jaunak emazteari hitz egiten dio. Tepan andereak erantzuten dio. Oso-osu trankil daude. Ez zaie entzuten, bonbak direla eta. Tepan anderea otxara batera hurbiltzen da eta aterki bat ateratzen du. Zabaldu egiten du. Biak (Tepan jaun-andreak) azpian jartzen dira, euria ari balitz bezela. Zutik daude. Lehenengo hanka baten eta gero bestearen gainean, kulunkatzen bezala. Bitartean hitzegiten dihardute. Bonbaketak dirau. Hegazkinak badoaz. Isiltasuna. Tepan jaunak beso bat ateratzen du aterkiaren azpitik, ezer erortzen ez dela ziurtatzeko).*

**Tepan jauna** *(Bere emazteari)* Aterkia itxi dezakezu.

*(Tepan andereak itxi egiten du. Biak semeari hurbiltzen zaizkio eta aterkiarekin kolpetxo batzuk ematen dizkiote ipurdian).*

**Tepan jauna** Irten zaitezkete. Bonbaketa bukatu da.

*(Zapo eta Zepo ezkutalekutik irtetzen dira).*

**Zapo** Ez zaizue ezer gertatu?

**Tepan jauna** Zer nahi zenuen zure aitari gertatzea? Bonbatxoak niri...

*(Ezkerretik, Gurutze Gorriko bi andari sartzen dira. Ohatila bat daramate bien artean).*

**1. andaria** Hildakorik bai?

**Zapo** Ez. Hemen ez.

**1. andaria** Ziur zaude ondo begiratu duzula?

**Zapo** Zeharo ziur.

**1. andaria** Eta ez dago hildakorik?

- Zapo** Badiotsut ezetz.
- 1. andaria** Ezta zauriturik ere?
- Zapo** Ez.
- 2. andaria** Ondo gaude orduan! (*Zepori, tonu pertsuasibo batez*). Ondo begira ezazu leku guztietan ea «txorizoren» bat aurkitzen duzun.
- 1. andaria** Ez ezazu insistitu. Ez dagoela esan dizute.
- 2. andaria** Hau bai itzeleko zerrikeria!
- Zapo** Benetan sentitzen dut. Zin dagizut ez dudala apropos egin.
- 2. andaria** Hori da denek esaten dutena. Hildakorik ez dagoela eta ez dutela apropos egin.
- 1. andaria** Lasai mutil, ez ezazu gizona nekarazi.
- Tepan jauna** (*Lagundu nahirik*) Laguntza eman ahal badizuegu, gustora egingo dugu. Zuen aginduetara gaude.
- 2. andaria** Ondo da, baina horrela jarraitzen badugu, ikusiko duzu zelako jipoia emango digun kapitainak.
- Tepan jauna** Zer gertatzen da?
- 1. andaria** Beste andariak eskumuturrak apurtuta dituztela hainbeste zauritu eta hildako eramaten, eta guk ez dugu bat ere aurkitu. Eta ez da izango ez bilatzeagatik...
- Tepan jauna** Hau da hau arazo latza! (*Zapori zuzenduz*) Ziur zaude ez dagoela hildakorik?
- Zapo** Ziur baino ziurrago.
- Tepan jauna** Ondo begiratu duzu zaku horien azpian?
- Zapo** Bai, aita.

- Tepan jauna** (*Guztiz nahigabeturik*) Gizon hauei laguntza ematea da zuk nahi ez duzuna. Hain atseginak izanik, ez dizu lotsarik ematen?
- 1. andaria** Lasai gizona, ez zaitetz horrela jarri. Utz ezazu trankil. Zorte handiagoa izango dugula espero dezagun, eta aurkituko dugu hildakoren bat beste luebaki batean.
- Tepan jauna** Poztu egingo ninduke horrek.
- Tepan anderea** Neu ere bai. Ez dakizu nola estimatzen dudan bere lana maite duen jendea.
- Tepan jauna** (*Denei, atsekabeturik*) Zer? Lagunduko diegu ala ez?
- Zapo** Neugatik balitz, egina zegoen.
- Zepo** Gauza berbera diot nik.
- Tepan jauna** Baina, biotariko inork ez dauka zauritxo txiki bat ere?
- Zapo** (*Lotsaturik*) Ez, nik ez.
- Tepan jauna** (*Zepori*) Eta zuk?
- Zepo** (*Lotsaturik*) Ezta nik ere. Ez dut inoiz zorterik izan...
- Tepan anderea** (*Pozik*) Oraintxe gogoratu dut, gaur goizean kipulak zuritzerakoan, ahiztoarekin hatzamarrean ebakitxo bat egin dudala. Zer deritsozue horri?
- Tepan jauna** Ezin hobea! (*Poz-pozik*). Oraintxe eramango zaituzte.
- 1. andaria** Ez. Emakumeek ez dute balio.
- Tepan jauna** Orduan berdin gaude. Ez digu ezertarako balio.
- 1. andaria** Ez dio axola.
- 2. andaria** Ea zerbait aurkitzen dugun beste luebakietan.  
(*Badoaz*).

- Tepan jauna** Ez zaitezte arduratu; hildakoren bat aurkitzen badugu, zuentzat gordeko dugu. Lasai egon, ez diogu beste inori emango.
- 2. andaria** Mila esker, jauna.
- Tepan jauna** Ezergatik ez, lagun.  
*(Andariak agur egiten diete joaterakoan, eta lauek erantzuten dute. Andariak badoaz).*
- Tepan anderea** Hau da igandeetan irtetzeak duen gauza on bat. Beti ezagutzen duzu jende atsegina. *(Isilunea)* Eta zu, zergatik zara etsaia?
- Zepo** Ez dakit. Nik gauza hauetaz ez dakit ezer. Kultura oso gutxi daukat.
- Tepan anderea** Jaiotzetik da hori ala geroago egin zinen etsai?
- Zepo** Ez dakit. Badiotsut ez dakidala.
- Tepan jauna** Orduan, nolatan etorri zara gerrara?
- Zepo** Behin etxean amaren plantxa elektrikoa konpontzen nengoelarik, gizon bat agertu zen eta «Zu zara Zepo?» galdetu zidan. Nik baietz esan nion, eta orduan berak gerrara joan behar omen nuela esan zidan. Nik orduan «Zein gerratarara?» galdetu nion. Berak ea egunkariak ez nituen irakurtzen galdetu zidan. Nik baietz, baina ez gerrako kontuak...
- Zapo** Gauza berdin-berdina gertatu zitzaidan niri.
- Tepan jauna** Bai, zure bila berdin etorri ziren.
- Tepan anderea** Ez, ez zen berdin izan. Egun hartan zu ez zeunden plantxa elektrikoa konpontzen, kotxea baizik.
- Tepan jauna** Berdina bestea dela diot. *(Zepori)* Jarrai ezazu. Zer gertatu zen ondoren?

- Zepo** Emaztegaia nuela esan nion, eta igandeetan zinemara ez banuen eramaten oso aspertuta geratuko zela. Emaztegaia-arenak inportantziarik ez zuela erantzun zidan.
- Zapo** Neuri ere berdin-berdin.
- Zepo** Gero berak esan zidan ez zegoela salbuespenik, denak joango zirela gerrara. Eta nik, «Denak?», eta berak baietz, «Gizon guztiak». Eta nik «Zertarako hainbeste gizon?», eta berak «Gerra oso handia delako». Orduan nik «Ez gara guztiok sartuko».
- Zapo** (*Moztuz, oso alai*) Neuri ere berdin-berdin. Eta gero ez zizun esan gerrara joan behar zinela aberria dela eta ez dela?
- Zepo** Bai.
- Zapo** Eta gizatasun delako hori salbatzeko?
- Zepo** (*Pozik*) Bai.
- Zapo** Eta ez dakit zein balore salbatzeko?
- Zepo** (*Guztiz pozik*) Bai. Eta baita ere zibilizazioa salbatzeko joan behar zela.
- Zapo** Bai. Neuri ere hori esan zidaten.
- Zepo** Gero nik esan nuen gerrarako ez nuela balio, lagun guztiek menperatzen nindutela. Eta berak horrek ez zuela axola. Gero aita jaitsi zen eta gerrara ezin nintekeela joan esan zuen, ez bait nuen zaldirik.
- Zapo** Aitak gauza bera esan zuen.
- Zepo** Baina gizonak zaldirik ez zela behar esan zuen. Nik emaztegaia eramanez ez nuen galdetu nuen eta berak ezetza. Orduan ama eramanez ez nuen galdetu nion, zeren ostegunetan arraultzesnekiak egiten zizkidala, eta gustokoak nituela oso.

- Tepan anderea** (*Zerbait ahaztu duela oharturik*) Amatxo maitia! Arraultzesnekiak!
- Zepo** Eta berriro ere ezetz.
- Zapo** Neuri ere ezetz.
- Zepo** Eta ordudanik luebaki honetan, bakar-bakarrik.
- Tepan anderea** Nere ustez, eta biak oso bakarti sentitzen zaretenez eta bata bestearengandik hain hurbil zaudetenez, arratsalde-ro batu zintezkete zerbaitetara jolasteko, ez da?.
- Zapo** Ui, ez ama! Etsaia dela!
- Tepan jauna** Trankil egon, ez zaitez izutu.
- Zapo** Jakingo bazenu zer kontatu digun jeneralak etsaiari buruz...
- Tepan anderea** Zer esan du jeneralak?
- Zapo** Etsaiak oso, oso, oso, oso txarrak direla esan digu. Eta presoak harrapatzen dituztenean, oinetakoetan harritxoak sartzen dizkietela, ibiltzerakoan min har dezaten.
- Tepan anderea** Hau bai astakeria! Zein txarrak diren!
- Tepan jauna** (*Zepori, haserreturik*) Eta ez dizu lotsarik ematen, horrelako pertsonen alde egoteak?
- Zepo** Nik ez dut ezer egin. Ni ez naiz inorekin sartzen.
- Tepan anderea** Mutil onaren aurpegi hori jarriz ziria sartu nahi zigun...
- Tepan jauna** Ez genizkion sokak kendu behar. Orain deskuidoan harrapatzen bagaitu, harritxoak sartuko dizkigu oinetakoetan.
- Zepo** Ez zaitezte horrela jarri nerekin.

- Tepan jauna**      Eta nola nahi duzu jartzea? Honek guztiz sumintzen nau. Badakit zer egin: kapitainarengana joango naiz eta gerran sartzen uzteko eskatuko diot.
- Zapo**              Ez dizu utziko. Zaharregia zara.
- Tepan jauna**      Orduan, zaldia eta ezpata erosi eta nere kabuz egingo dut gerra.
- Tepan anderea**    Horixe baietz! Gizona izanez gero, nik berdin egingo nuke.
- Zepo**              Andere, ez zaitetz horrela jarri. Gainera gure jeneralak gauza berberak esan dizkigu.
- Tepan anderea**    Nola ausartu da horrelako gezurrak esaten?
- Zapo**              Baina, dena berdin-berdina?
- Zepo**              Bai, zehazki-mehazki.
- Tepan jauna**      Ez zen ba jeneral bera izango bioi hitz egin zizuena?
- Tepan anderea**    Baina berdina bada, zergatik ez du diskurtsoa aldatu? Ez du graziarik ematen denei gauza bera esateak.
- Zepo**              (*Gaixto*) Badakizue zer uste dudan?
- Tepan anderea,  
Tepan jauna  
eta Zapo**          Zer?
- Zepo**              Ez duzue gero lelokeria bat dela esango, ez da?
- Tepan anderea,  
Tepan jauna  
eta Zapo**          Ez.
- Zepo**              Ba... nere ustez dena gezurra da.
- Tepan anderea,  
Tepan jauna  
eta Zapo**          Nola?  
(*Isilunea*).



- Tepan jauna** (*Zepori, ahots tonua aldatuz*) Beste basotxo bat nahi duzu?
- Tepan anderea** Janaria zure gustokoa izango zen ba!
- Tepan jauna** Pasa den igandekoa baino hobeto egon da hau, gutxi bada ere.
- Zepo** Zer gertatu zitzaizuen?
- Tepan jauna** Ba... baserrira irten ginela eta janaria burusi baten gainean jarri genuela eta, konturatu baino lehenago, behi batek azkari guztia jan zigun. Zapiak eta guzti.
- Zepo** Bai behi lotsagabea!
- Tepan jauna** Bai, baina kontuak ordaintzeko behia jan genuen. (*Barre egiten dute*).
- Zepo** (*Zepori*) Horrez gero, gosea ondo kenduko zenuten...
- Tepan jauna** Osasuna!! (*denek edaten dute*).
- Tepan anderea** (*Zepori*) Eta zuk zer egiten duzu ez aspertzeko, luebakian bakarrik zaudenean?
- Zepo** Zapizko loreak egiten ditut ez aspertzeko. Asko asperetzen naiz.
- Tepan anderea** Eta zer egiten duzu loreekin?
- Zepo** Lehen emaztegaiari bidaltzen nizkion. Baina egun batean, negutegia eta upategia beterik zeuzkala esan zidan, eta axola ez bazitzaidan, beste zerbait egin nezan, hainbeste lorerekin ez zekiela zer egin.
- Tepan anderea** Eta zer egin zenuen?
- Zepo** Beste zerbait egiten ikasten ahalegindu nintzen, baina ez nuen lortu. Horrela bada, loreak egiten jarraitu nuen.

- Tepan anderea**      Eta orain, botatzen dituzu?
- Zepo**                      Ez. Zeregin ona aurkitu diet: lore bat eskaintzen dut hildako lagun bakoitzarengatik. Badakit, nahiz eta mila-ka egin, beti izango ditudala beharrezkoak.
- Tepan jauna**            Irtenbide ona aurkitu duzu.
- Zepo**                      *(Lotsati)* Bai.
- Zapo**                      Ba... nik jertseak egiten ematen dut denbora. Begira orain egiten ari naizena.
- (Zapok otxara ateratzen dio, bertan artilea, galtzorratzak eta erdi egindako jertsea dituelarik).*
- Zepo**                      Ui! Zein ondo ari zaizun geratzen.
- Zapo**                      Bai, ezin naiteke kexatu.
- Zepo**                      Agian, zertxobait izurtuta.
- Zapo**                      Ez, ez ezazu hori uste.
- Zepo**                      Eta zer trikota motaz egiten duzu?
- Zapo**                      Hiru bider lau trikota ingelesaz.
- Zepo**                      Nire ustez, lau bider zortzi trikota mota hobea da jertseak egiteko.
- Zapo**                      Ez, trikota mota horrekin txarto geratzen dira. Horrela egin nuen jertse bat eta tapauka atera zitzaidan.
- Zepo**                      Bai, egia. Horrela da. *(Isilunea)* Eta zer artile mota erabiltzen duzu?
- Zapo**                      Zuk zeuk begira ezazu.
- (Zepok eskua otxaran sartu eta gauza bat ateratzen du).*
- Zepo**                      Hau?

- Zapo** Ez, hori ez da mataza, bonba baizik.
- Zepo** Beste hau?
- Zapo** Bai, hori. Oso kalitate onekoa, ikusten duzunez.
- Zepo** Merkatura noanean gauza bera esaten dut nik: hobe dela gauza ona eta garestia erostea, merkea eta ezertarako balio ez duena baino.
- Tepan anderea** Baina, soldadu guztiak aspertzen dira zuek lez?
- Zepo** Astia pasatzeko zer egiten duten.
- Zapo** Nire aldean ere gauza bera gertatzen da.
- Tepan jauna** Orduan gauza bat egin genezake: gerra gelditu.
- Zepo** Nola?
- Tepan jauna** Oso erraz. Zuk, seme, gure soldadu guztiei zera esango diezu: beste soldaduek gerrarik ez dutela nahi, eta zuk zure aldekoiei gauza bera. Eta orduan denok etxera.
- Zapo** Hobeto baino hobeto!
- Tepan anderea** Horrela plantxa elektrikoa konpontzen buka dezakezu.
- Zapo** Nola ez zaigu lehenago horrelako ideia onik bururatu, gerra delako kontu honekin bukatzeko?
- Tepan anderea** Horrelako ideiak zure aitak eduki ditzake bakarrik. Ez ezazu ahaztu unibertsitaria eta filatelikoa dela.
- Zepo** Aizu, eta gerra gelditzen badugu, zer gertatuko da kabo eta jeneralekin?
- Tepan anderea** Armadura batzuk emango dizkiegu lasai gera daitezen.
- Zepo** Oso ideia ona.
- Tepan jauna** Ikusi duzue zein erraza den? Dena dago konponduta.

- Zepo** Itzelezko arrakasta izanen dugu.
- Zapo** Nere lagunek izugarrizko poza hartuko dute.
- Tepan anderea** Hau ospatzeko, zergatik ez dugu dantzan egiten?
- Zepo** Oso ondo.
- Zapo** Bai, jar ezazu musika, ama.  
(*Tepan andereak diskoa jartzen du. Espektazioa. Ez da ezer entzuten*).
- Tepan jauna** Ez da ezer entzuten.
- Tepan anderea** (*Musika tresnaren ondora doa*) Barkatu, nahastu egin naiz. Diskoa jarri beharrean txapela jarri dut.

*(Diskoa jartzen du. Dantzan egiten dute, pozez beterik, Zapok Zeporekin eta Tepan andereak Tepan jaunarekin. Kanpainako telefonoa joka hasten da. Ez du inork entzuten. Dantzan jarraitzen dute. Berriro ari da telefonoa joka. Oraindik ere dantzan. Gudua berriro hasten da, bonba, txarraska eta tiro zarataz. Ez dira ezertaz konturatzen. Txarraska bolada batek lauak jotzen ditu. Lurrera erortzen dira, hilik. Balaren batek diskoa jo du: beti gauza bera errepikatzen ari da. Obra amaitu arte dirau diskoak horrela. Ezkerretik, bi andariak sartzen dira. Ohatila hutsik daramate.*

## TELOIA



# POTI

Joxe Martin Urrutia  
Kurutziaga ikastola  
Durango 1990



## PERTSONAIAK

Katua: Txarli  
Pertsonaia nagusia: Poti  
Ama eta umea  
Gaztea  
Lapurra  
Kale-garbitzailea: Manuel  
Musikoa: Txispi  
Saltzailea: Mustafa

Atsoa: Elena Kaskarrieta  
Poliziak: (2)  
Epailea: Eustakio Erdibide  
Fiskala: Mikel Salati  
Abokatua: Pedro Berriketa  
Kazetaria: Iñigo Saltsa  
Kamara

*(Hiri bateko telaituetan, katu bat dugu gauaren zaindari, bere begi argitsuekin bertan gertatzen diren gauza guztiak kontrolatzen ditu, bera bait dugu hiriaren eguneroko kontari.*

*Bere begientzako ez dago gauza ezkuturik, eta bere oroimenean hirian gertatu diren gauza guztien egutegia dugu; zabaldu dezagun bera eta irakurri dezagun).*

## I. ESZENA

*(Eszenarioa ilunpean dago. Atzean hiri baten argiak. Teilatatuak eta tximiniak ilargiaren ezkerrean ikusten ditugu. Eskumaldean, katu bat lo dugu).*

*(Badirudi mugitzen dela...).*

## Katua

Miau, ez dakit zergatik besteak lo daudenean guk esnatauta egon behar dugun. Miau, egunean lo eta gauez argi, miau.

Hasieran ez nuen batere gustoko bizimodu hau, gauez ez da ezer ikusten eta normalean gauak hotzak eta beldurgarriak izaten dira. Denak izkutatzen dira bere etxeetan eta kalean gelditzen direnak ez dute oso aurpegi atsegina edukitzen. Miau, txikia nintzenean beldur handia pasatzen nuen, beti beldur noiz edo non eman-go zidaten ostikada edo harrikadaren bat.

Poliki-poliki, handitzen nindoan bitartean, gauak ematen zidan babeseta eta beste gauza polit batzuk ikusten joan nintzen. Izarren eta ilargiaren argiaz gauzak askotan egunez baino politagoak ikusten dira, eta bertan diren elkarrizketen berri ematen dit.

Honela, hiri guztian gertatzen diren gauza guztiez enteraturik nago. Gauza bitxi ugari gertatu dira bertan, baina bitxienetatik bitxiena zuei kontatuko dizuet.

*(Bere tokitik mugitzen da eta eszenatokira jaisten da).*

Orain dela urte asko, beno, ez hainbeste, beheko parke honetan balde arraro bat agertu zen, printzipioz beste edozein balde bezalakoa.

Baina barruan zarata arraroak entzuten ziren eta ni, jakinminari eutsi ezinik, bertara hurbildu nintzen, eta tapa jasoaz, oooh... beldurturik, txistuaren pare alde egin nuen.

Garai txarra horrelako gauzak hirian agertzeko, hirian zegoen alkatesak ez bait zituen gustoko gauza arraroak eta garbiketa kanpaina gogor bat ezarri zuen hirian. Pentsa, katuak justu-justu libratu ginen.

Gauza arraro hau parkean bizi ziren pertsoneri ondo jauzi zitzaien eta euren babesarekin urtetan toki berean bizi izan zen...



## II. ESZENA

*(Orain arte eszenarioan argi gutxi egon da, eta bera katuaren gainean. Poliki-poliki eszenatokia agertzen doa, parkea eta hiria atzean agertzen direlarik).*

*(Eskuma aldetik ama bat bere haurrarekin agertzen da presa handia duelarik. Paperontzi edo balde aurretik pasatzen direnean, umeak boiloaren plastikoa bertara botatzen du, eta baldeak berriro ere kanpora. Umeak, liluraturik, berriro berdin egiten du, flipaturik amari deituz. Ama eszenatokitik kanpora zegoen bere presekin).*

**Umea** Ama! Amatxo!

Ama txistuaren pare bueltatzen da, eta zas, izugarritzko aurpegiko bat ematen dio, PLAS!!

**Ama** Txotxolo, aspertzen ari naiz, berandu goaz eta zu jolastan gelditzen zara eta, klaro, gu beti berandu ikastolara. Jarraitu nire aurretik!

**Umea** Bua, bua, bua...

*(Berehala mutiko bat azaltzen da saskibaloiko baloi bati boteak ematen, liburuak beste eskuan dituelarik. Paperontziaz konturatzen da eta baloia bertara botatzen du, ea barruan sartzen duen. Trebea denez lortzen du baina baloia hartzera doanean, errekoño! bera bakarrik irteten da).*

**Mutikoa** Koño, Loroño!

*(Mobida gustatzen zaio eta beste jaurtiketa bat egiten du, emaitza berdina lortuz. Ez zaio burutik pasatzen barruan zer egongo ote den eta arduratu gutxiago, baina ordularia begiraterakoan berandu dela ohartzen da eta liburuak hartuaz, alde egiten du).*

*(Mutikoa desagertu bezain pronto, gizon bat agertzen da boltsa bat eskuan daramalarik. Urduri dago, badirudi norbait atzetik datorrela. Aurrera, atzera eta alboetara begiratzen du, eta zas, paperontzia ikusten du, eta bertara abiatzen da).*

- Lapurra** Hemen inork ez du aurkituko!  
*(Baina barruan lagatzera doanean, polizia bi agertzen dira).*
- Poliziak** Geldi hor, inguraturik zaude! Utzi boltsa lurrean eta etzan zaitez!  
*(Lapurrak ez du kasurik egiten eta korrika irteten da atzetik poliziak dituelarik).*

### III. ESZENA

- Poti** Uaah! Beti berdin, egunero mobidaren bat, ezin esan asko aspertzen naizenik.  
  
Benoa, dirudienez ez dago inor inguruan eta lasai egon naiteke. Alkatesa honek benetan gauzak zailak ipintzen dizkit. Baina, benoa, zuek ez duzue ezertxo ere ulertzen, ez ezta?? Ala bai?? Edo Txarlik zerbait kontatu dizue?  
  
Hala bada ere, ni aurkeztuko naiz. Nere izena Poti da, pote edo balde baten barruan bizi naizelako. Horrela etorri nintzen mundura eta hemen bizi naiz; eta egia esanda, oso ondo bizi naiz. Parke honetan mobida handia egoten da eta inoiz ez dut denborarik izaten asperetzeko, eta bestela ikus ezazue. Psss, hor dator Manuel.  
  
*(Poti potearen barruan sartzen da eta eszenatokian kalegarbitzaile bat agertzen da erratza eta beste gauza guztiekin).*

- Manuel** Egun polita benetan, badirudi gaur ez duela euririk egingo.  
  
*(Hori esanda, Potiren balderantz abiatzen da).*

- Manuel** Egunon Poti, bada ordua burua hortik ateratzeko.

- Poti** Kaixo Manuel, aspaldi esna nintzen, baina bada ez bada barruan sartu naiz, goiza oso mobidua izan da eta.

- Manuel** Hi bai haizela mobidua. Har ezak esnea eta gaileta batzuk, honez gero goseak hilik egongo haiz eta.
- Poti** Bai, azkenengo orduan nere tripek izugarrizko zarata egin dute, Txarli esnatzeko beste.
- (Manuelek gora begiratzen du Txarli katua dagoen tokiraino).*
- Manuel** Hori ez duzu esnatzen harrika ere!
- Poti** Je, je. Esnatu dezagun!
- Manuel** Bai, aspaldi honetan ez baititugu bere ipuinak entzun.
- (Manuelek poltsikotik harri bat ateratzen du eta Txarliri botatzen dio).*
- Txarli** Buuuuf, utz nazazue pakean, goiza ez da nere ordua eta!
- Poti** Ez zaitetz haserretu, baina zure ipuinen bat entzun nahi dugu.
- Txarli** Utzi pakean, gauez lan asko egin dut eta!
- Manuel** Bai zera, etxe guztietako elkarrizketak entzutea lana bada, ni Txinako presidentea nauk.
- Txarli** Hara bestea! Garbitu ezak parkea, txerrikorta zirudik eta.
- Manuel** Nere parkea txerrikorta bat!!!
- Poti** Ez zaitetzte haserretu mesedez. Txarli, bukatu eta egizu lo; eta zuk, Manuel, konta iezadazu zerbait, zeren eta zuk ere ez dituzu belarri motzak!
- Manuel** Zer esan nahi duzu! *(Haserreturik!)*
- (Potik burua balde barruan sartzen du; eta berriro ere atera).*

- Poti** Beno, handiak ez, sentsibilitate handikoak.
- Manuel** Beno, beno, hori ondo zegok! Hortik esaten da alkate-sa jende arraroaren garbiketa kanpaina horretan aurka-ko jokabide handia aurkitzen ari dela.
- Jendea, musikoak, saltzaileak, antzezleak kaleetatik kanpora ikusi nahi ditu. Berdin ijitoak bere espektakuloekin eta punkyak euren jazkera arraroekin.
- Poti** Garbiketa kanpaina hori ez dut batere gustoko!
- Manuel** Eta txarrena, zu aurkitzen bazaituzte, baliteke parke honetatik eramatea.
- Poti** Ez! Hori ez! Ez, inola ere ez!
- Manuel** Lasai, parke honetaz ez dira gogoratzen eta bada ez bada, denok adi egongo gara.
- Poti** Begira, hor dator Txispi bere kitarrarekin.

#### IV. ESZENA

*(Eszenan gazte bat kitarra eta anplifikadore txiki batekin sartzten da. Berehala kitarra entxufatzen du eta kanta bat jotzen du).*

- Poti** Demasa Txo! Hori duk indarra!
- Manuel** Ez dakik pasadobleak edo rantxerak jotzen? Hori duk zarata!
- Txispi** Gustatzen zaizue? Gaur gauean idatzi dut eta irrikitzen nengoen zuei jotzeko; gainera, garbiketa plan hori gero eta hurbilago dugu. Joan den astetik hainbat kaletan polizia pilo bat dago era guztietako jendea atxilotzen.
- Manuel** Bai, hori da nik ere entzun dudana. Hala ere musika ez baduzu aldatzen nik botako zaitut parketik. Noiz behin-ka rantxeraren bat, mesedez!

- Txispi** Bai zera, itxura honekin rantxerak kantatuko dizkiat? «Allá en el rancho grande, allá donde vivíaááá» hi zoratuta hago, Manuel.
- Poti** Je, je, je, ba ez duk txarto egiten.
- Txispi** Barre gutxiago, Poti! Momentu latzak datozkigu eta!
- Manuel** Bai, arrazoia duzu eta adi egon behar dugu parke honetan ere badaude alkatesaren aldekoak eta. «Vista gorda» egiten dute zu bezelakoekin Txispi, baina Poti ikusten badute, polizia guztiak parke honetara etorriko dira, eta kazetariak eta... beno, hiri guztia.
- Poti** Ez da hainbesterainokoa izango Manuel. Begira, hor dator Mustafa, denbora pila bat da ez dugula ikusten eta ziur egon berri pila bat ekarriko digula.

## V. ESZENA

*(Eszenatokian moroko bat agertzen da, gauza pilo batez kargaturik, bere merkantzia saldu nahian).*

- Mustafa** «Salam alekum».
- P.M.Tx.** «Aleikum salam».
- Poti** Aspaldiko! Makaleko karga ekarri duzuna!
- Manuel** Bai, nere baserriko astoa ez da kapaz hainbesteko karga eramateko.
- Mustafa** Alaren besoak handiak dira, baina hire astoaren belarriak hireak bezelakoak dituk.
- Txispi** Jua, jua, asto gaixoa!
- Manuel** Gaur norbaitek erratz bat bazkalduko du!
- Poti** Utzi pakean Manuelen sensibilitateak eta...

**Manuel** Poti!!!

**Poti** Eta, Mustafa, kontaiguzu zure bidaiaren berri.

**Mustafa** Ejem, ejem, nere azkenengo bidaia Estambulera izan da. Hau erosi dut, alfonbra eta ehun hauek. Pertiako alfonbrak dira eta zetak Txinatik ekarritakoak.

**Poti** Oooh, baina non dago Estambul, Mustafa?

**Mustafa** Ekialdean, Mediterraneo itsasoaren ertz batean.

**Manuel** Zenbat balio du zapi honek?

**Mustafa** Bost mila pezeta.

**Manuel** Bost mila, honek ez du balio 1.000 pezeta ere, ez da hala, Txispi?

**Txispi** Hik jakingo duk, ni utzi pakean.

**Mustafa** 3.500 eta zurea da.

**Manuel** Pentsatu ere ez, MILA!

**Poti** Utzi diru kontuak, eta jarraitu gauzak kontatzen.

**Mustafa** Beno ez dago gauza asko kontatzeko, Estambuletik Morokora bueltatu nintzen; egun batzuetako atsedena hartu eta berriro hona. Baina baliteke nere azkeneko bidaia izatea, gauzak txarto baitaude hiri honetan ni bezalako morito batentzako.

**Manuel** Lasai, parke hau beti egongo da zabalik zuretzat.

**Txispi** Ez dakit, baina giroa ez da batere ona inorentzat eta adi egon beharko dugu.

**Poti** Bakoitza bere tokira! Hor dator atso zahar hori!

**Manuel** Bai, egia duk, Poti, sartu hadi barrura, ze hi ikusten ba hau, akabo gure parkea.

## VI. ESZENA

*(Poti, Manuelen aginduak jarraituz, pote barruan sartzen da. Txispi kitarra jotzen hasten da eta Mustafa, Elena Kaskarrietarengana doa, bezero arrunt bat izango balitz bezala. Manuelek sorbalda ematen du eta parkea garbitzen jarraitzen du).*

**Mustafa** Merkea eta polita! Merkea eta polita! Eros ezazu, seño-  
ra, merkea eta polita! Zuretzat prezio berezia.

**Elena  
Kaskarrieta** Utzi pakean, morito zikin hori, nere etxean denetarik dago, eta zerbait behar badut EROSKIIn erosten dut.

**Mustafa** Merkea eta polita, zuretzat prezio berezia.

**E.K.** *(Txispiri begira).* Eta zuk ez dakizu pasodoble edo ran-  
txerarik jotzen? Hori ez da musika, katuen oihuak di-  
rudite.

**Txispi** Miau, miau.

**E.K.** Manuel, parke honek zirko bat dirudi, tximinoak falta dira bakarrik!

**Manuel** Lasai, Elena, ez da hainbesterako, eta gainera zer duzu zuk zirkoen aurka?

**Tx. Must.** Hori, hori, je, je, je.

**E.K.** Lotsagabe halakoak, zuen parrea nigar bihurtuko da. Laister lege berriaren ondorioz parketik kanpora botako zaituztete eta orduan nik barre egingo dut eta zuek negar. Agur, hau ez da horrela geldituko.

**Txispi** Bai agur, eta lasai, abestiren bat asmatuko dugu egun horretarako, buaaa... «Itsasontzi baten parke hontatik kanpora naramate eta ez dakit noraaaa».

**Mustafa** Agur ba, agur.

## VII. ESZENA

*(Elena Kaskarrieta desagertzen da eta berriro ere denak potearen inguruan elkartzen dira).*

**Manuel** Atso horrek problemak ekarriko dizkigu.

**Txispi** Poti, irten zaitez, «no hay moros en la costa».

**Mustafa** Ejem, ejem.

**Txispi** Beno, «no hay brujas a la vista».

**Poti** Ze umore txarra duen Elena Kaskarrieta honek.

**Mustafa** Umorea bakarrik ez, intentzioak ere ez dira batere onak eta adi egon beharko dugu.

*(Lasai eta solasean daudenean, ustekabea...).*

**E.K.** «Kaskarrieta al ataque», harrapatu zaituztet nitaz txarto hitzegiten eta hau zuen kontra erabiliko dut; baina zer ikusi dut hor balde barruan? Mutiko bat?

*(Hori esan bezain pronto Manuelek eskua Potiren buruan ipiniaz, barrurantz sartzen du).*

**Txispi** Zer mutiko, nik ez dut mutikorik ikusten.

**Mustafa** Nik ere ez, eta zuk, Manuel?

**Manuel** Nik mutikorik!

**E.K.** Ez nauzue engainatuko, nik ere nere kezka nituen, beti pote baten ondoan elkarturik, baina ume bat hor gorde-tzea ezinezkoa da.

*(Nerbio atake bat bezala hasten zaio eta konortea galtzera doanean, poliziarri deika hasten da).*

**E.K.** Polizia! Arren! Laguntza! Arren, polizia! aaaa...



*(Eta konortea galdu egiten du. Hirurak berarengana hurbiltzen dira eta Potik baldetik burua ateratzen du, baina sirena bat entzuten da. Polizia dirudi).*

## VIII. ESZENA

*(Kaskarrieta lurrean dago konorte barik, eta denak berarengana hurbiltzen dira. Haizea emanaz ahaleginak egiten dituzte hau esnatu dadin. Bitartean polizi bikote bat eszenatokian azaltzen da).*

- Poliziak** Nork eskatu du gure laguntza?
- Manuel** Berak, baina orain ezin dizue ezer esan, konortea galdu baitu.
- Txispi** Esnatzen ari da!
- E.K.** Uaaah, uaaah, zer gertatzen da? Zer egiten dut nik lurrean?
- Poliziak** Lasai, konortea galdu duzu!
- E.K.** Poliziak! Zer egiten dute hemen! Ez zidaten ba ezer lapurtuko!
- Poliziak** Ez, beno ez dugu uste, baina dirudienez zuk deitu duzu gure laguntza eskatuz.
- E.K.** Ez dut ezertxo ere gogoratzen...

*(Bitartean, Txispi, Manuel eta Mustafak, txistua joaz, ez dute elkarrizketan parte hartzen, eta hartzen badute Poti babesteko asmotan, noski).*

- Poliziak** Zuek lagundu dezakezue, lekukoak zarete eta; zuen testigantza behar dugu.

- Mustafa** Guk ez dugu ezer ikusi, bat batean berak konortea galdu behar zuela eta kitto.  
*(Beste biak buruarekin baieztatzen dute Mustafak esaten duena).*
- E.K.** Barkatu, baina zerbait arraroa ikusi nuen, ez dakit, ez dakit.
- Poliziak** Arraroa? Zuek zerbait arraroa ikusi al duzue?
- Txispi, Manuel, Mustafa** Ez!!
- E.K.** Bai arraroa, umm *(begiak itxiaz pentsatzen gelditzen da, eta denak berari begiratzen diote)*... Hori da! Ume bat balde barruan.
- Txispi, Manuel, eta Mustafa** *(Aurpegi arraroak ipiniaz)* Ume bat balde horren barruan!!
- Poliziak** Eztabaida hau konpontzeko era bakar bat dugu, begiratu dezagun zer dagoen balde barruan eta kitto.  
*(Poliziak baldea inguratzerakoan, Poti bertatik irteten da).*
- Poti** Ez dago zer begiratu, ni nago hemen barruan.
- E.K.** Oh, ez, ume bat balde baten barruan! *(eta berriro ere konortea galdu egiten du).*  
*(Pertsonaia guztiak figura estatiko bat eginaz gelditu dira. Poliziak harridura posturan, Manuel, Mustafa eta Txispi, buru makur, eta Poti egoerari dagokion keinuarekin).*

## IX. ESZENA

*(Poliziek Poti hartu eta epaitegiko gela batean sartu dute, epaiketak bere egoera argitu arte. Bera triste dago, eta nahiz eta gaua izan, ezin du lorik hartu).*

**Poti** Hemen nauzue, lorik hartu ezinik. Egunak oso luzeak egiten zaizkit, baina gauak luzeagoak oraindik.

Izugarrizko hutsunea sentitzen dut, lagun barik, parketik kanpo, eta gainera epaiketa baten zain, eta dena balde baten barruan jaio nintzelako, eta honen ondorioz ezberdina naizelako.

Diferentea bai, baina zoriontsua; lagun asko ditut eta ongi konpontzen gara. Manuel aita bezalakoa dut, berak janaria eta erropak ekarri eta ingurua txukun mantentzen dit. Txispik alaitu egiten nau bere abestiekin eta, denbora duenean, kitarra jotzen eta musika apur bat irakurtzen erakusten dit. Eta Mustafaren bidaiei esker mundua ezagutzen dut, beste herrien ohiturak eta itsasoz bestaldeko ipuinak.

Beno, ezin dut ahaztu nere auzokidea, Txarli. Berak babestu izan nau hainbat urtetan, eta lo edo hortik zehar egon arren, beti egon da nere ondoan behar izan dudanean.

*(Gelan zarata bat entzuten da).*

**Txarli** Miau, miau.

**Poti** Txarli!!

**Txarli** Hemen nago, Poti, zer moduz zaude?

**Poti** Baina nola sartu zara? Nola lortu duzu?

**Txarli** *(Harro-harro)* Badakizu hiri honetan zein den katurik trebeena, ezta? Ala ez?

**Poti** Je, je, trebeena eta harroena, tatxan, tatxan, Txarli!!!

**Txarli** Ejem, ejem, ez da hainbesterako.

**Poti** Kontaidazu zer gertatzen den parkean!!!

**Txarli** Parkean? Hiri guztian! Zu atxilotuta gero hiriko gende pila bat elkartu da izugarritzko manifestazioak eginaz eta zure askatasuna eskatuaz. Txispik kontzertu bat antolatu du; Mustafak izugarritzko merkadilo bat eta lortu duten diruarekin abokatu on bat izango duzu. Eta Manuel han eta hemen egon da zure egoera aurkezten.

*(Hau kontatu eta gero, eszenatokian, manifestazio bat azaltzen da, Txarli eta Potiren planotik kanpo, bezperan gertatutako filmazio bat izango balitz bezala. Poti askatu! Poti askatu! Ez, ez, ez, garbiketa kanpainarik, ez!)* (Txarli eta Potik, nahiz eta planotik kanpo egon, harriturik begiratzen dute eszena).

**Poti** Zer pasada! Benetan emozionaturik nago!

**Txarli** Bai, jendeak erantzun egin du, orain lasaitu zaitez, bihar epaiketa irabaziko dugu eta.

## X. ESZENA

*(Egun garrantzitsua iritsi da, goizean goiz, polizia biak Poti eta bere baldea harturik, epaitegira eramaten dituzte.*

*Sala handi batean, bera erdian kokatzen dute. Eskuin eta ezkerrean bi gizon ditu eta erdian mahai handi bat dago. Poti urduri dago, ez da ondo sentitzen handitasun horren inguruan. Ezkerreko gizona hurbiltzen zaio...).*

**Pedro Berriketa** Egunon, Poti!

**Poti** Egunon! Nor zara zu?

**Pedro Berriketa** Ni zure abokatua naiz. Zure lagunak kontratatu naute zu defendatzeko.

**Poti** Eta non daude eurak?

**Pedro Berriketa** Lasai! Ikusiko dituzu, hor kanpoan daude eta lekuko bezala hartuko dute parte epaiketa honetan.

*(Pedro Berriketak gizon onaren aurpegia du. Abokatu famatua da, gizon azkarra baita, baina defektu txiki bat du, totel samarra dela).*

**Poti** Beraz, eurak hemen ikusteko aukera izango dut?

**Pedro Berriketa** Bai baina, eurak ikusterakoan, egon isilik; ezin izango dituzu agurtu.

*(Polizia bat sartzen da).*

**Polizia** Isilik, jaun-andreok, epaiketa hastera doa, zuekin!!! Eustakio Erdibide Epailea!

*(Eustako Erdibidek izugarrizko miopia du eta noski, oso gutxi ikusten du. Mahai aurretik pasatzen da eta bertan norbait egongo balitz bezala agurtu egiten du:)*

**Eustakio Erdibide** Kaixo, Berriketa!

**Polizia** Jauna, hor ez dago inor, zure tokia da.

**Eustakio Erdibide** Ejen, Ejen.

**Poti** *(Pedro Berriketari)* Mozkortuta dago?

**Pedro Berriketa** Ez, keba, kontua da ez duela piperrik ere ikusten.

**Poti** Ahhh!!

*(Bitartean Mikel Salati, bere aulki aurrean tente dago, hitza hartzeko prest).*

**Eustakio Erdibide** Egunon jaun-andreok, hiria Poti umearen aurka. Has dadila akusazioa. Aurrera, Mikel Salati.

*(Hori esaterakoan Pedro Berriketari begiratzen dio eta Salati haserreturik...).*

**Mikel Salati** Barkatu jauna, baina Mikel Salati ni naiz!!

**Eustakio Erdibide** Berdin da, has zaitez!

- Mikel Salati** Bai jauna, garbiketa legeak dioenez (*eskua poltsikoan sartu eta paper bat ateratzen du*) «hiri honetan kalean bizi edo ibiltzen diren pertsona guztiak baldintza hauek bete behar dituzte:  
 –Ongi jantzitza joan behar dute.  
 –Ezin dute kalean abestu baimenik gabe.  
 –Ezin dute ezer saldu dendatik kanpo.  
 –Eskolako orduetan ezin dira kalean ibili.  
 –Ezin dute...».
- Eustakio Erdibide** Bale, bale, hainbat aldiz entzun dut legea, mesedez joan zaitez mamira.
- Mikel Salati** Argi dago legea irakurriz, gure akusatuak gauza asko ez dituela betetzen. Balde baten barruan bizi da, ez da eskolara joaten... Hau hiritik kanpo bota behar dugu.
- Poti** Hiritik kanpo!
- Eustakio Erdibide** Isildu zaitez, Berriketa, ez dizut txandarik eman.
- Pedro Berriketa** Psss. (*Potiri begiratzuz*).
- Eustakio Erdibide** Ongi da Salati; orain zure txanda da, Berriketa.
- Pedro Berriketa** Ejem. Askotan azaldu dut lege hori gehiegizkoa dela, baina utz dezagun. Egia da Poti balde batean bizi dela, baina hor jaio zen, zu miope edo ni hitz-totel bezala. Egia da ez dela eskolara joaten, baina horrela joango balitz, umeez onartuko lukete?
- Bestalde, Parkeko lagunek irakurtzen eta idazten erakutsi diote, eta musika eta hainbat gauza. Bera zoriontsu bizi da eta hori ez da inorentzako kaltegarria, pentsatzen dut nik. Inportanteena baizik!!!
- Eustakio Erdibide** Hori proba dezakezu?
- Pedro Berriketa** Bai, aurrera.
- (*Epaitokian Txispi, Mustafa eta Manuel azaltzen dira.*)

- Eustakio Erdibide** Zuek egiaztatu dezakezue Berriketak esan duena?
- Txispi, Mustafa eta Manuel** Bai!!
- Eustakio Erdibide** Beno, nere gelara noa erabaki bat hartzera. Bost minutuko atsedenaldia duzue.
- (Epailea gelatik irtetzerakoan, Txispi, Mustafa eta Manuel Potirengana hurbiltzen dira. M.B. eta P.S. alboko geletara joaten dira atsedena hartzera eta azkenengo estrategia prestatzera).*
- Poti** Kaixo, zuek ikusteko izugarrizko gogoia nuen.
- Txispi** Guk ere bai zu ikusteko. Zer moduz zaude?
- Poti** Oso urduri, ez dut parkea utzi nahi, baina dena dela epaileak tipo jatorra dirudi.
- Mustafa** Bai, eta hala da, jendearen manifestazioen ondorioz ez dira ausartu epaile gogor bat ipintzera.
- Manuel** Eta ez da hori bakarrik, kalean komentatzen da «garbiketa» plana bertan behera utzi behar dutela.
- (Momentu horretan polizia azaltzen da).*
- Polizia** Jaun-andreok, bakoitza bere tokira. Epaiaketak jarraitzen du.
- (Hori esanda, Pedro Berriketa eta Mikel Salati gelan azaltzen dira eta berehala epailea. Txispi, Mustafa eta Manuel-ek albo batera alde egiten dute).*
- Eustakio Erdibide** Beno, baina non sartu da jendea?
- Polizia** Hemen gaude denok, jauna?
- Eustakio Erdibide** Je, je, je, txiste bat besterik ez da izan. Beno alde biak esan duzuen kontutan harturik, erabakia hau da: Poti kargu guztietatik libre gelditzea.

- Txispi, Mustafa eta Manuel** Yupi, ongi, oso ongi, irabazi dugu.
- Mikel Salati** Baina, jauna, eta legea? Legea bete behar dugu!
- Eustakio Erdibide** Lasai Salati, oraintxe bertan deitu didate telefonoz legeak bere balioa galdu duela esanez.
- Mikel Salati** Eh!!!
- Pedro Berriketa** Ordua zen, hiria aspergarri bihurtzen ari zen eta.
- Eustakio Erdibide** Hau ez da dena. Epaile honek ume honen kustodia edo zaintzaile ofizial bat eskatzen du, berak behar dituen gauza guztiak eduki ditzan.
- (Pedro Berriketa hiru lagunekin elkartzen da eta epailearengana hurbildu).*
- Pedro Berriketa** Jauna, hirurak daude prest.
- Mikel Salati** Hirurak? Ez da posible!
- Eustakio Erdibide** Isildu zaitez, horren aurka ez dago legerik eta! Onartua dago.
- (Poliki-poliki eszenatokiko argiak emendatzen doaz. Argiak eszenatokira bueltatzen direnean, parkea pil-pilean ikusten da. Gure pertsonaiak bertan ikusten dira betiko gauzak egiten. Bapatean telebistako aurkezle bat azaltzen da).*

## XI. ESZENA

- Iñigo Saltsa** Kaixo ikus-entzuleok, zuekin Iñigo Saltsa, zuei hainbeste gustatzen saizuen Saltsa Plasta programarekin. Azken albisteak zuzenean zuei hurbildu nahian.
- Aste honetako pertsonaia Poti dugu. Pertsonaia honek aste honetan hiri guztiaren atentzioa jaso du.
- Iñigo Saltsa** Kaixo, Poti!



- Poti** Oso luzea izango da?
- Iñigo Saltsa** Ez mutil, lasai zaitez. Nola etorri zinen parke honetara?
- Poti** Ez dakit. Horrela etorri nintzen eta toki honetan utzi ninduten.
- Iñigo Saltsa** Balde baten barruan?
- Poti** Bai, hala da.
- Iñigo Saltsa** Eta nork lagundu zintuen?
- Poti** Manuelek, Txispik eta Mustafak. (*Satisfakzio aurpegia ipiniz*).
- Iñigo Saltsa** Ez zenuke bizi nahi beste toki batean?
- Poti** Ez, toki hau maite dut eta bertan bizi den jendea gehiago.
- Iñigo Saltsa** Baina hemen ez duzu jostailurik, ez telebistarik...?
- Poti** Ez ditut behar, hemen ez dago aspertzeko denborarik.
- Iñigo Saltsa** Baina...
- Manuel** Nahikoa da, utzi pakean mutikoa.
- Iñigo Saltsa** Baina...

## XII. ESZENA

*(Bitartean, Txispi eta Mustafak kamara eta soinu laguntzailea eszenatik kanpo botatzen dituzte. Batera, eszenatik argiak itzaltzen doaz, berriro pizten dira).*

- Txarli** Uaaah, esnatzeko ordua, miau.
- Benetan egun pozgarriak hirian izan ditugunak. Etxeetan jendea lasaiago dago eta parkean zer esanik ez. Egu-

nero jendez betetzen da, mutikoak, saltzaileak, ikusleak, beno, badakizue gauzak modan ipintzen direnean nola-koak izaten diren.

Poti ez dute pakean lagatzen, egunero kazetari pila bat etortzen da elkarrizketak egitera; eta benetan, aspergarriak dira. Bera apur bat kezkatuta dago, baina lasaitu dugu, denborarekin gauzak bere tokira itzuliko bait dira.

Ondorio onak ere eduki ditu eta hiriko kaleak galdu zuten alaitasuna berreskuratu dute, eta garrantzitsuena, jendeak bera bezelakoak ez direnak hobeto onartzen ditu.

Miau, gorputza mugitzera noa, eta etxeetan kontatzen diren ipuinak entzutera, ...miau. AGUR.

# **PRINTZE ZORIONTSUA**

OHOko 8. mailako ikasleek  
M. Maritxalarren ardurapean egokitua  
Arantzazuko Ama ikastola  
Donostia 1990



## PERTSONAIAK

2 Kalegarbitzaile	Ama
Alkatea	Enara
Entzulegoa	Printzea
Zinegotziak	Andra-gizonak
2 mozkor	Ornitologoa
Maisua	Idazlea
Ikasleak	Poxpolo saltzailea
Umea	

### I. AGERRALDIA

*(Antzeztokia ilunpetan dago. Ikuslegoaren artetik bi kalegarbitzaileak agertzen dira, jende guztia garbituz eta dena zein zikina dagoen kexatuz. Antzeztokira igotzen direnean, hau pixkanaka-pixkanaka argituz doa. Herriko plazan gaude. Bi edo hiru etxe. Hauetako baten hormatik faroltxo bat zintzilik. Antzeztokiko izkina batean, atzekaldean, oihal beltzez estalitako bulto handi bat; printze zoriontsuaren estatua da. Urrezko trajeaz jantzitako manikia. Bisuteriazko bitxiak begietan eta ezpata kirtenean).*

**2. kalegarb.** Zein zikina dagoen dena!

**1. kalegarb.** Bai horixe!

2. kalegarb. Gezurra dirudi. Jendea gero eta narratsagoa da.
1. kalegarb. Bai horixe!
2. kalegarb. Demontre! Eta hau, zer da? (*Antzeztokiko lurrean, enararen itxura duen txontxongiloa aurkitu du*).
1. kalegarb. Ene! Gaixoa!
2. kalegarb. Ez dut ulertzen, zer gertatu ote da?
1. kalegarb. Hotzak hilko zen, baina zein arraroa!
2. kalegarb. Begira! Zer da hau? Berunezko bihotza dirudi.
1. kalegarb. Eta erdibituta dago!
- (*Bakoitzak eskuan duen zatiari begiratzen dio, gero oso tristeturik elkarri begiratzen diote*).
1. kalegarb. Badakizu zer?
2. kalegarb. Bai, bihotz zatitu hau eta enara hau ezin daitezke zakkarrontzira joan.
1. kalegarb. Hori da! Leku egoki bat bila diezaiegun.
2. kalegarb. Goazen, zerbait aurkituko dugu... Zer gertatu ote da?

## II. AGERRALDIA

(*Kalegarbitzaileak desagertzen dira. Pixkanaka, poliki-poliki, paseatuz, agertzen dira hiru andra-gizon bikoteak, zinegotziak eta alkatea. Behin baino gehiagotan gurutzatzen dira, erritmoa mantenduz eta elkarri agur eginez; denak batera, hitz berdinak esanez: «Kaixo! Egunon! Zer moduz? Oso ondo, eta zuek?». Gelditzen direnean, denak batera, jendetza txiki bat osatzen dute estatuaren aurrean. Alkatea, beraien aurrean hitz egiteko prestatzen da).*

- Alkatea** Hiritar maiteok: hemen gaude, hiri honen historiaren pertsonaiarik handienetariko bati omenaldia eskaintzeko (*manikia desestaliz*): Printze Zoriontsua da!
- Entzulegoa** (*Txalotuz*) Brabo! Gora Printze Zoriontsua! Zein estatua polita!
- Alkatea** Berak itxuratzen du gure hiriaren zoriona eta ongizatea.
- Entzulegoa** Brabo! Oso ondo! Egia da!
- Alkatea** Horregatik eskatzen dizuet txalo bat gure printzearentzat.
- Entzulegoa** (*Bortizki txalotuz*) Gora Printze Zoriontsua! Gora alkatea! (*Andra-gizon bikoteak erretirutzen dira. Alkatea eta hiru zinegotziak bakarrik gelditzen dira antzeztokian*).

### III. AGERRALDIA

- Alkatea** (*Estatua gehiegikeriaz miretsiz*) Nolako estatua!
- Zinegotziak** Ene! Nolako estatua!
- Alkatea** Ez nik diodalako baina, zein printze ederra!
- Zinegotziak** Ene! Zein printze ederra!
- Alkatea** Zera bezain polita da (*ahalegin handiak eginez, pentsatuz edertasunean zerekin konpara daiteken printzea*)... haizeorratza bezain polita.
- Zinegotziak** (*Beraien artean*) Haizeorratz bat bezain polita? Haizeorratza esan al du?
- Alkatea** (*Behar bada hanka sartu duela konturatuz, filosofo aurpegia ipiniz, eta gizon praktikoarena aldi berean*) Ez hain baliagarria, noski.
- Zinegotziak** (*Arnasa hartuz eta lasaituz*) Ah! Ez hain baliagarria. (*Kontzejalak eta alkatea badoaz. Mozkorrak agertzen dira*)

*oso pobreki jantzirik. Balantzaka, eta ibiltzeko batak bestearengan sostengu hartuz).*

#### IV. AGERRALDIA

1. **mozkorra** (*Estatuaren aurrean geldituz*) Ikusten duzu? Hau da (*hip*) estatua!
2. **mozkorra** (*Estatuaren alde bietako hutsuneak tanteatuz*) Bietatik (*hip*)tik zein?
1. **mozkorra** (*Bestearen eskua statuaren sabelera gidatuz*) (*hip*)er... (*hip*)erdikoa!
2. **mozkorra** Oso polita!
1. **mozkorra** (*Printze Zoriontsuari erreberentzia dorpea eginaz*) Printze zoriontsu jauna: hona hemen lagun bat. Nikasio, hona hemen Printze Zoriontsua.
2. **mozkorra** (*Ahal duen bezala eskua emanaz*) Asko poztutzen naiz zu ezagutzeaz (*hip*).
1. **mozkorra** Badakizu? (*hip*)Asko poztutzen naiz (*hip*) mundu zik (*hip*)kin honetan gutxienez bat (*hip*) zoriontsu izateaz.
2. **mozkorra** Bai (*hip*) arrazoi guztia duzu (*zalantzazko pausoz joanaz maisua eta lau ikasle agertzen diren unean*).

#### V. AGERRALDIA

- Maisua** Nexkak! Begira ondo! Zuen aurrean duzue estatuarik miragarriena. Printze Zoriontsuaren estatua.
1. **ikaslea** Zein ederra den!
2. **ikaslea** Zer aurpegi polita.
3. **ikaslea** Aingeru baten antza du.



- 4. ikaslea** Egia da, aingeru bat dirudi!
- Maisua** Nola esan dezakezue aingeru bat dirudiela ez baduzue inoiz bat ere ikusi?
- 3. ikaslea** Bai, ikusi dugu.
- 1. ikaslea** Gure ametsetan ikusi dugu.
- 2. ikaslea** Bai! Eta Printze Zoriontsua bezain ederra zen.
- Maisua** (*Kopeta zimurtuz*) Hori ez dago ondo, ez jauna, amets egitea ez da ona, batere ona ez. Ez nadila ni enteratu maiz amets egiten duzuenik, e? Horixe faltako litzateke. Amets egiten duen haurrari, burua txoriz betetzen zaio...!
- 1. ikaslea** Txoriz?
- 2. 4. ikasleak** Txoriz! (*Ikaraturik*).
- 3. ikaslea** Hori bezalakoa? (*Etxeetako teilatuen artean agertzen den txontxongilo-enara seinalatuz*).
- Maisua** Hori bezalakoa. Eta handiagoak! Eta gaiztoagoak! Beraz, ez nadila ni enteratu ametsak egiten dituzuela berriro.
- Ikasleak** (*Elkarri begiratzuz, erdi izaturik, erdi lotsaturik*) Ez jauna!

## VI. AGERRALDIA

(*Maisua aurretik eta ikasleak atzetik badoaz estatuari azken begirada botaz. Gaua sartzen ari da. Argia gutxitu egiten da antzeztokian; eta etxeetako teilatuen gainetik ilargia agertzen da irripartsu. Zilarreztatua eta txuria. Neska txiki bat agertzen da bere amarekin. Umea muxinka dator eta estatua parera iristen denean bere burua lurrera botatzen du eta hankaotsaka hasten da*).



Zein gauza arraroa! Zeruan ez dago laino bat bera ere, izarrak argitsu eta disdiratsu daude, baina euria egiten ari behar du, zeren tanta bat erori zaidala zin egingo nuke. (*Burua hegoaren azpian sartzen du berriro, bapatean ateratzeko*) Ai! Beste tanta bat. Egia esan Europako iparraldeko klima izugarria da. (*Haserre, hegoa zabaltzen du euria ari duen ikusteko*) Zer arraroa. (*Nagiak ateratzen ditu eta Printze Zoriontsuarengana doa hegaz; bere atzetik desagertzen da eta berriro txontxongiloa agertzen*). Bah... Zertarako balio du estatua batek euriaz babesteko gai ez bada. Tximinia on bat bilatu beharko dut. (*Printzearen aurpegira hurbilduz*). Oso ederra zara bai, estatua, baina erabat alferrikakoa. Lastima!... Kontxo! Euria ez da eta; malkoak dira! (*Isilunea, enara guztiz kupiturik*) Aizu, barkatu lehen esanak. Nor zara zu?

**Printzea**

Printze Zoriontsua naiz.

**Enara**

Printze zoriontsua? Eta zoriontsua bazara zergatik egiten duzu negar? Blai egin nauzu!

## VIII. AGERRALDIA

**Printzea**

Entzun, ni bizirik nengoenean eta giza bihotza neukanean ez nekien zer ziren malkoak. Kezkarik gabe bizi nintzen. (*Musika alai; parrezka, itsu-itsuka jolastuz, hiru dama eta hiru gizonezko agertzen dira*). Nere jauregian, tristurak sarrera debekatuta zeukan. Egunez nere lagunarekin jolasean eta jolasean ibiltzen nintzen. Eta gaez dantzaldia zabaltzen nuen areto nagusian. (*Damak eta gizonezkoak dantzan hasten dira, oso alai*). Lorategia harresi altu batez inguraturik zegoen. Nere inguruan zegoen guztia hain ederra zenez, ez nuen inoiz sentitu kanpoan gertatzen zenaz galdetzeko gogorik.

**Enara**

Eta zoriontsu al zinen?

**Printzea**

Atsegina zoriona bada, bai. Ni egiazko printze zoriontsua nintzen. Gauza da horrela bizi eta horrela hil nintzela. Eta orain, hilik nagoenean, hemen goian ipini

naute; nere herriaren miseria eta itsusikeria ikus dezakedan leku altu honetan. Eta nahiz eta nere bihotza berunezkoa izan, negarra irteten zait.

*(Damek eta gizonezkoek dantza bukatzen dute eta parrezka urruntzen dira).*

**Enara** Nola? Zure bihotza berunezkoa? Ez al zara ba urrezkoa?

**Printzea** Ez enaratxoa, ez naiz guztiz urrezkoa, eta nere bihotza kuzkurtu egiten da ikusten duenaz.

## IX. AGERRALDIA

**Enara** Eta zer gauza ikusten dituzu?

**Printzea** Tristuraz betetzen nauten gauzak. Adibidez, han urruti, oso urruti, kalezka batean, etxetxo bat. Leiho bat zabalik dago; eta leiho horretatik emakume bat eserita ikus dezaket. *(Antzeztokiaren bazter batean emakumea agertzen da)* Aurpegia zurbil eta nekatuta dauka; eta eskuak urratuta, orratzuloz beterik ditu.

**Enara** Jostuna al da?

**Printzea** Bai, rasoizko soineko bat josten ari da, Gorteko dama handienetariko batek eramango duena.

**Enara** Zer gehiago ikusten duzu? *(Mutila agertzen da).*

**Printzea** Bere semea ikusten dut, gaisorik dago, bere aldamenean etzanda, sukarra du eta laranjak eskatzen dizkio.

**Enara** Eta zergatik ez dizkio ematen?

**Printzea** Emakumea hain pobrea denez, ibaiko ura besterik ezin dio eman.

**Umea** Ama, egarriz nago.

- Ama**                    *(Desesperaturik)* Bai seme bai, soinekoa amaitzen dudanean, laranja erosiko dizkizut. Eta egurra, eta esnea. *(Kopeta laztantzen dio. Umea dardarka dago. Pixka bat kexatzen da).*
- Umea**                    Erre egingo naiz ama, egarriz nago.
- Ama**                    Eta esnea, eta laranja asko, eta sendatuko zara...
- Printzea**                Hain gaisorik dago... Enara, enaratxoa, ez al diozu eraman nahi nere ezpata kirtenak daukan errubia? Nere oinak lotuta daude eta ezin dut mugitu.
- Enara**                    *(Alferkeriaz)* Begira Printze, nik... eee... Egipton nere zain daude. *(Dekoratuan dagoen etxe txuri batean diapositibak ikusten dira enarak aurkeztutako gaiak: Egipto, Nilo ibaia, loto loreak, faraonen hilobia...)* Nere lagunak, denbora asko da Nilo ibaian gora eta Nilo ibaian behera hegan dabilzala; eta loto loreekin hitzegiten dute. Lais-ter Errege Handiaren hilobira joango dira lotara. Erregea han dago, momifikatuta, bitxi ederrez inguraturik. Bere eskuak orbela bezalakoak dira.
- Printzea**                Enara, enaratxoa, ez duzu gaur gauean hemen gelditu eta nere mezularia izan nahi? Umea hain egarriz dago...! *(Umea kexatu egiten da).* Hain triste dago ama!
- Enara**                    Niri umeak ez zaizkit gehiegi atsegin. Joan zen udan, bi astakirtenek ia hil ninduten harrikada batez. *(Printzea negarrez)* Ondo da; ez negarrik egin; hotz haundia egin arren, gaur gauean zurekin geldituko naiz eta zure mezularia izango.
- Printzea**                Eskerrik asko! Har ezazu ezpata kirtenak daukan errubia eta eraman iezaiozu agudo jostunari.
- Enara**                    Banoaaaaaa...! *(Lehen bezala, txontxongiloa desagertzen da eta neska-enara agertzen da. Errubia hartzen du eta hegan hasten da geldiro-geldiro. Antzeztokia zeharkatzen du eta erdiparean gelditu egiten da; han Gorteko dama*

*nagusia eta gizonezkoa daude. Oso jarrera erromantikoan daude).*

## X. AGERRALDIA

1. **gizonezkoa** ( )
2. **dama** ( ) Zer gau ederra!
1. **gizonezkoa** Izarrak zoragarriak dira!
1. **dama** Gorteko dantzaldirako soinekoa garaiz bukatuko al du? Jostun hauek hain alferrak dira!
1. **gizonezkoa** Ez kezkatu. Garaiz egongo da, seguru.  
*(Enarak elkarrizketa gaitzetsi egiten du; eta bere bidea jarraitzen du jostunarengana iritsi arte. Emakumea lo dago bere lanaren gainean, oso nekatuta dago eta. Enarak errubia mahai gainean uzten du eta, bere hegoaz umearen kopeta izerditsuari haizea eman ondoren, joan egiten da).*

## XI. AGERRALDIA

- Umea** Zein fresko sentitzen naizen! Hobeto egongo naiz! Amaa...
- Ama** Zer seme... baina, zer da hau? *(Errubia hartzen du)* Mirari bat! Mirari bat! *(Fokoak argitzeari uzten diotenean, antzeztokitik irteten dira. Bien bitartean enara estatuaren ondora itzultzen da).*
- Enara** Lana egina da, Printze.
- Printzea** Eskerrik asko, enaratxoa.
- Enara** Ez da ezergatik. Badakizu? Hau egin ondoren, hotz haundia egin arren, oso bero sentitzen naiz.
- Printzea** Norbait zoriontsu egin duzulako izango da.

**Enara** Esan duzunak inportantea dirudi; baina orain ez dut horretan pentsatu nahi; pentsatzeak logura ematen dit.

*(Printzearen oinetan etzaten da eta burua hegopean sartzen du berehala berriro ateratzeko) Gabon Printze! (Ahoa zabaltzen du eta lo hartzen du erabat).*

**Printzea** Ondo lo egin enaratxo!

## XII. AGERRALDIA

*(Egunsentia, argi gehiago antzeztokian. Gizon zahar bat despistatu aurpegiaz agertzen da. Liburu asko darama. Betaurrekoduna, ile zuria eta burusoila. Distrakturik dabil. Bapatean enara ikusten du. Paseatuz doan andra-gizon bikote bat berari entzuten gelditzen da).*

**Ornitologoa** Kontxo! Hau fenomeno harrigarria! Nabarmena! Apartekoa! Kurioso! *(Begira eta begira alde batetik eta bestetik).*

**Gizonezkoa** Zer da?

**Dama** Zer gertatzen da?

**Ornitologoa** Sinezgaitza da! Enara bat!

**Gizonezkoa** Hau lelokeria!

**Dama** Edozeinek esango luke ez duela bere bizi guztian enara bat ikusi!

**Ornitologoa** Enara bat neguan! *(Dama eta gizonezkoa joan egiten dira, garrantzirik eman gabe, eta ornitologoak daraman bidearen kontrakoan desagertzen dira. Ornitologoa guztiz bertuta doa aurkikuntzagatik. Denak desagertzen dira. Enara oso umore txarrean esnatzen da)* Miresgarria! Kasu bakarra da! Artikulu bat idatzi behar dut azkar bertako prentsan.

### XIII. AGERRALDIA

- Enara** Horiek garrasiak, horiek! (*Desagertzen da une batez, enara txontxongilo bihurtuz*) Gaur egun katedratikoeak ere ez dute edukaziorik.
- Printzea** Egunon, enara!
- Enara** E? Bai, bai. Egunon Printze, barkatu; inork eta ezerk ez nau umore txarrean jarriko, ez dut ametituko. Gaur gauetan Egiptora noa. Egiptora noaaa...!
- Printzea** Esan, enaratxo: nolatan zoaz hain berandu? Badira gutxienez sei aste zure lagunak pasa zirela.
- Enara** Begira, Printze... (*lotsatuta*) iherik ederrenez maitemindu nintzen. (*Itzal antzerkiaren teknikaz istorioa kontatu*).
- Printzea** Ah, bai? Hitzegin horretaz?
- Enara** (*Amesti*) Udaberri hasieran ezagutu nuen (*musika xua-bea*) tximeleta urdin baten atzetik, errekan beherantz nindoala (*Itzal teknikaren bidez adierazten da*). Han zegoen bera. Berehala atsegin gertatu zitzaidan eta, niri gustatzen zaidan bezala, zuzen galdetu nion: «Nere senargaia izan nahi al duzu?».
- Printzea** Eta zer erantzun zuen?
- Enara** Baietz esan zidan erreberentzia haundi bat eginez.
- Printzea** Eta zuk ser egin zenuen, enaratxo?
- Enara** Pozez ia zoratu nintzen. Bere inguruan hegan nenbilan; nere heguez ura ia ikutuz; zeren, badakizu? Gure kortejatzeko modua hori da.
- Printzea** Zoriontsu al zinen?
- Enara** Bai horixe! Gure zorionak uda osoa iraun zuen, nere lagunak gaizki ikusi arren.
- Printzea** Gaizki ikusten zutela?



- Enara** Gure erlazioa ridikuloa zela zioten.
- Printzea** Eta hori, zergatik?
- Enara** Diru gutxi eta ahaide asko zituela esaten zuten. Zuk uste duzu gure arteko maitasuna ridikuloa zela?
- Printzea** Ez, enaratxoa, ez. Ez dago maitasun ridikulorik; baina jarraitu kontatzen zer gertatu zen.
- Enara** Udazkena iritsi zen. Nere lagun guztiak joanak ziren eta, oso maintemindurik jarraitu arren, bakarrik sentitzen nintzen: berak ez zuen hitzik eta oso etxekoa zen; neri alderantziz, bidaiak asko atsegin zaizkit, eta gainera hotza egiten hasi zuen. Beraz...
- Printzea** Beraz... joan egin zinen.
- Enara** Bai, joan egin nintzen. Egipto nere zain dago. Bihar, nere lagunek bigarren urjauzirantz egingo dute hegan. Hipopotamoa han etzaten da, kainabera artean; eta Mennon jainkoak bere harrizko trono handia betetzen. Gau guztian izarrak kontenplatu ditu, eta egunsentiko argia irtetzen denean, oihu alai bat botatzen du eta gero ixildu egiten da. (*Enara-neska bihurtuz*) Egiptora noaaaaa...!
- Printzea** Enara, enaratxo, oso urrun, hiriaren beste aldean, gazte bat teilatupe batean ikusten dut. (*Gaztea agertzen da. Printzeak adierazten duen eran, pertsonaiak antzeztu egiten du*).

#### XIV. AGERRALDIA

- Enara** Egipton ez du hotzik egiten. Eguerdialdean lehoiak ibai ertzera joaten dira edatera. Bere begiek esmeraldak dirudite eta bere orrua kataraten hotsa baino haundiagoa da.
- Printzea** Gaztea, paperez estaliriko edaritegi batean makurturik dago; bere ondoan, ontzi batean, bioleta sorta bat zimel-

duta dago. Bere ilea beltza da, eta begiak haundiak eta ameslariak. Bere obra bukatzeko ahaleginak egiten ari da antzerki zuzendariarentzat, baina hotzak akabatzen dago idazten jarraitzeko. Tximinian ez dago surik eta goseak erabat ahuldurik dauka.

**Enara** Ondo da. Gau bat gehiago geldituko naiz zurekin. Beste errubi bat eramatea nahi al duzu?

**Printzea** Gaixoa ni! Ez dut gehiagorik. Nere begiak dira gelditzen zaidan guztia. Oso zafiro arraroak dira, Indiatik ekarriak orain dela 1000 urte. Bat ken iezadazu eta idazleari eraman iezaiozu. Bitxigileari salduko dio eta horrela egurra erosi eta bere obra bukatu ahal izango du.

**Enara** Printze maitea, (*negarrez*) ezin dezaket egin eskatzen didazuna.

**Printzea** Enara, enaratxoa, ea, egin ezazu agintzen dizudana. Har ezazu nere begi bat eta eraman gazteari! (*Enarak obeditzen du, oso triste; zafiroa mokoan duela hegan hasten da idazlearenganatz. Honek, burua eskuartean dauka. Enarak zafiroa uzten dio*).

**Idazlea** (*Zafiroa aurkituz*) O! Ez da posible! Hau poza! Norbaitek nigan sinesten du eta bitxi hau bidaltzen dit nere obra buka dezadan. (*Zafiroarekin joaten da*).

## XV. AGERRALDIA

**Enara** (*Printzearen ondora itzuliz*). Bihar Egiptora noa. Egiptora noa! (*Gaua eta egunsentia gero. Neska-enara txontxongilo bihurtzen da*). Egunon printze. Banoa... agur esan behar dizut.

**Printzea** Enara, enaratxoa, ez al duzu geratu nahi nerekin beste gau bat?

**Enara** Dagoeneko neguan gaude; laister elurra etorriko da. Egipton eguzkiak palmera berdeak berotzen ditu eta ko-

kodriloeak, lokatzetan etzanik, mundua nagiki begiratzen dute.

*(Diapositibak gaiari buruz).*

**Printzea**

Hemen bertan, plazan, poxpolo saltzaile bat dago. *(Poxpolo saltzailea azaltzen da eta hitzak antzezten ditu)* Hezetasunak eta hotzak izorratu dituzte eta inork ez dizkio erosi nahi.

## XVI. AGERRALDIA

*(Poxpolo saltzailearen beste aldetik andra-gizon bikote bat dator, plazan).*

**Poxpolo saltzailea**

Poxpoloak! Eros itzazu, gizona! *(Gizonezkoari aurre egin ez).*

**Dama**

Zergatik ez, maitea? Poxpoloak edukitzea ez da behin ere gaizki etortzen.

**Gizonezkoa**

Ondo da, txiki! Zenbatean dira?

**Poxpolo saltzailea**

Bosna pezeta kaxa, jauna.

**Gizonezkoa**

Bat eman iezadazu. *(Dirua ematen dio).*

**Poxpolo saltzailea**

Hemen duzu, jauna. *(Poxpoloak ematen dizkio).*

**Dama**

Poxpolo bat piztu ezazu, ez ote dira hondatuta egongo!

**Gizonezkoa**

*(Pizten ahaleginduz).* Hau timo bat da. Ez dira pizten. *(Poxpolo saltzailea mehatxatuz).* Gezurtitxo bat zara.

**Dama**

Pizten ez diren poxpoloak saltzen dituzu.

**Gizonezkoa**

*(Poxpoloak lurrera botaz).* Itzul iezadazu nere dirua. *(Eskuetatik kentzen dio eta joaten dira. Saltzailea bakarrik*

*gelditzen da, oso triste, poxpoloei begira, belaunikatzen da eta negarrez hasten da).*

## XVII. AGERRALDIA

**Printzea** Txikia negarrez ari da; dirurik ez badu etxera eramaten, bere aitak jo egingo du eta.

**Enara** Nere lagunak, tenplo handian ari dira bere kabiak egiten. Utzi behar zaitut; ez zaitut inoiz ahaztuko, printze. Eta hurrengo udaberrian bi bitxi zoragarri ekarriko dizkizut faraonen hilobietatik, erregalatu dituzunak ordezkara ditzazun.

**Printzea** Hankutsik dago, eta burua estali gabe dauka, dagoen hotzarekin! Eta negarrez ari da. Mesedez, enara, enaratxo, ken iezadazu beste begia eta eraman iezaiozu!

**Enara** Ondo da: beste gau bat geldituko naiz, baina ezin dizut beste begia kendu. Itsu geldituko zinateke!

**Printzea** Enara, enaratxo, egin ezazu nik esana; horrela neskak ez du hotzik pasako. Horrela ez du aitak joko.

**Enara** *(Negarrez)* Ez, printze. Ezin dut egin. *(Berriro neska-enara bihurtzen da, argia neskari. Hau lo dago, poxpoloz inguraturik izkina batean).*

## XVIII. AGERRALDIA

*(Zazpi sugar azaltzen dira dantza eginez poxpolo saltzailearen ondoan. Neskak amets egiten du esnatzen dela eta beraiekin dantzan egiten duela. Dantza bukatzen duenean neska egiatan esnatzen da. Eztulka dago eta negarrez berriro. Enarak, hau ikusirik, beste begia kentzen dio printzeari eta saltzaileari eramaten).*

## XIX. AGERRALDIA

**Poxpolo  
saltzailea**

Zein kristal polita! Aitari eramaten badiot, poxpoloak ez saltzea barkatuko dit. Zein ondo!

*(Desagertzen da eta enara printzearengana itzultzen da).*

## XX. AGERRALDIA

**Printzea**

Eskerrik asko, enara; orain joan egin behar duzu. Egipto zure zain dago.

**Enara**

Orain, itsu zaudela, ezin zaitut abandonatu.

**Printzea**

Ez, ez, gero eta hotz haundiagoa egiten du. Joan egin behar duzu.

**Enara**

Esan dut ez zaitudala bakarrik utziko eta nahikoa da. Gabon, printze. *(Printzearen oinetan etzaten da eta lo gelditzen da).*

**Printzea**

Gabon, enaratxo.  
*(Lo hartzen dute eta berriro argitzen du).*

**Enara**

*(Aharrauskia)* Uuuhhhh! Zein ondo egin dudan lo! *(he-goak eten gabe mugituz, hotzak ez egoteko).*

**Printzea**

Egunon! Hotzak al zaude, enaratxo?

**Enara**

Bai, baina ez zaitetz kezkatu, printze. *(Berriro itxuraldaketa).* Hotza ahaztuko dut lurralde beroetako istorioak kontatzen uzten badidazu.

**Printzea**

Pozik entzungo dizut, enaratxo.

**Enara**

Aurrera orduan! Zeren puska baterako roiloa badut eta. Egia esan ez dakit nondik hasi. Alde batetik esfingea dago: mundua bezain zaharra, basamortuan bizi dena eta dena dakiena; eta merkatariak, bere gameluen ondoan geldiro-geldiro ibiltzen direnak, eta eskuetan... ez dakizula zer duten eskuetan?

- Printzea** Ez enaratxo, ez; zer dute eskuetan?
- Enara** Ba... behatzak, printze. (*Parrez. Printzea ere bai*); zer bestela? Eta ilargiaren mendietako erregea, ikatza bezain beltza; eta suge berde haundia, palmera batean lo egiten duena; eta pigmeoak; ba al dakizu zer diren pigmeoak?
- Printzea** Ez, enaratxo, ez dakit. Zer dira?
- Enara** Oso gizon txikiak dira, tximeletak domestikatzen dakitenak eta...
- Printzea** Enara maitea, istorio miresgarriak kontatzen dizkidazu, baina munduko miesteriorik handiena ezezaguna duzu.
- Enara** Zein da, printze?
- Printzea** Miseria. Gizon-emakumeen sufrimendua. Zergatik ez zara nere hiriaren gainean hegan ibiltzen eta niri kontatzen ikusten duzuna?
- Enara** Nahi duzuna, printze. (*Itxuraldaketa. Enararen ibilbidean, orain arteko pertsonaia gehienak azaltzen dira. Aberatsak parrez doaz. Pobreak eta eskaleak hotzak kuzkurtuta eta fantasmak bezala. Enara printzearengana itzultzen da*).
- Printzea** Esan, enaratxoa, zer ikusi duzu? (*Itxuraldaketa*).
- Enara** Hiriaren gainean hegan ibili naiz eta aberatsak ikusi ditut dibertitzen bere etxe ederretan, eskaleak bere atean kuzkurtzen diren bitartean. Kale ilunetan egin dut hegan eta haur gosetiak ikusi ditut erabat hozmindurik.
- Printzea** Enara, enaratxoa, begira nazazu ondo: urre puruz estalirik nago. Orriz orri askatu behar duzu eta zorigabeei eman behar diezu. Gizakumeek uste dute urreak zoriontsu egin ditzakeela.
- Enara** (*Itxuraldatuz eta obedituz*) Esaten duzun bezala, printze. (*Argirik ez. Gero, argia etortzen denean, printzea bere urrezko jantzirik gabe azaltzen da. Enara bere oinetan kuzkurtuta dago, hozminduta*).

**Printzea** Enara, enaratxo, hotzak nago. Laister elurak txuriz margotuko du hiri guztia. Joan egin behar duzu. Denbora gehiegi gelditu zara nerekin. (*Hau esaten duen bitartean, enarak hegoak astintzen ditu indarrez hotzak dagoelako, baina ez da kexatzen*).

## XXI. AGERRALDIA

**Enara** Bai, printze, joan egingo naiz. («*Gau Hotza*» dantzan hasten da, gaua errepresentatzen duten hiru pertsonaiarekin. Bukatzean, printzearengana hurbiltzen da). Agur, printze, muxu bat ematen utziko al didazu?

**Printzea** Bai, enaratxo, nik... ez nekien nola esan baina... maite zaitut.

**Enara** (*Printzearen aurpegiraino iritsi nahian; baina bere oinetan hilik erortzen da muxua eman baino lehen*). Agur, printze. Pena bat da ezin duzula nerekin Egiptora etorri...

**Printzea** (*Enara erori dela konturatuz*) Enara! Enaratxo! (*Negarra*).

## XXII. AGERRALDIA

(*Gau iluna antzeztokian. Hurrengo goizean alkatea eta zinegotziak azaltzen dira*).

**Alkatea** Alajainkoa!

**Zinegotziak** Alajainkoa!

**Alkatea** Hauxe itxura trauskila daukana Printze Zoriontsuak!

**Zinegotziak** Benetan trauskila!

**Alkatea** Errubia erori egin zaio ezpatatik.

**1. zinegotzia** Eta begiak desagertu egin zaizkio!

**2. zinegotzia** Eta printze itsua da daukaguna!

- 3. zinegotzia**      Eta ez dago urre arrastorik ere.
- Alkatea**              Egia esan, eskale baten antza du.
- Zinegotziak**        -Gure Printze Zoriontsuak eskale baten antza du.
- Alkatea**              (*Nazkaz*) Gainera hildako txori bat dauka oinetan.
- Zinegotziak**        Hildako txori bat!
- Alkatea**              Debekatu egin beharko genuke txoriak hiltzera hona etortzea.
- 1. zinegotzia**      Hori da!
- 2. zinegotzia**      Debekatu behar dugu.
- 3. zinegotzia**      Horrela ikasiko dute.
- Zinegotziak**        Zer egingo dugu printzearekin?
- Alkatea**              Urtzera bidaliko dugu; eta beste estatua bat ipiniko dugu. Pentsatu dut neronena ez legokeela gaizki. (*Badoaz estatuarekin eta eztabaidan*).
- Zinegotziak**        Ez, neronena! Neronena! (*Estatuaren lekuan, bihotza gelditzen da*).
- Enararen ahotsa**    Eh, printze! Ba al zatoz Egiptora!
- Printzearen ahotsa**    Zurekin nahi duzun lekura joango naiz.
- Enararen ahotsa**    Ba... goazen! Egipton, printze, bero handiak egiten ditu. Eguzkia... (*Diapositibak, Egiptokoak: basamortuko eguzki handi bati argia. Musika xuabea. Iluna*).

AMAIA



# **TXIBISTOREN ERBIA**

Ikasleak, Lukas  
Dorronsororen ardurapean  
Herri ikastetxea  
Aizarna 1988



## PERTSONAIAK

Txibisto: aita	Apaiza
Maria: ama	Maisua
Ainara: 10 urteko alaba	Jueza
Aitor: Txibistoren lagun zaharra	Ertzainak
Alkatea	Testiguak

## I. EKITALDIA

### 1. ESZENA

*(Txibisto eta Maria).*

- Txibisto** *(Txibisto etxeko aita da. Kaleko etxe batean bizi da. Leihotik begira dago bakarrizketan).* Hori duk eguraldi ederra datorrena, eguzki dizdiratsuarekin! Ez zegok haize ttantto bat ere. Ehizera joateko giro bikaina. Gauzak prestatuko dizkiat oraintxe eta banihoak.
- Maria** *(Txibistoren emaztea da. Agertuz).* Egun on!
- Txibisto** Egun on!
- Maria** Txibisto, nora zoaz horren goiz? Isilik ibili zaitez, Peru txikia lo dago eta.

- Txibisto** *(Eskopeta hartu eta Mariari begiratzen dio eta honela esaten du).* Ehizera joan behar dut. Ea zerbait harrapatzen dudan!
- Maria** Beti ehizean zabilta! Zergatik ez zara etxean gelditzen, e? e? Zergatik ez?
- Txibisto** *(Haserre eta orroaka).* Zer? Haize piska bat ere hartu beharko dugu, ba!
- Maria** *(Hau ere haserre bizian).* Nola hartuko duzu gaur haizea? Ez dago haizerik eta! *(Haur txiki baten nigarra entzuten da. Maria haserre).* Begira, orain ere zer egin duzun! Peru esnatu duzu!
- Txibisto** Ez da nere errua izan. Zurea izan da. Zu hasi zara orroaz, entzun? Niri ez bota bronkarik!
- (Peru txikiak nigarrez jarraitzen du).*
- Maria** *(Perurengana joaten da eta goxoki)* Isildu zaitez, Peru gaixoa. Zure aita tonto horrek esnatu zaituela! e? e? Baietz *(Hala ere piska batean nigarrez jarraitzen du, geroz eta mottelago, isiltzen den arte).*
- Txibisto** *(Bakarrizketan).* Beno, andreak umea isiltzen duen bitartean alde egingo zioat. Dena prestaturik zeukat. *(Alde egiteko tresnak hartzen ari dela, AINARA sartzen da).*

## 2. ESZENA

*(Txibisto eta Ainara).*

- Ainara** *(Txibistoren alabatxo. Agertuz).* Egun on, aita!
- Txibisto** Egun on! Baina, zer egiten duzu dagoeneko jaikita?
- Ainara** Ez daukat logurarik, eta gainera...
- Txibisto** Zoaz ohera, zazpirak besterik ez dira oraindik eta!

- Ainara** Olerkia ikasteko esan dit maisuak eta...
- Txibisto** Eta zergatik ez zenuen ikasi atzo?
- Ainara** Ikasi nuen, baina zuk entzutea nahi dut; ea ondo esaten dudan.
- Txibisto** Ea, ba: esan bizkor, berandutzen ari zait eta.
- Ainara** (*Olerkia antzeztuz*).

#### UDABERRIA

Loreak agertu dira  
zuhaitz adarrak edertzen.  
Txoriak kanta kantari;  
ume jendea jolasten.  
Tximeletak hegan dabiltz  
giro ona dute aurten.  
Etxe-terrazan etzanik,  
jendea eguzkia hartzen.  
Kukua: ku-ku! ku-ku! ku-ku!  
goizean goizik aritzen.

- Txibisto** Oso ondo! Tira, zoaz orain ohera!
- Ainara** Beste bat ere esan behar dizut, ordea...
- Txibisto** Beste bat...?
- Ainara** Bai, aita! Mesedez...!
- Txibisto** Esan ezazu ba, neska!
- Ainara** (*Berriro ere lehen bezala*).

#### UDAZKENA

Haizea, firin-faran,  
kale eta baserri,  
horbelak astinduaz  
zirri eta zirri;  
adarrak hausten ditu;  
jendea beldurti;

lorontziak, lurrera:  
han jo dute harri;  
leihoak, klik eta klak!,  
xixtu eta kirri;  
ume denok nigarrez,  
estu eta larri.

**Txibisto** (*Txalo egiten dio*). Zuk asmatua al da?

**Ainara** Ez. Nere lagun batek. Orain banoa lotara. Agur!

**Txibisto** Gero arte! (*Berekiko. Trasteak hartuz*). Ume demonioa!  
Noan beranduegi baino lehen. Mariak lo hartuko zian.  
(*bere gisa parrez*). Eskerrak. (*Badoa*).

### 3. ESZENA

(*Maria bakarrik*).

**Maria** (*Agertu eta bazter guztietara begira*). Txibisto! Txibisto!  
(*Haserre*) Joan egin da gainera, lotsa gutxirekin! Etxean  
lanik ez balego bezala: gela guztiak zuritzeko daude,  
aulki eta mahaiak konpondu beharrean... Larunbata  
dela? Baita neretzat ere. Hartuko nituzke nik ere pozik  
ordu batzuk libre, berak etxeko lanetan piska bat la-  
gunduko balit!... Ai, hauek gizonak.

### OIHALA

## II. EKITALDIA

(*Txibisto ehizean dabil mendian, eta beste ehiztari lagun  
batzuk hurbiltzen zaizkio, bata bestearen ondoren*).

### 1. ESZENA

(*Txibisto eta Aitor*).

**Txibisto** (*Bakarrizketan, non zer ikusiko*). Orain dela ordubete  
etorri naiz eta, ez dut ezertxo ere ikusi. Hauxe miseria!

- Aitor** *(Beste ehiztari bat da).* Eup, Txibisto! Ezer ikusten al duk?
- Txibisto** Ez eta arrastorik ere! Nor zara zu?
- Aitor** Ez al nauk ezagutzen? *(Parrez)* Ni Aitor nauk, moteil. Aizarnako ikatz-minan elkarrekin lanean ibiliak gaituk ba!
- Txibisto** Mik bai aurpegi hori...! *(Bostekoa emanaz)* Zer modu?
- Aitor** Ondo natxebilek. Eta hi?
- Txibisto** *(Algaraz)* Gaur goizean komeria ederrak izan dizkiat andrearekin; baina, ondo natxebilek. *(Biak parrez)* Haur txiki bat baduzuela enteratu nauk. Egia al duk?
- Aitor** Bai, bai. Egia duk. Badiagu muttiko bat. Igor dik izena.
- Txibisto** Ezagutuko nitek pozik!
- Txibisto** Etor hadi egun batean heure andrearekin.
- Aitor** Ikusiko diagu; ez duk gaizki esana.
- Aitor** Beno, joan beharra zeukat. Ikusi arte, Txibisto. Asko poztu nauk hi ikusteaz.
- Txibisto** Hurrena arte. Badakik non bizi garen.  
*(Badoa Aitor eta Txibisto pozik geratu da).*
- Txibisto** *(Bakarrik, alde guztietara begira).* Ez zegok ezeren arrastorik. Etxean geratu banintz ere berdintsu huen! *(Zerbait ikusten du bapatean).* Erbia duk! *(Eskopetaz apuntatu).* *(Bi tiro bota. Eman zioat! Iufi!)* *(Erbia jasotzera doa).*

## 2. ESZENA

*(Txibisto eta erretorea).*

- Erretorea** *(Agertuz. Eskopeta eskuan duela, alde guztietara begira).* *(Halako batean, Txibisto ikusten du).* Bota al duk, Txibisto?

- Txibisto**                    *(Kanpotik)*. Bai, badakart belarri-handi bat. *(Agertzen da, erbia hanketatik zintzilik dakarrela)*.
- Erretorea**                    *(Erbia ikutuz)*. Ederra erbia! Salduko al hidake? Bihar nere urteak dituk eta familian bazkari eder bat egitea nahi nitek.
- Txibisto**                    Salduko nizuke, baina, etxean ere ez da gaizki etortzen eta... Ez dakit, ba!
- Erretorea**                    Ondo pagatuko diat.
- Txibisto**                    Andrea haserretuko zait, ordea. Lehen ere ez da gozoa geratu eta.
- Erretorea**                    Mila pezetako bat emango diat.
- Txibisto**                    Tira ba! Har ezazu!
- Erretorea**                    *(Dirua emanaz)*. Hi, mesede bat egin behar didak. Nik bisita batzu egin beharra zeukat eta, eraman iezadak bihar, narrututa, etxera.
- Txibisto**                    Beno, horrenbeste egingo dizut.
- Erretorea**                    Eskerrik asko, ba! Eta bihar arte.
- Txibisto**                    *(Gustora)*. Erbia ona duk, baina milakoa ere ez duk batere txarra! *(Alde guztietara begira. Zerbait ikusi, bi tiro bota eta kale!)*. Nazkagarria!

### 3. ESZENA

*(Txibisto eta alkatea)*.

- Alkatea**                    *(Laisterka agertuz)* *(Ehizean dabil hau ere)* Zer huen, Txibisto? Bota al duk?



**Txibisto** Ezer ere ez, kale egin dut eta, alkate jauna.

**Alkatea** Erbi ederra bota duk behintzat eta ez haiz kejatuko!

**Txibisto** Bai, suertetxoa ere eduki dugu!

**Erretorea** Suertetxoa? Suerte ederra esango nikek nik.

**Txibisto** Bai, bai. Ez dago gaizki!

**Alkatea** Salduko al hidake?

**Txibisto** Zenbat pagatuko didazu?

**Alkatea** Ez zekiat, ba! Zenbat nahi duk?

**Txibisto** Mila ta bostehun pezetan ondo al dago?

**Alkatea** Beno, ez duk batere merkea baina, har ezak (*eman bie-zaio dirua*). Eraman iezadak narrututa etxera, mesedez. Orain batzar bat zeukat eta.

**Txibisto** Nere kontu!

**Alkatea** (*Abiatuz.*) Bihar arte, beraz!

**Txibisto** Bihar arte, alkate jauna! (*Berekiko, pozik*). Bi tonto horiei ederki jo zieat adarra! Diru asko irabazi diat, alazankoa! Hau ikusten duenean gure andreari haserreak aldegingo zio, horratio! Ea beste zerbait ikusten dudan orain... (*Alde guztietara begira*). Hara han nun! (*Apuntatuz*). Ederra gainera (*Bi tiro*). Failo, berriz ere! Alua!...

#### 4. ESZENA

(*Maisua eta Txibisto*).

**Maisua** (*Laisterka agertzen da*). Zer, Txibisto, bota al duzu?

**Txibisto** Ez, kale gin dut, maisu jauna.

**Maisua** (*Txibistoren erbiari begira*). Eta, hor duzun erbi hori?

- Txibisto** Ederra da, e?
- Maisua** Salduko al zenidake? Bihar gure inspektorea datorkigu bazkaltzera eta... eta, erbi hori ez litzaiguke gaizki etorriko.
- Txibisto** Geuri ere gustatzen zaigu erbia; baina, ondo pagatzen baduzu...
- Maisua** Mila pezeta nahikoa al duzu?
- Txibisto** Ez eta bi mila ere!
- Maisua** Zer duk, ba, urrezkoa ala?
- Txibisto** Ez duk urrezkoa. Baina, niretzat urreak adina balio dik.
- Maisua** Beno! Torizkik bi mila pezeta. (*Emanaz*). Alazankoa, ez duk hirekin giro! Narrututa etxera eramango bahidake...
- Txibisto** Bale! Egingo dizut horrenbeste.
- Maisua** Bihar arte, orduan! (*Aldegiten du*).
- Txibisto** Nere kontu! Agur! (*Bakarka, bazterretara begira, apur batean. Inor ez dabilela ikusi ondoren, parre algarra egiten du*). Neroni ere etxera joateko moduan natxegok orain! (*Joaten da*).

## OIHALA

### III. EKITALDIA

(*Etxean, bazkalorduan*).

#### 1. ESZENA

(*Txibisto, Maria eta Ainara*).

- Txibisto** (*Erbia janez*). Nork esaten du etxera ez dudala ezer ekartzen? E? Mari? Orain ere, bazkari ederra jarri duzu nere erbiarekin!

- Maria**                    (*Maria ere jaten*). Erbia ekarri duzu, baina gastatu dituzun kartutxoek ere dirua balio dute!
- Txibisto**                (*Dirua atereaz*). Dirua? Gure herrian erraz irabazten da dirua! (*Emanaz*) Torizu!
- Maria**                    (*Kontatuz*). Baina, nondik atera duzu diru hau?
- Txibisto**                Eman egin didate! Erbia botatzearen saria da.
- Maria**                    Tira, tira! Esaidazu nondik atera duzun!
- Txibisto**                Saria dela, ba! Ez al didazu sinesten?
- Maria**                    Beno, Txibisto, nahikoa dugu, e!
- Txibisto**                (*Ainarari*). Oso goxoa dago erbia, e? Ainara? Gustatu al zaizu?
- Ainara**                Bai, benetan goxoa! Ummm!
- Txibisto**                Noski! Zure ama sukaldari ona da!
- Ainara**                Bai horixe!
- Txibisto**                Eta, nola joan da olerkia?
- Ainara**                Ondo.
- Maria**                    Txalo asko jo al dizute?
- Ainara**                Ba..., dexente (*Apal*).
- Txibisto**                Dexente bakarrik?
- Ainara**                Beno, asko! (*Zutituz*). Orain eskolara noa, ordua da eta. Gero arte. (*Aitari eta amari musu bana eman eta badoa*).

**Maria** Bai, agur! Eta eskolatik irtendakoan, bizkor etorri etxera!

**Ainara** (*Eskolako zorroa hartuz*). Bale! Etorriko naiz... Agur!  
(*Bihoa*).

**Maria** Peru txikiari ere jaten eman beharko diot. (*Badoa*).  
(*Norbaitek atean jotzen du*).

## 2. ESZENA

(*Txibisto, Maria eta Erretorea*).

**Maria** Zein ote da?

**Txibisto** Zoaz irekitzera!

**Maria** Bale! (*Joan eta ireki*).

**Erretorea** (*Kanpotik*). Kaixo, Maria!

**Maria** (*Kanpoan*). Egun on, erretore jauna!

**Erretorea** Etxean al dago Txibisto?

**Maria** Bai. Sar zaitez.

**Erretorea** Eskerrik asko!

**Maria** (*Erretorearekin sartuz*). Hara hor non dagoen Txibisto  
(*Joan egiten da*).

**Erretorea** Kaixo, Txibisto!

**Txibisto** Kaixo!

**Erretorea** Erbiaren bila etorri naiz.

**Txibisto** Zein erbi?

**Erretorea** Beno! Atzo erosi nizuna!

- Txibisto** Zer kontu da hori? Nik ez dut erbirik saltzen.
- Erretorea** (*Haserre*). Niri behintzat saldu zenidan atzo!
- Txibisto** Deskuidatu egingo zinen. Beste etxeren batera joan beharrean etorriko zinen gurera. Niri ere askotan gertatzen zait hori.
- Erretorea** (*Haserre bizian*). Ni ez naiz deskuidatu. Nik hona etorri behar nuen erbiaren bila.
- Txibisto** Zeuk ez al zenuen, ba, erbia harrapatu? Nik hala entzundut behintzat.
- Erretorea** Juzgadura eramango zaitut, Txibisto. (*Bihoa haserre*).
- Txibisto** (*Parrez*). Hor konpon!
- Maria** (*Agertuz*). Zer zuen apaizak horren haserre?
- Txibisto** Erbia nahi omen zuela gaur lagunekin bazkaltzeko! (*Atea jotzen dute*).

### 3. ESZENA

(*Txibisto, Maria eta Alkatea*).

- Maria** Nor ote da oraingoan, Txibisto?
- Txibisto** Ireki, ireki! Ikusiko dugu!
- Maria** Beno...! (*Irekitzera doa*).
- Alkatea** Txibisto etxean al da? (*Kanpotik*).
- Maria** (*Kanpotik*). Bai. Etxean dago. Sar zaitez.
- Alkatea** (*Agertuz*). Eskerrik asko!
- Maria** Ez horregatik, alkate jauna. (*Bihoa*).

- Alkatea** Egun on, Txibisto! Non duk nere erbia?
- Txibisto** Zure erbia?
- Alkatea** Bai. Atzo saldu hidana.
- Txibisto** (*Harrituta*). Atzo nik erbia saldu al nizun zuri? Koino! Harrapatu bai, harrapatu egin nuen erbia. Eta gaur bazkaltzean jan dugu, hain zuzen.
- Alkatea** Hik niri erbia saldu hidan. (*Oso haserre*). Eta ez esan gezurrik!
- Txibisto** Lan asko egingo zenuen eta nekaturik egongo zara! Horregatik nahastuko zitzaizun burua, alkate jauna.
- Alkatea** (*Haserre bizian, bere onetik irtenda*). Ni ez natxegok nekaturik, Txibisto! Nik burua bere lekuan zeukat! Emaidak neure erbia. Ikusiko duk bestela.
- Txibisto** Nahi duzuna egin ezazu. Gure etxean ez dago zure erbi-rik behintzat eta...
- Alkatea** Agur! Baina, ez pentsa, hau ez da horrela geratuko (*Zalpartan aldegiten du*).
- Txibisto** Agur, gizona, agur!
- Txibisto** (*Bakarrik. Berriketari*). Orain bi juicio dauzkat. Ea nola irtetzen naizen!  
(*Berrito atea jotzen dute*).

#### 4. ESZENA

(*Txibisto, Maria eta Maisua*).

- Maria** (*Agertuz*). Orain ere atea? Zer arraio gertatzen da gaur hemen?
- Txibisto** Ireki egin beharko duzu behintzat.

**Maria**                    (*Joan eta atea irekitzen du*). Zu hemen, maisu jauna?

**Maisua**                    (*Kanpotik*). Bai. Txibistorekin hitzegin nahi nuke.

**Maria**                    Zatoz barrura.

**Maisua**                    (*Sartuz*). Eskerrik asko!

**Maria**                    Ez horregatik! Gero arte. (*Bihoa*).

**Maisua**                    Kaixo, Txibisto!

**Txibisto**                    Kaixo! Hemengo aldi?

**Maisua**                    Bai! Erbiaren bila nator, zeuk ez duzu eraman eta.

**Txibisto**                    (*Harriturik*). Erbiaren bila?

**Maisua**                    Atzo ez al nizun, ba, erosi?

**Txibisto**                    Atzo saldu banizun, zertara zatoz orain bila? Beste bat nahi al duzu?

**Maisua**                    (*Haserre*). Emateko erbia segituan!

**Txibisto**                    Segituan? (*Parrez*). Zuk horrela harrapatzen al dituzu? Zer uste duzu? Ate ondoan dagoela ala?

**Maisua**                    Bazkaldarrak etortzen hasi zaizkidala, Txibisto!

**Txibisto**                    Gure etxetik erbi-burua besterik ez duzu ba eramango! Ez da besterik sobratu eta.

**Maisua**                    (*Amorrazio bizian*). Osoa ere atera beharko duzu non-baitetik. (*Zalapartan aldegiten du*).

**Maria**                    (*Agertuz*). Baina, zer gertatzen da gaur gure etxean, Txibisto (*Buruari eraginez, espa txarrean*).

**Txibisto**                    Ez dakit ba. Nere erbiaren bila datoz denak. (*Txantxetan*) Ez dakit zer amets egin duten!

- Maria** Txibisto, Txibisto. Ez ote zara, gero, broma txarren batean sartu? Ezagutzen zaitut gero!
- Txibisto** Ni broma txarrean sartu? (*Algaraz*). Ikusiko duzu! Ikusiko duzu! (*Norbaitek atea jotzen du*).
- Maria** (*Dirua erakutsiz, haserre*). Beno, Txibisto. Berriro ere atea jotzen dute. Eta, diru hau nondik atera duzun esan arte, ez da inor etxe honetan sartuko!
- Txibisto** (*Jaiki eta leihotik begiratzen du*). Beno, beno, andrea, ez ireki! (*Parrez*). Zertarako?
- Maria** Nor dago atarian?
- Txibisto** Ba, inor ez! Herriko jueza besterik ez!
- Maria** (*Korrika eta presaka doa irekitzera*). Jesus, Maria...

## 5. ESZENA

(*Txibisto, Maria, Jueza, Erretorea, Alkatea, Maisua, Ertzain bikotea eta, azkenean, testiguak*).

- Jueza** (*Kanpotik*). Sar al naiteke?
- Maria** (*Kanpotik*). Nola ez ba, jauna. Sartu, sartu!
- Jueza** Eskerrik asko! (*alkatea, maisua, apaiza eta ertzainekin sartzen da*).
- Maria** Hor duzue Txibisto. (*Eta bihoa*).
- Jueza** Kaixo, Txibisto!
- Txibisto** (*Oso serio*). Zer gertatzen da, Juez jauna, horrenbeste indarrekin gure etxe pobre honetara etortzeko?
- Jueza** Gizon hauek kejaka etorri zaizkit, Txibisto.
- Txibisto** Kejaka? Zer dute, ba, nere kontra?



- Jueza** Erbia lapurtu diezula diote.
- Jueza** Eseri zaitezte, mesedez!
- Jueza** (*Eseri egiten dira*). Beno. Hasi egingo gara. Txibisto, zuk atzo hauei erbi bana saldu omen zenien. Eta, gaur, ukatu.
- Txibisto** Baina, jauna! Nik atzo erbi bat bakarra bota nuen eta, nola salduko nituen, ba, hiru?
- Jueza** Ez da erraza ez. Baina, hauek hala diote. (*Denei begira*) Ez dakit neuk ere nola daitekeen hori.
- Erretora** Bai. Mila pezeta ordaindu nion erbia. Eta, narrua kendu eta etxera eramateko esan nion.
- Alkatea** Nik ere berdin eskatu nion, eta mila eta bostehun pezeta eman nizkion.
- Maisua** Nik ere narrututa etxera eramateko esan nion. Eta, alazankoa, niri bi mila pezeta kobratu zidan.
- Txibisto** (*Parrez*). Ez dakit zer esan. Gradu horretako gizonak ezin ditut gezurtizat jo. Esan dutena egia bada, berriz, burutik egina nagoela esan behar. (*Zutituz*). Juez jauna, gizon hauek ba al dute esaten dutenaren testigurik?
- Jueza** (*Salatzaileei*). Zuek erantzun beharko diozue.
- Alkatea** Nik ez dut testigurik. Ehizean bakarrik nenbilen eta.
- Maisua** Ni ere bakarrik nenbilen.
- Erretora** Ni ere berdin.
- Txibisto** Erbirik harrapatu al zenuten?
- Maisua** Nik ez.
- Erretora** Nik ere ez.
- Alkatea** Ez eta nik ere.

- Txibisto** Hauxe komeria! Nik baietz entzun dut, ba. Burua galdu behar dut! (*Juezari*). Zurekin bakarka hitzegin nahi nuke.
- (*Bazter batera eraman eta kontu isilak esaten dizkio berrira*).
- Jueza** (*Salatariei*). Gonbidatuak etorri al zaizkizue?
- Alkatea** Bai. Bakarren bat ate ondoan dagoela uste dut gainera. Hau eskandaloa! Zer esan behar dute?
- Maisua** Nire gonbidaturen batek ere izan behar du hor.
- Erretora** Ez dakit nererik agertuko zen. Hobe agertu ez bada!
- Jueza** (*Ertzainari*). Ekar itzazu hiruretatik gonbidatu bana.
- Ertzaina** Bale! Oraintxe ekarriko ditut. (*Bihoa*).
- Jueza** Sartzen direnean galderak egingo dizkiet. Eta zuek isilik egon.
- Salatariak** Ondo da.
- (*Ertzaina sartzen da hiru testiguekin*).
- Jueza** (*Bati*) Zu noren etxera etorri zara?
- 1. testigua** Ni? Erretorearen etxera.
- Jueza** Ba al dakizu erretoreak erbirik harrapatu zuen atzo?
- 1. testigua** Bai, jauna. Horregatik gonbidatu nau jatera.
- Jueza** (*2. testiguari*) Bale. Eta zu noren etxera etorri zara?
- 2. testigua** Alkatearen etxera.
- Jueza** Alkateak ere erbia harrapatu al zuen?
- 2. testigua** Bai, jauna.

- Jueza** Eta zu maisuak harrapatutako erbia jatera etorriko zinen?
- 3. testigua** Halaxe da.
- Jueza** Bale! Joan zintezteke (*Hiru testiguak joan egiten dira*). (*Hiru salatariak burumakur geratzen dira*).
- Jueza** (*Salatariei*). Egia al da esan dutena?
- Alkatea** Bai, nik hori esan nion, baina, ez da egia.
- Jueza** Orduan ageri uzten diguzu gezurra esaten badakizula. (*Beste salatariei*). Eta zuek, zer diozue?
- Apaiza eta Maisua** (*Isilik eta burumakur*).
- Jueza** Beno. Txibistoren kontra ez duzue testigurik. Eta, gainez gezurreta garbian harrapatu zaituztegu. Beraz, Txibistori fama kentzeagatik, bakoitzak milana pezeta eman behar diozue oraintxe bertan. Eta beste milana pezetako multa pagatu beharko duzue juzgaduan.
- (*Hiru salatariek, milana pezeta mahai gainean utzi eta zalapartan aldegiten dute*).
- Jueza** (*Txibistori, eskua emanaz*). Zorionak, Txibisto! (*Honek ere alde egiten du*).
- (*Maria agertzen da*).
- Txibisto** (*Jendeari, erdi isilka*). Bai, bai. Arrazoi, duzue. Nik saldu nien erbia. Baina horiek niri ehiztari-fama lapurtu nahi zidaten. Eta hori... (*Ukalondoa erakusten du*).
- (*Maria atzetik keinuka, eskua astinduz*).

## OIHALA



# **TXIMATOLI HELIA**

Koro Irastorzak egokitua  
Jakintza ikastola  
Ordizia 1990



## PERTSONAIAK

- Ni-Soi-Lik .....: Lorazaina. Ondo jantzia. Bere lorategia du kezka bakarra. Ureztonzi bat.
- Txin-Txila .....: Ni-Soi-Liken alaba. Ausarta da, baina bere aitari errespeto handia dio. Aterkia.
- Txin-Txon .....: Gaztea. Txin-Txilaren senargaia.
- E-Bakin .....: Aizkolaria. Gizon jatorra.
- Pesca-Dila .....: Arrantzalea.
- Ti-Suon .....: Saiatzen da bere herrian hobeto joan daitezzen.
- Txin-Txa-tu .....: Mandarinaren semea. Alferra. Bere aita bezain gaiztoa.
- Ho-Li
- O-Legi
- Ul-Bin
- Go-Li .....: Txin-Txaturen jendea. Saiatzen dira honen gogoak ondo betetzen, hobeto ikusiak izango bait dira.
- Herriko Jendea .: Oso behartsuak. Hankutsik.

## I. EKITALDIA

*(Ni-Soi-Lik lorazaina bere lorategian paseatzen, eguraldiari begira).*

**Ni-Soi-Lik** Begira eguzkia! Margo biziagoak aterako zaizkie loreei. Ah! Zer poza! Baina..., eta gehiegi berotzen badu? Ah, zer loretxo ederra! Ia-ia nere alaba Txin-Txila bezain ederra...  
Agian nere loratxoak zimeldu eta horitzen dira. Oh! zer tristura nerea!

*(Txin-Txila agertzen da lore artean).*

**Txin-Txila** Kaixo aita! Zer gertatzen zaizu? Farrea eta negarra entzun dizut...

**Ni-Soi-Lik** Ai! Txin-Txila, alabatxo... Bero handia dago eta ez dakit nere loretxoentzat komenigarria izango den.

**Txin-Txila** Eta horregatik kezkatzen zara? Loreen izpirituari erretzatuko diogu eta euri zaparrada bat eskatuko diogu.

**Ni-Soi-Lik** Arrazoia duzu, alabatxo. Goazen, Txin-Txila.

**Ni-Soi-Lik eta Txin-Txila**

*(Belaunikaturik).*  
Ikisami, ikisami  
ikisami iokanute  
Aaaaaaa! *(Oihu handi bat).*  
Zarikumina zapaluka  
Atsa-makatsa!

*(Belaunikaturik gelditzen dira. Ekaitza entzuten da: argi gutxiago. Tximistak eta trumoiak. Lorezainak eta alabak txanoak bueltatu eta ura jasoko balute bezala egiten dute. Gero lore gainean hustu. Hasieran Ni-Soi-Lik pozik dago. Pixkanaka kezkatzen hasten da).*

**Ni-Soi-Lik** *(Erdi negarrez).*  
Ai, ai, ai, zer euri zaparrada!  
Eta loreak ittotzen badira? Dena nere alaba Txin-Txila ero honegatik!



- Txin-Txila** *(Pazientzia handiz).*  
Ez kexatu, aita! Nahiko ura badugu, izpirituari erreza-  
tuko diogu geldiarazteko...
- Ni-Soi-Lik** Ah, bai, egia... Proba dezagun!
- Ni-Soi-Lik eta Txin-Txila** Txumina kikaki  
guamikaki estu  
aguatxi mali  
raki, raki tsu  
geldi tu!
- (Berriro argia piztu, trumoiak ixildu).*
- Txin-Txila** Zer, aita? Orain pozik?
- Ni-Soi-Lik** Ez dakit zer nahi dudan... Eguzkia eta euria aldi be-  
rean... eguzki pixka bat, ur pixka bat...
- Txin-Txila** Aita... eta, deskantsatuko bagenu?  
*(Ikusleei ixilean).*  
Honela, Txin-Txonekin aterako naiz: herriko mutiko  
dotore eta galantena da.
- (Ni-Soi-Lik aurrera eta atzera dabil. Batzutan zerua ikusi  
eta pozten da. Hurrengoan euria ari duen begiratu eta  
negarrez hasten da.  
Bitartean Txin-Txilak, izkutuan pareta gainetik Txin-Txo-  
ni keinuak egiten dizkio).*
- Txin-Txila** *(Erdi negarrez).*  
Ah, zer tristura! Nere aitarekin lorategian besterik ez  
dago pentsatzerik. Ez da momentu bat gelditzen! Nola  
lortuko dut nere Txin-Txon maitearekin enroilatzea?
- Ni-Soi-Lik** Nere loretxo gaixoak! Eguzki pixka bat behar dute!
- Txin-Txila** Ai, ikusten dut... Neska zahar geldituko naiz... Eta nere  
Txin-Txon maitea bere bibotetxo kizkur horrekin, nitaz  
ahaztuko da! Nere aitak bakarrik loreetan pentsatzen  
daki. Eta ez al naiz ba ni lore bat? Txin-Txonek honela  
esaten dit beti.  
Ez al da nere aita konturatzen ni ere loreak bezala zi-  
melduko naizela?

- Ni-Soi-Lik** *(Gelditzen da momentu bat eta alabari begiratzuz).*  
Zer ari zara marmarka?
- Txin-Txila** Ez... Deskantsu bat behar duzula esaten nuen...
- Ni-Soi-Lik** *(Haserre).*  
Bai, badakit istorio hori... lo kuluxka bat botatzen du-  
dan bezain laister mutiko basati haiek sartzen dituzu  
nere lorategian: loretxo bat hartu, belarra zapaldu...  
Hemendik aurrera, begiak itxi gabe lo egingo dut.
- Txin-Txila** *(Negarrez)* Ai, ai, zer bizia!  
*(Norbaitek atea jotzen du).*
- Ni-Soi-Lik** Eh? Zer da hori?
- Txin-Txila** Atea jo dute...
- Ni-Soi-Lik** *(Ahotsa jaitsiz).*  
Bai, bai. Entzun dut. Ez altxa ahotsa! Disimulatu. Ez  
zaizkit bisitariak gustatzen...  
*(Berriro deitzen dute. Oihuak).*
- Denak** Ni-Soi-Lik!! Ireki! Sartu egin nahi dugu!
- Ni-Soi-Lik** *(Gogo txarrez).* Bai, bai...  
*(Atearen txirristutik).*
- Ni-Soi-Lik** Zer nahi duzue? Esan lehenbailehen eta ospa!
- E-Bakin** Baina, zer gertatzen zaizu? Betiko lagunak gara. Utz  
iezaguzu sartzen!  
*(E-Bakin, Peska-Dila, Txin-Txon eta Tisu-On sartzen  
dira, atea bultzatuz. Txin-Txon txintxilarekin berriketan  
arituko da denbora guztian, Ni-Soi-Liken atzean, honek  
ez ikusteko).*
- E-Bakin** Ah, zer lorategi ederra! Lepoa-Moz-Tukoren lorategia  
baino askoz ederragoa da.

- Peska-Dila**                   *(Aitaren bat eginez).*  
Ez eta aipatu ere izen hori! Kakalarria sartzen zait hori entzun orduko.
- Ni-Soi-Lik**                   Benga, benga! Zer arraio nahi duzue? Nere alaba eta nik ez dugu ezta arroz zuku pixka bat ere eskaintzeko, hain behartsuak gara...!
- E-Bakin**                      Bai, lasai, ulertzen dugu. Denok gara behartsuak... Lepoa-Moz-Tuko mandarin gaiztoa izan ezik.
- Peska-Dila**                   *(Aitaren bat eginez).*  
Ez eta aipatu ere izen hori! Kakalarria sartzen zait hori entzun orduko.
- Ni-Soi-Lik**                   Beno, ez daukat berriketan galtzeko denborarik. Larrosa haiek ureztatu behar ditut.
- Tisu-On**                      Bai, ureztatu itzazu, baina aldi berean entzun gure esan beharrekoak.
- E-Bakin**                      Lepoa-Moz-Tuko gaiztoak dena kendu digu.
- Ni-Soi-Lik**                   *(Landareei begira).* Barka, klabelin hau zaindu behar dut... bai, garai txarrak dira. Bakoitzak bere arazoekin nahikoa du, ez? Ez al duzue lanik? Benga, benga!
- (Bidali nahiean dabil. Baina besteek jarraitzen dute «hizketan», ixilka. Orain Txin-Txila eta Txin-Txonon ahotsak entzuten dira).*
- Txin-Txila**                   Beti maiteko zaitut Txin-Txon...  
Baina ez dakit... Aita beti nere atzetik dabil...
- Txin-Txon**                   Eta ezkontzeko baimena eskatutuko bagenio?
- Txin-Txila**                   Aberatsa izango bazina eta lorategia zaintzeko laguntzaile batzuk ekarri...
- Txin-Txon**                   *(Amorrazioz).* Eta ni gero eta behartsuagoa naiz. Lepoa-Moz-Tuko mandarin gaiztoak dena kendu digu eta

azokan nere erleen ezta saltzeko ere zerga mordo bat ordaindu behar diot!

*(Ni-Soi-Liken ahotsa entzuten da).*

- Ni-Soi-Lik** Nahikoa da! Zoazte denok hemendik! Nere loreak haserretu egingo zaizkit. Zuek denak usain txarra baituzue! Zuk, E-Bakin, belar usaina duzu...  
Eta zuk, Peska-Dila, sardin zaharrarena.  
Eta Ti-Suonek zetarrarena! Eta zuk...  
*(Txin-Txonon bila dabil eta ez du aurkitzen, bere atzean bait dago. Azkenenean Txin-Txilari eskua emanda aurkitzen ditu).*  
Bai, zuk utzi Txin-Txila pakean eta ospa!  
Ezti usaina duzu!
- Txin-Txila** Baina, aita, eztiak usain ona du...
- Ni-Soi-Lik** Ixo!!!
- Txin-Txila** Baina, egia da, aita. Ezti usaina du, oso ezti ona gainerra!
- Ni-Soi-Lik** *(Usaintzen du).*  
Egia da... Ah, baina zer esaten dut? Horrek esan nahi du zure erleak nere lorategian sartzen direla. Kontrabandista, halakoa! Esaten nuen nik nere loretxoak tristeturik zeudela!  
Ikusiko duzu!
- Txin-Txila** Aita! Ez ezazu jo! Txin-Txon da eta nik maite dut.
- Ni-Soi-Lik** Zer? Zuk maite duzu? Ai, ai! Hori ere entzun behar.
- E-Bakin** Ni-Soi-Lik, utz iezaiozu negarrari eta entzun ezazu...
- Ni-Soi-Lik** Bai, entzuten dut...
- Peska-Dila** Badakizu Lepoa-Moz-Tuko mandarin gaiztoak...
- E-Bakin** Jatekorik ere ez dugu.
- Tisu-On** Horrela ezin gara bizi. Nere seme gizagaixoa!

<b>Txin-Txon</b>	Eta nere senideak!
<b>Ni-Soi-Lik</b>	Bukatuko al duzue behingoz?
<b>Denak</b>	Umeez ez dute jolastokirik...
<b>E-Bakin</b>	Mandarinaren aizkolariek basoetako zuhaitz guztiak moztu dituzte.
<b>Peska-Dila</b>	Eta mandarinaren esklabuek erreka desbideratu eta gure arroztiak urez bete dituzte.
<b>Ni-Soi-Lik</b>	A! Ondo! Udan freskoago egongo zarete.  <i>(Beste denek ate atzean hotsak egiten dituzte. Kasetean hau entzuten da).</i>
<b>Kasetea</b>	<i>(Denak aterantz begiratuko dute).</i> Entzun, lorezaina! Utziezaiezu gure herriko umeei zure lorategian sartzen! Hauze da beraientzat leku egokiena! Fruta pixka bat jan, itzalean deskantsatu...
<b>Ni-Soi-Lik</b>	Haize honekin ez da ezer entzuten...
<b>Txin-Txila</b>	Mesedez, aita! Ume horiek aspalditik daude gosez eta txaboletan sarturik...
<b>Ni-Soi-Lik</b>	Hemendik ( <i>Bultzaka</i> ), hemendik irteten da.
<b>Kasetea</b>	Ez digu kasurik egin! Inoiz ez digu utziko sartzen...
<b>Ni-Soi-Lik</b>	Bai zera! Hor utziko ditut umeak, hemen belarra zapaldu, han adar bat hautsi... Ez, ez, nere loreak zaindu behar ditut!
<b>Txin-Txila</b>	Bakarrik loreetan pentsatzen dakizu! Eta pertsonak? Nik Txin-Txon maite dut!
<b>Txin-Txon</b>	Alferrik da Txin-Txila! Zure aitak bihotzik ez du.
<b>Ni Soi-Lik</b>	Nik bihotzik ez dut izango baina mandarina nerekin ez da sartzen.

<b>E-Bakin</b>	Egia da. Eta zergatik da hori?
<b>Ni-Soi-Lik</b>	Ba, pelota egiten diodalako. Festa bat eman behar duela enteratzen naizenean, lore batzuk bidaltzen dizkiot bere soldaduak nigana bidali baino lehen.
<b>Peska-Dila</b>	Guri ez zaizkigu zure tejemanejeak interesatzen. Herriko umeak zure lorategian ibil daitezen eskatzen dizugu soilik!
<b>Ni-Soi-Lik</b>	Ezta pentsatu ere!
<b>Tisu-On</b>	Goazen hemendik! Agian egunen batean gure beharrean izango da, goazen!

## II. EKITALDIA

*(Azoka. Lorategia atzekaldean ikusten da, orma batez estalirik).*

<b>1. eroslea</b>	Zenbat balio du arrain honek? Ez du oso freskoa ematen...
<b>Peska-Dila</b>	Bihar hau ere ez duzu izango. Mandarinak txalupa eta sare guztiak bereganatu ditu.
<b>1. saltzailea</b>	Meloiak!!! Zeinek nahi ditu meloiak!!!
<b>1. eroslea</b>	Eta hauek meloiak dira? Melokotoiak bezain txikiak dira eta!!!
<b>1. saltzailea</b>	Gaur erosi itzazu... Bihar hori ere ez da egongo eta. Erreka desbideratu dute eta nere baratzen belarra besterik ez dago.
<b>2. eroslea</b>	Zenbat behar duzu egur hauengatik?
<b>E-Bakin</b>	Zuretzat dira.
<b>2. eroslea</b>	Dohainik?

- E-Bakin** Bai! Azkenak dira. Jadanik zuhaitzik ez da gelditzen.
- 1. eroslea** (*Parrez*).  
Ondo ordainduko zizun Lepoa-Moz-Tuko mandarinak, ez?
- E-Bakin** Ez iezadazu adarra jo! Beldurti mozolo bat naizela ezin dut burutik kendu!
- 1. eroslea** Zu beldurtia?
- 2. eroslea** Hain gizon indartsua?
- E-Bakin** Beldurti bat, bai! Oilo baten moduan sartu nintzen ohe azpian etxeondoko zuhaitzak mozten zituzten bitartean!
- Peska-Dila** Ixo, hormek ere entzuten dute!
- Txin-Txon** E-Bakinek arrazoia du! Ezin gara horrela bizi.
- 1. eroslea** (*Lorategia seinalatuz*). Eta hark, zer egiten du?
- Tisu-On** Hura? Primeran! Dena ondo du! Lore eta zuhaitz asko du. Bihotz gutxi, ordea.
- 2. saltzailea** Eta Txin-Txila gaixoak...! A zer meritua horrelako aita kankarrarekin bizitzea!
- Txin-Txon** Ez ezazu aipatu! Aspaldian ez dut ikusi...  
*(Hotsak entzuten dira kanpoan, denak beldurtzen dira. Soldaduak Txin-Txa-tu dakarte).*
- Holi** Pasooooo!!! Hemen dator Txin-Txa-Tu jauna, Lepoa-Moz-Tuko mandarinaren seme ospetsua!
- O-Legi** (*Jendea bultzatuz*). Atzera! Hemen datorkizue ospetsuen arteko ospetsuena!
- Ul-Din** Kendu paretik mukizu horiek!
- Go-Li** Fuera! Mixerable zikinak!

- Txin-Txa-Tu** Geldi! Sooo!  
*(Bapatean gelditzen dira eta Txin-Txa-Tu lurrera erortzen da).*
- Txin-Txa-Tu** Adi egon zaitezte tentel horiek!  
Nere aitak lepoa moztuko dizue...  
Baina ni ez naiz hain gogorra izango.  
Holi! Hamar zigorkada emango dizkiozu O-Legiri eta gero berak bueltatu egingo dizkizu...
- O-Legi eta Holi** *(Erreberentziak eginez).*  
Eskerrak, gizon ohoretsua!  
*(Txin-Txa-Tu jendeari begira gelditzen da).*
- Txin-Txa-tu** Nortzu dira horiek? Zergatik ez didate erreberentziarik egiten?
- O-Legi** Azokan gaude...
- Ho-Li** ...herriko baserritarrak dira...
- Go-Li** ...Eta orain bizkarrak berotuko dizkiegu...
- Ul-Din** ...Lepoa-Moz-Tuko mandarinak agintzen duena ikasi arte!
- Txin-Txa-Tu** Ez, orain ez. Gero... Aurrena, gauza bat jakin nahi dut: zergatik ote diren hain behartsu eta mixerableak.  
*(Jendeak erreberentziak egiten ditu).*
- Peska-Dila** Badakizu... garai txarrak dira hauek...
- Txin-Txa-Tu** Ul-Din. Hamar zigorkada! Ez dit «jaun ohoretsua» deitu.
- Ul-Din** *(Koadernoan apuntatuz).*  
Bai, jaun ohoretsua!
- Txin-Txa-Tu** Eta zuk, zer? Hitza galdu al duzu ala?



- Peska-Dila** Beno, nik... jaun ohoretsua, uzta txarra izan dugu eta...
- Txin-Txa-Tu** Gehiegi hitzegin duzu! Zure izena?
- Peska-Dila** (*Erreberentzia*). Peska-Dila, jaun ohoretsua.
- Txin-Txa-Tu** Nola? Zailegia. Hemendik aurrera Mer-Luzo deituko dizugu. Eta zu, nor zara? (*Ti-Suoni*).
- Ti-Suon** (*Erreberentzia*). Ti-Suon naiz, jaun ohoretsua.
- Txin-Txa-Tu** Zer? Zailegia. Hemendik aurrera Txi-Fla-Tu deituko dizugu. Eta zu, nor zara? (*E-Bakini*).
- E-Bakin** E-Bakin da nere izena eta aizkolaria naiz.  
Beno... aizkolaria nintzen zure aitak, Lepoa-Moz-Tukok, zuhaitz guztiak bota arte.
- Txin-Txa-Tu** Zailegia hori ere! Hemendik aurrera As-To izango zara. Astoa izan behar da gero, niri frente emateko. Apunta ezazu, Ul-Din! Hogeitamar zigorkada As-Torentzat: hamar, jaun ohoretsua ez deitzeagatik; beste hamar basoetan lapurtu dugula esateagatik eta beste bost ausartegia izateagatik.  
  
(*Nahastu egiten da behatzez kontatzean*).
- Ul-Din** Jaun ohoretsua: hamar, hamar eta bost, hogeitabost...
- Txin-Txa-Tu** Falta diren bostak Ho-Lik emango dizkizu, kontatzen ez dakidala pentsatzeagatik...  
  
(*Noizik behin Ni-Soi-Likek burua azaltzen du*).
- Txin-Txa-Tu** Berehala kritikutzen dituzue nere aitaren eta nere neurri gogorak. Zergatik ez duzue lana egiten? Eh? Zorriak baino alferragoak zarete!
- Ni-Soi-Lik** (*Atetik*). Hori, hori, lan egin dezatela!  
(*Berriro ezkututzen da*).
- Txin-Txa-Tu** Eh? Nor izan da? Nork hitzegin du?

**Ho-Li, O-Legi,**  
**Ul-Din eta Go-Li** Zein? Nor izan da? Non ezkutatu da? Harrapatuko al dugu?

**Txin-Txa-Tu** Hor atzetik datorrela iruditu zait... Zer dago hor?

**O-Legi** Horma bat dirudi, jaun ohoretsua.

**Txin-Txa-Tu** Bai... eta zer usaina! Buaaaaaaaaa!!!

**Ho-Li, O-Legi,**  
**Ul-Din eta Go-Li** Egia! Uuuuuuuuummm! Loreak!

**Txin-Txa-Tu** Jabea gizon aberatsen bat izango da...  
Adizu, Mer-Luzo, nor da lorategi honen jabea?

**Peska-Dila** Ni-Soi-Lik lorazaina...  
*(Ni-Soi-Lik agertu eta ixilik egoteko keinuak egiten dizkie).*

**Txin-Txa-Tu** Izen hori entzuna dut... Baina ez nekien hain lorategi handia zuenik. Ul-Din apuntatu!  
Zergak handiagotuko dizkiogu.  
Dei ezazue eta lore batzuk eskatuiezazkiozue.

*(Soldaduak atea jo, pixka bat itxaron eta berriro Txin-Txa-Turengana hurbiltzen dira).*

**Holi** Jaun ohoretsua...

**O-Legi** ...deitu dugu.

**Ul-Din** ...eta inor ez dago...

**Go-Li** ...edo ezkutuan dago bestela.

*(Herri guztia begira dagoen bitartean, Txin-Txa-Tu aidean jasotzen dute hobeto ikusteko).*

**Txin-Txa-Tu** Norbait dago! Hor, zuhaitzaren atzean! Lurrera!

*(Utzi egiten dute eta lurrera erortzen da. Jendea parrez lehertzen).*

- Txin-Txa-Tu** Ul-Din, apunta ezazu! Hamar zigorkada zuentzat erortzen uzteagatik... Eta beste hamar mixerable zorritsu horientzat parre egiteagatik!
- Peska-Dila** Nik ez dut parrerik egin, jaun ohoretsua! Nola egingo nion ba parre hain jaun ospetsuari?
- Txin-Txa-Tu** Ul-Din, apuntatu! Beste bost zigorkada Mer-Luzori pelota bat izateagatik! Zoazte ate hori botatzera!!!
- (Hori egin baino lehen, Ni-Soi-Likek atea zabaltzen du).*
- Ni-Soi-Lik** Nork galdetzen du nitaz? Aguretxo bat besterik ez naiz eta landareak ureztatzea da nere lana...
- Ho-Li** Aiton zahar bat besterik ez da... Lepoa moztuko al dio-gu?
- Txin-Txa-Tu** Sartu zaitezte lorategian eta...
- Ni-Soi-Lik** Ez, ez! Mesedez, jaun ohoretsua! Neuk hartuko dizkizut lorerik ederrenak... Zer dakite ba hoiek loreez, eh?
- Txin-Txa-Tu** Ez dakit... Beno, benga, mugi zaitez!
- (Soldaduak lurtean etzan egiten dira).*
- Peska-Dila** Seguru orain ere ondo ateratzen dela...
- Ti-Suon** Suerte handiko agurea da...
- Peska-Dila** Eta ez merezi duelako, eh? Begira, badator berriro.
- E-Bakin** Azkarregi. Zuhurra hemen ere...  
*(Ni-Soi-Lik Txin-Txa-Turengana hurbiltzen da. Bidean loreak historik gabe geratzen dira, hain lehorrak daude).*
- Ni-Soi-Lik** Jaun ohoretsua. Hemen dituzu nere lorategiko lorerik hoberenak. Beno... ez daude oso ondo... Badakizu: eguraldia, harrak, erleak, txoriak..., je, je, je...

*(Soldaduak altxa eta lorezaina inguratzen dute, sudurzu-  
loak tapatuz. Txin-Txa-Tuk loreak hartu, usaindu eta lurre-  
ra botatzen ditu.*

*Txin-Txila lorategitik atera eta Txin-Txonon eskua hartzen  
du).*

- Txin-Txa-Tu** A, zer zekena! Burua mozteko prest nengoen eta zer egiten du? Lore ustel batzuk eskaini!
- Ho-Li** Jaun ohoretsua!...
- O-Legi** Banbuzko kainabera bati lotu eta...
- Ul-Din** ...Gau eta egun utziko dugu...
- Go-Li** ...Txingurri erraldoiek jan arte... eh?
- Txin-Txa-Tu** *(Oso haserre).*  
Txerriak ere alde egingo zukeen horrelako usain nazka-  
garriarekin! Sar zaitezte lorategian eta dena hautsi eza-  
zue! «Al ataque!».
- Ho-Li, O-Legi,  
Ul-Din eta Go-Li** «Al ataque!». Dena haustera!
- (Oihuka sartzen dira lorategian. Ez da ikusten, baina bai  
entzun. Ni-Soi-Likek ez dio Txin-Txaturi sartzen utzi nahi,  
baina honek hankaz gora botatzen du).*
- Ni-Soi-Lik** Jaun ohoretsua!
- E-Bakin** Honelako kasuetan ere ez du eskuzabala izaten ikasi!
- Txin-Txila** Esan diot lore hoberenak eskaini behar zizkiola eta ez  
itsusienak, baina ez dit kasurik egin.
- Peska-Dila** Inoiz ez dio inori kasu egiten...!
- Txin-Txon** Ezin dugu orain ezer egin... Agian orain ezkontzen utzi-  
ko digu...
- Txin-Txa-Tu** *(Aterantz begira).*  
Nahikoa da! Zatozte hona!

*(Lau txinoak agertzen dira, lore mordo bat eskuetan dituztelarik. Ni-Soi-Likek hartu nahi ditu baina ostikoka bidaltzen dute. Denak joaten dira).*

- Ni-Soi-Lik** Peska-Dila...! Laguntza behar dut...!
- Peska-Dila** Utz nazazu pakean! Nere sareak konpontzen nahiko lana dut!
- Ni-Soi-Lik** Ti-Suon... Lagunduko ote didazu?
- Ti-Suon** Uf! Ezta pentsatu ere! Ehundegiko tresnak konpondu beharrean nago.
- Ni-Soi-Lik** Txin-Txila, alabatxo! Zatoz lorategira.
- Txin-Txila** Aita, badaude beste zenbait lan egin beharrekoak! Jen-deak gosea du. Txin-Txonek eta nik erleak zaindu behar ditugu ea ezti pixka bat ateratzen ote dugun edo...
- Ni-Soi-Lik** Eta zuk, E-Bakin?
- E-Bakin** Ixo, lorazain! Ez al da lorategia «zurea»? Honela esan zenuen laguntza eske zugana joan gine-nean...
- Ni-Soi-Lik** Galdua naiz!
- E-Bakin** Adizu Ni-Soi-Lik! Zuk lur zati on bat duzu... Guk beso sendoak lana egiteko... Nahi baduzu zure lorategian biziko gara denok eta aldi berean denok irabaziko dugu...
- Ni-Soi-Lik** Bale!
- Txin-Txila** *(Pozik)*. Aita! Benetan?
- Ni-Soi-Lik** Total... Dena galdua dut... Aurrera!
- Txin-Txila** Eta Txin-Txonekin ezkontzen utziko didazu?
- Ni-Soi-Lik** Horixe! Jatorra da eta erle bizkorrak ditu.

*(Bikotea saltoka. Besteak ezin sinetsirik).*

- Tisu-On** Erotu egin da...
- Peska-Dila** Ametsetan egongo naiz...
- 1. saltzailea** Erabat txoratu da...
- 1. eroslea** Lehen zuria zena orain beltza?
- 2. eroslea** Luzerako ote du?
- 2. saltzailea** Hobe horrela balitz...!
- E-Bakin** Hitza eman duzu, eh? Ez bihar atzerantz jo, eh?
- Ni-Soi-Lik** Ez, ez! Sar zaitezte denok!
- Ti-Suon** Txabolak egingo ditugu. Azak eta babarrunak landatuko ditugu, eh?
- Ni-Soi-Lik** Berdin zait. Behartsuak ez dugu aukera haundirik.
- E-Bakin** Egia! Horretaz hitzegin behar dugu...  
Zer egin behar dugu? Mendira alde egin eta han sustrai eta belar zimelak jan edo hemen gelditu eta Lepoa-Moz-Tuko eta Txin-Txa-Turi aurpegi eman...
- Peska-Dila** Nik mendira alde egin nahi dut.  
Beldurra dut!!!
- Denak** Ez, ez! Hau gure herria da. Hemen geratu nahi dugu!
- E-Bakin** Defendatzeko prest al zaudete?
- Denak** Bai!!!
- E-Bakin** Ba..., segituan lanera!  
*(Denak hasten dira lanean, loreak jarri, loreak kendu, ura bota..., bitartean E-bakinek hitzegiten du).*

- Kasetea** Hasi ginen gure herria berritzen. Tisu-Onek berriro zertarrak lortu zituen. Peska-Dilak sare berriak izan zituen. Meloiak kristorenak hazten ziren gure baratzan. Erleek ezti gozoa ematen ziguten. Landareak gero eta ederrago eta handiagoak. Mandarinaren jendea inguratzen zen noizbehinka, baina ez zuten uste gu han barruan geundenik...  
Behin Txin-Txa-tu eta besteak hantxe bertan gelditu ziren. Egia esan, ezagutzen zaila zegoen, oso aldatuta baitzegoen. Harriturik burua sartu zuten eta...
- (Txin-Txa-Turen burua agertzen da).*
- Txin-Txa-Tu** Eh! Begira! Zorridun mukizu haiek dira! Baina, nola? Ah! Lorazainarekin elkartu dira. Guk uste baino azkarra-  
goak izan dira.  
Eh! Ireki! Zabaldu ezazue atea!
- E-Bakin** Oraintxe, jaun ohoretsua *(Gero, jendeari begira)*. Zer? Prest al zaudete?
- Denak** Bai!
- (Denek «armak» hartzen dituzte: egurrak, sokak..., gero, E-Bakinek atea zabaltzen du).*
- Txin-Txa-Tu** Ah, zer poza zuek berriro ikustea!  
Ul-Din, begira ezazu zure koadernoan nork zor dizkidan zergak... Gainera, bi halako kobratuko diet, ikusten baitut negozioak oso ongi joan zaizkiela!
- Ul-Din** Bai, jaun ohoretsua! *(Begiratzen du)*.  
Uf! Zer zerrenda luzea... Eta zigorkada batzuk ere badi-  
tugu emateko...
- Txin-Txa-Tu** Primeran! Hasi hementxe irakurtzen... Benga!
- Ul-Din** *(Irakurtzen du)*.  
Hamar zigorkada Mer-Luzori.
- Txin-Txa-Tu** Mer-Luzo! Etor zaitez hona!  
*(Inor ez da mugitzen. Ixiltasua)*.

- Txin-Txa-Tu** Mer-Luzo esan dut! Etortzeko hona!
- Ho-Li** *(Peska-Dilari heltzen dio).*  
Hau dela uste dut!
- Peska-Dila** Ez, ez, ni Peska-Dila naiz, jaun ohoretsua.
- Txin-Txa-Tu** Ez! Izena aldatu nizun: Mer-Luzo zara!  
Zatoz hona eta makurtu zaitez!
- (Peska-Dila, beldurturik, agindua betetzera doa, baina E-Bakinek besotik heltzen dio).*
- E-Bakin** Ez zaitez koldarra izan eta atzera.  
*(Gero Txin-Txa-Turengana hurbiltzen da).*  
Jauna, gauzak aldatu egin dira. Ez ditugu zergak ordainduko eta ezta ere zuen zigorrak onartuko.
- Txin-Txa-Tu** *(Oso haserre).* Zer diozu?
- E-Bakin** Entzun duzuna. Nahi baduzu, gonbidatua zara: meloi batzuk, te pixka bat..., baina ez indarkeriaz! Ez dugu amorerik emango!
- Ho-Li** Hasiko...
- O-Legi** ...al gara...
- Ul-Din** ...egurra...
- Go-Li** ...banatzen...?
- Txin-Txa-Tu** Inoiz gertatu ote da honelakorik? Benga, benga: ordaindu itzazue zergak, utzi zigorkada batzuk ematen eta gero ikusiko dugu zer eramaten dugun... Benga!
- E-Bakin** Ez ezazu jarraitu horrela...
- Txin-Txa-Tu** Aurrera esan dut!
- E-Bakin** Bale! «Aurrera» esan du!



*(Borroka hasten da baina berehala bukatu ere bai).*

**Txin-Txa-Tu** *(Borrokan sartu gabe).*  
Ho-Li, O-Legi, Ul-Din, Go-Li! Zigorkadak zuentzat  
izango dira ez baduzue irabazten!!

**Ho-Li, O-Legi,**  
**Ul-Din eta Go-Li** Sokorro!!! Ai, ai, ai...

**E-Bakin** Txin-Txon, erleak!

**Txin-Txon** Oraintxe bertan!

**Txin-Txa-Tu** Ez! Ez! Honek ez du balio! Hori trampa da!

**E-Bakin** Erleak! Azkar!

**Txin-Txa-Tu** Ongi da. Zuek irabazten duzue! Ez!  
*(Erleen hotsa entzuten da eta denek korrika alde egiten  
dute. Besteak pozik eta saltoka gelditzen dira).*

**Denak** Txin-Txa-Tu korrika doa (korrika)  
bere aitaren etxera (korrika)  
erleak atzetik ditu (korrika)  
zizta zizta egitera (korrika)

Gu berriz primeran gaude (primeran)  
pozik lorategian (primeran)  
nahi ezkerro zatozte (primeran)  
oporrak pasatzera (primeran)



# **ZOROEN SOROTAN**

OHOko 8. mailako ikasleak,  
Inmaculada Ezeizaren ardurapean  
Herri ikastetxea  
Zestoa 1988



## **PERTSONAIAK**

1. ikertzailea (*gizona*)
  2. ikertzailea (*emakumea zein gizona*)
- Zoroetxeko zuzendaria (*gizona*)
1. erizaina (*emakumea*)
  2. erizaina (*emakumea*)
- Maite, zoroa
- Manuel, zoroa
- Imanol, zoroa
- Jose Luis, zoroa

## **ESZENATOKIAK**

- I. eszena: ikertzaileen bulegoa.
- II. eszena: zoroetxeko zuzendariaren langela.
- III. eszena: zoroetxeko egongela.
- IV. eszena: ikertzaileen bulegoa.
- V. eszena: zoroetxeko zuzendariaren langela.
- VI. eszena: zoroetxeko zuzendariaren langela.
- VII. eszena: zoroetxeko egongela.

## I. ESZENA

*(Eszenatokia: ikertzaileen bulegoa. Gela txiki eta iluna. Bertan, bi ikertzaileak daude irratia entzuten).*

### **Irratia**

... Arabako Zuazo izeneko nekazari herri baten ondoko bide nagusian, istripu larri bat izan da. Oporrak igarotzera joanak ziren bi mutil gazte, hilik suertatu dira eurijasa baten ondorengo lurjauzietan. Bi mutil hauen izenak Patxi Larramendi eta Jesus Zabaleta dira.

Orain nazioarteko berriak: Azkenaldi honetan zurrumurru bat besterik ez dugu entzuten. Margaret Thatcher, Inglaterrako lehen ministraria bere kargoa uzteko asmotan dabilela.

Gaurko saioari amaiera eman aurretik, azken orduko berriak azalduko dizkizuegu: Ajuriaenean, Euskal Herriaren defentsarako garrantzitsuak diren dokumentu batzuk ostu dituzte. E.E.E.koak, hau da, Euskal Espien Elkartekoak izan ote diren susmoak daude.

- 1. ikertzailea** Bagenuen bai, kolpea laster emango zuten susmoa, baina ez genuen uste hain agudo mugituko zirenik!
- 2. ikertzailea** Ni ere harriturik nago, azken aldian segurtasun handia baitzegoen. Ez dakit nola lapurtu dituzten dokumentuak.
- 1. ikertzailea** Gauza bat behintzat argi eta garbi dago. Oso tipo azkarra dela esku artean duguna.
- 2. ikertzailea** Hau oso kasu zaila da, lapurrak ez baitu aztarnarik utzi. Gogor ekin beharko diogu!
- 1. ikertzailea** Onena zera izango da... Ajuriaenera inguratu eta bertan gertatutakoaren berri jaso.
- 2. ikertzailea** Nere ustez, hobe genuke lehendabizi nagusiarengana jotzea.
- 1. ikertzailea** Goazen ba!

## II. ESZENA

*(Eszenatokia: zoroetxeko zuzendariaren langelan, zuzendaria eta erizainak, zoro berriei buruz hizketan ari dira).*

- Zuzendaria** Irakur ezazu zoro berrien zerrenda.
- 1. erizaina** Aste honetan lau zoro berri iritsi zaizkigu: bata, Maite Zubieta, bere senargaiak utzi zuenetik, ikusten duen edozein gizon bere senargaia dela uste duenez, besar-katu eta proposamen desegokiak egiten dizkio.
- Zuzendaria** *(Itxura apainduz)* Ez dago gaizki!
- 2. erizaina** Bigarrena, Manuel Uria. Txikitan, beti «Cesar» delakoaren filme bera ikusten omen zuen bideoan eta gerotzik obsesionaturik dabil, bera Zesar dela esanaz eta bere armadaren garaipenei buruz hitz eginaz.
- Zuzendaria** Hitz egin besterik egiten ez duen bitartean! Tira!
- 1. erizaina** Hurrengoa, Imanol Mujika da. Txikitan, zakur batek ipurdian koska egin zion. Hau dela eta, beldurrez bizi da, denek berari koska egin nahian dabiltzala pentsatuz.
- Zuzendaria** «Mania pertsekutorioa», «persekulorun persekulotan». Bai, bai, kasu guztiz arrunta. *(Itxura apainduz)*.
- 2. erizaina** *(Paperetan begiratzuz)*. Azkenik, Jose Lekuona dugu. Honek, Iparragirreraren kasette bat entzun zuenetik, Iparragirre dela uste du.
- Zuzendaria** *(Irribartsu)* Eskerrak ez zuela Lola Floresena entzun! *(itxura apainduz eta aurpegi serioa jarriaz...)*. Ondo, ondo! Hau al da dena?
- 2. erizaina** Bai, jauna!
- Zuzendaria** Ba, asteroko berri guztiak bezala, gela berezi batean jarriko ditugu.
- 2. erizaina** Bai, jauna! *(paperak jaso ondoren, zuzendariarekin batera irteten dira gelatik)*.

### III. ESZENA

*(Eszenatokia: zoroetxeko gaixoen egongelan. Maite sartzen da).*

**Maite**

O, ene! Nere senargai maitearen eskutitz berri bat. *(Boltsatik eskutitz zahar bat atera ondoren, irakurtzen hasten da).* Kaixo Maitetxo maitea! *(Poz handiz musukatzen du eskutitza; irakurtzen jarraitzen du).* Zer moduz dago nere azukre koskorra? Ni behintzat, zure aurpegi eder hori ikusteko irrikiz nago. Hemen zelai ederrak ditugu, zurekin paseatzeko modukoak, alegia! Zelai hauetako larrosa eder bat bidaltzen dizut, zure ile maitagarri hori apain dezan. *(Eskutitzaren kartazaletik larrosa zimel bat atereaz, ilean jartzen du. Irakurketa jarraitzerakoan, Iparragirreren abesti bat entzuten da).* Ai, ene! Norbait badator! *(Izututa)* Nere senargaia ote? *(Pozez eta itxaropenez).* Banoa ikustera. Ernesto! Ernesto! *(Eszenatokitik irteten da).*

**«Iparragirre»**

*(Eszenatokian Iparragirre delakoa sartzen da, abesten eta besoak mugitzen)* «Hara nun diran, mendi maiteak, hara nun diran zelaiak...» Balantza duen aldera erortzen da arbola. *(Berriro abesten)* «Gernikako arbola, da bedeinkatua, euskaldunen artean, guztiz maitatua». *(Hau abestuz eszenatokitik irteten da).*

**Maite**

*(Eszenatokiko alde batetik sartzen da eta bestetik irtetzen da oihuka)* Ernesto! Ernestooo!

**Imanol**

*(Ipurdian zartagina duela sartzen da eszenatokian. Alde guztietara beldurrez begiratur, esertzera doa daramatzen paperak mahai gainean jarriz).* Ondo, hemen dago sarrera eta pasagune honek 15 m. ditu. Alboko gelan bi erizain... Erraza izango da irtetea! Arraultze frijituz mozorrotuko naiz! Atezainak ikusten nauenean, harriturik geldituko da eta ez da bere lekutik mugituko. *(Eskuak igurtziz. Une horretan «Cesar»ren ahotsa entzuten da bere gudariei deika)* Jesus! *(Izututa)* Badatoz nere ipurdian beraien ahoen ziriak sartzera! Hobe dut hemendik alde egitea! *(Paperak jaso ondoren eta ipurdian zartagina duela, egongelatik irteten da).*

**«Cesar»**

*(Bere gudariei oihuka deituz sartzen da eszenatokian)* Gudariak! Gudariak! Non zaudete? *(eszenatokira sartze-*



*rakoan, ikusleei zuzenduko die bere hitzaldia*) Oh! Ene gudari maiteak. Gure etsaien aurka borrokatzeko plan berri bat aurkeztuko dizuet gaur. (*Horman dagoen irudi zahar bat seinalatuz*). Hemen, gu gaude... eta hemen, galiatarren lurraldeak... Nere ustez plan berri honekin, galiatar herria erraz menperatuko dugu... Ene gudari ausartak! Erromaren ohorez eta Zeusen laguntzaz... Tira! Borrokara! (*Besoa altxatuz gelatik irtetzen da*).

**Maite**

(*Eszenatokiko alde batetik sartzen da eta bestetik irteten da oihuka*) Ernesto! Ernestoooo!

#### IV. ESZENA

(*Eszenatokia: ikertzaileen bulegoan, bi ikertzaileak lanean ari dira*).

**1. ikertzailea** Higuinduta nago!... Aspaldi bukatuta eduki behar genuen lana eta...

**2. ikertzailea** Arrazoi duzu! Ikerketa hau luzeegi doa. (*Lanean jarraitzen dute*).

**1. ikertzailea** Nagusiak laster deituko duelakoan nago.

**2. ikertzailea** (*Ordulariari begiratzuz*) Bai, ordua da. (*Telefonoaren zarata entzuten da*). Bera ote? (*Telefonoa hartuaz*). Bai?... (*Beste ikertzaileari begiratzuz*) Nagusia!... Ez, ez dago berririk, badakizu, hemen zaharra berri... Zer? (*Harriturik*) Lapurraren urratsen aztarnak?... Bai... Bai... Egunkarian?... Ondo, oraintxe begiratuko dugu. (*Telefonoa uzten du*) Joxe, begira ezazu egunkari guztietan. Ea, «Señora de la Martiña» zoroetxean sartzeko aukerarik dagoen!

**1. ikertzailea** Zer dela eta?...

**2. ikertzailea** Lapurraren urratsen aztarnak, zoroetxe horretara zuzentzen dira.

(*Bi ikertzaileak egunkarietan bilatzen hasten dira*).

- 1. ikertzailea** Hemen, hemen! Iragarki bat! (*Irakurtzen hasten da*)  
«Señora de la Martiñaren zoroetxean, erizain gazte, po-  
lit bat behar dugu. Egunean 8 orduko lana eta hileko  
150.000 pta. jasoko ditu. Telf. 8462281».
- 2. ikertzailea** Zer egingo dugu? Erizain itxuraz sartu beharko dugu.
- 1. ikertzailea** Ohartuko zaren bezala, zu zara egokiena. Ze, ni... bibo-  
te honekin. (*Bere bibotea laztanduz*).
- 2. ikertzailea** Nola? (*Haserre*) Ni emakumez jantzita? Oh, ez! Ez! Ez!  
(*Mahaian gogor jotzen du ukabidez*).
- (*Biak pentsakor gelditzen dira*).
- 1. ikertzailea** Ondo, ondo! (*Lagunaren haserrea apaldu nahian*) Zoz-  
keta egin dezagun!
- (*Zozketa egiten dutenean 1. ikertzailea, irteten da irabaz-  
le*).
- 1. ikertzaile** O ez, ene bibote maitea! Hau zorte txarra!

## V. ESZENA

(*Eszenatokia: zoroetxeko zuzendariaren langelan bilera aurrera doa*).

- 1. erizaina** Dirudienez, zoro berriak ohitzen hasi dira.
- Zuzendaria** Oso ondo, beste berririk?
- 2. erizaina** Bai. Gauetan norbaitek tronpeta jotzen duela eta zoro  
guztiak kexaturik daude.
- 1. erizaina** Bai, egia da. Nik ere entzun izan dut noiz edo noiz.
- (*Bi erizainek, horman dagoen tronpetari begira gelditzen  
dira*).

**Zuzendaria** (Larri) Tira, tira! Besterik ez badago! (*Aurpegia aldatuz*) Berri on bat emango dizuet! Bihar erizain berria aukeratuko dugu denon artean. Beraz, bihar berriro elkartuko gara hemen, goizeko hamarretan. Gaurkoz, hau da dena.

(*Denak jaikitzen dira elkar agurtuz*).

## VI. ESZENA

(*Eszenatokia: zoroetxeko zuzendariaren langela. Bileran daude*).

**Zuzendaria** Hemen ditugu erizain berriak. (*Lehenengo ikertzailea aurkezten du*) Hemen Martiña dugu. 28 urte ditu eta bere ikerketa guztiak, BIKAIN gainditu ditu. (*Ikertzi-leari dio*) Mesedez, Martiña!

**1. ikertzailea** Kaixo, jaun-andreok!

**Zuzendaria** Bigarrena berriz, Guendoline Mary dugu. 22 urte eta bere ikasketak, ongi eta oso ongiarekin gainditu ditu.

**Guendoline** Halaxe da! (*Erizain berriak gelatik irteten dira*).

**Zuzendaria** Nere ustez, onena Martiña da. Profesionala dela iger-tzen zaio. Guendolinek berriz, bere edertasuna zela eta gainditu zituen ikasketak. Konturatuko zarete, Guendoline Maryrekin lan gutxi egingo genukeela, denak berriri begira egongo ginateke eta. Nere iritzia argi azaldu dizuet. Orain botua eman dezagun. Martiña gurekin gelditzea nahi dugunok, jaso dezagun besoa. (*Denek besoa altxatzen dute*).

**Zuzendaria** Denok erabaki dugun bezala, Martiña geratuko da lanean zoroetxe honetan. Beno, orain Martiñari berri pozgarria emango diot. (*Martiña gelara sarrarazten du*). Martiña anderea, zure trebetasun guztiak aztertu ondoren, lan honetarako aukeratua izan zara. Beraz, lana zurea da. Bihar bertan has zaitezke.

**1. ikertzailea** O! Ene jaun... (*Gizon ahotsez. Konturatzera koan ahotsa fintzen du*) O! Ene jaun zoragarria. Mila esker. (*Eszenatokitik irteten da*).

## VII. ESZENA

(*Eszenatokia: zoroetxeko gaixoen egongelan, Martiña, erizaina dago. Eszenatokiko bazter batetik, barrura begiratzen du zoroak, han baleude bezala*).

**1. ikertzailea** Iparragirre ote da lapurra? Umm! Ez dakit ba! Zaindu beharko dut. Hara, hemen dator! Hobe dut nonbait sartzea!

**Iparragirre** (*Eszenatokira sartzen da abestuz*) Gitarra zahartxo bat da, neretzat laguna... Horrela ibiltzen da, artista euskalduna... La, la, la, la... Dezagun gutxi, dezagun beti. (*Bertso paperak mahai gainean uzten ditu. Orduan, zuzendaria sartzen da bere bila*).

**Zuzendaria** Joxe Mari, zatoz oraintxe bertan nere langelara! (*Besotik helduaz badarama*).

**Iparragirre** Baina, Bilintx, paperak, nere bertso paperak!

**Zuzendaria** Beno, gero hartuko dituzu! Zatoz! Erabat nazkatuta, higuinduta, gogaituta naukazu!

**Iparragirre** Baina, baina... (*Biak gelatik irteten direnean Martiña, paperetara hurbiltzen da*).

**1. ikertzailea** (*Paperak irakurtzen hasten da*) «Hara nun diran»... «Gernikako arbola»... «Gitarra zahartxo bat»... Ai! Hau pena! Bera ez da lapurra. Ikertzen jarraitu beharko dut... Kontuz! Norbait dator!... (*Berriro ezkututzen da*).

**Imanol** (*Ipurdian zartagina duela sartzen da eszenatokian. Besapean dituen paperak mahai gainean uzten ditu*) Ea, zer dugun hemen! Lehenengo leihoa. Bai, hori da, leihoa neurtuko dut. (*Patrikatik neurgailua atereaz, leihorantz*

*doa. Bitartean, Martiña paperetara hurbiltzen da, hauek irakurriaz) Ondo, honekin bukatu dut! (Mahaira heltzen denean, Martiña ezkutatuta dago) Orain, bestea (Leihorantz doanean, Martiña mahaira hurbiltzen da gelditzen zaizkion paperak irakurriaz. Bukatutakoan, ezkutalekura itzultzen da) Azken honek ere 6 m. ditu. Hobe dut inork ikusi baino lehenago hemendik alde egitea. (Zartagina ipurdian jarriaz alde egiten du).*

- 1. ikertzailea** *(Ezkutalekutik irteten du, haserre) Primeran! Horrela jarraituz, betirako hemen gelditu beharko dut. Honek baditu planoak, baina ez nik nahi ditudanak, baizik eta zoroetxe honetakoak. Ai, Jungoiko maitea! Zoroak beti zoro. (Etsituta ezkutalekura doa, baina ezkutatzera doanean, erizain bat agertzen da).*
- 1. erizaina** *(Haserre) Baina, Martiña! Zertan ari zara? Lehenengo eguna eta alferkerian? Ikusiko duzu nagusiari esaten diodanean!*
- 1. ikertzailea** Ez, ez! Ez nabil alferkerian, gaixoak aztertzen baizik.
- 1. erizaina** Gaixoak azterten? *(Harrituta).*
- 1. ikertzailea** Bai, zera, badakizu. Katurik ez dagoen etxean saguak dantzan.
- 1. erizaina** Zertaz ari zara? *(Haserre).* Gure Iparragirre bezala hasi behar al duzu? Orain esaera zaharra eta gero zer?...
- 1. ikertzailea** Ez, ez. Esan nahi dizudana zera da... Ba, zera... zoroak bakarrik daudenean beraien benetako nortasuna agertzen dutela. Hori, lehen esan dizudana, katurik ez dagoen etxean saguak dantzan.
- 1. erizaina** Um! *(sinesgogor)* Horrela baldin bada, tira! Baina, zatoz nerekin, lana ugari dugu eta... *(Biak gelatik irteten dira).*
- Maite** *(Ondoren, eszenatokira sartzen da).* O! Nere senargaiaren eskutitz berri bat. *(Boltsa barrutik paperak ateratzen ditu eta irakurtzen hasten da)* «Hona hemen gure segurtasun planak; hamar misil, Errota Berri auzoan; satelite bat

Lasao parean...» O! Zer da hau? Nola, nola... (*Haserre, paperak puskatzen hasten da*) Ernesto, Ernestooo! (*Eszenatokitik irteten da*).

**1. ikertzailea** Erizain lelo horrek ikerketa izorratu dit! Hobe dut ezkutatzea eta nere lanean jarraitzea. (*Ezkutalekuan sartzen da*).

«**Cesar**» Uf! Eskerrak! Azkenik, plano sekretuak ondo gordetzea lortu dut. Erizain berri horrengan ez dut inongo konfidantzarik; beraz, kontuz ibili beharko dut.

**1. ikertzailea** (*Ezkutalekutik irtetzen da, pistola eskuan duela*) Harrapatu zaitut! Alu hori, nere menpean zaude. Badakit, Aju-riaenean txosten sekretua lapurtu zuena zu zarela! Non dituzu paperak? Akatuko zaitut!

«**Cesar**» Zer ari zara esaten? Zu, galiatar espia al zara? Zeusen izenean, nik neuk akatuko zaitut! (*Haserre*).

**1. ikertzailea** (*Bere onetik irten da*) Isil zaitez, bestela... (*ukabilez mehatxatuz*) Zure erruz, bibotea moztu behar izan dut. Horrela jarraitzen baduzu, indarkeria erabili beharko dut!

«**Cesar**» Lasai, lasai... Maite izeneko neska maitemindu txolin horren boltsan dago. Utz nazazu pakean!

**Maite** (*Eszenatokira sartzen da negarrez*) Ai, ene amatxo maitea! Nere senargaiak ez nau maite!...

**1. ikertzailea** Azkenean lortu ditut zorigaitzeko paper zahar horiek!  
(*Hau esanaz Maiterengana doa boltsa kentzera*).

**Maite** (*Bere gainera datorrela ikusterakoan, korrika eta oihuka hasten da eszenatoki inguruan*) Ama, AMAAAAAAA! Ernesto! ERNESTOOO!

**1. ikertzailea** (*Maiteren atzetik doa korrika eta oihuka*) Zatoz hona! Eman iezadazu boltsa!...

- «Cesar» Galdurik nago! Zer egin dezaket? (*Etsituta*).
- (*Zuzendaria eta erizainak sartzen dira eszenatokian*).
- Zuzendaria** Zer gertatzen da hemen? Horrenbesteko zarata eta iskanbila! Honek eroetxe bat dirudi!
- (*Maitek negarrez jarraitzen du eta erizainak bera kontsolatu nahian*).
- 1. ikertzailea** Zuzendari jauna, ni ikertzaile bat naiz. Eta «Cesar» dela dioen hori, E.E.E.ko, hau da Euskal Espien Elkarteko partaide bat (*Harro-harro*).
- «Cesar» (*Haserre*) Zoratu dira galiatar hauek! Ziur nago erizain hau galiatar etsaia dela. Eraman ezazue lehoietara. Arren!
- 1. ikertzailea** (*Oraindik harro*) Zuzendari jauna! Begira ezazu neskati-la horren boltsan, hortxe daude, lapur honek Ajuriaenean ostu zituen dokumentu sekretuak. Har itzazu, eta irakur itzazu, zuzendari jauna, hemen... Denon aurrean! (*Harro-harro*).
- Zuzendaria** Ikus ditzagun ba, paper horiek!
- (*Erizainek gozo-gozo boltsa kentzen diote Maiteri*).
- Zuzendaria** (*Boltsatik paperak atereaz irakurtzen hasten da*) «Ene bihotzeko kuttuna, zure begie»... (*Haserre*) Zer da hau?
- «Cesar» (*Oihuka*) Lehoietara, lehoietaraaa!
- 1. ikertzailea** Ez da posible, berak esan dit! (*Boltsan begira hasten da, zoraturik*).
- Zuzendaria** (*Erizainei zuzenduz*) Arren, laster! Ipin iezaiozue alkandora askagaitza.
- (*Erizainek alkandora ipintzen diote*).

## VIII. ESZENA

*(Eszenatokia: zuzendariaren langela, bertan zuzendaria dago).*

### **Zuzendaria**

Hau zoramena! Horrelako erizain jatorra eta zer? Zoratu! Denok zoratzeko arriskuan bizi gara etxe honetan... Zoroen sorotan, zoroak erne! *(Horman duen tronpeta hartuz jotzen hasten da).*

## AMAIERA



# **ZURINEREN ANAIA**

OHOko 3. mailako ikasleak  
P.M. Otaño herri ikastetxea  
Zizurkil 1989



## **PERTSONAIAK**

Anderena	1. txakurra
Sonia	2. txakurra
Aitor	1. katua
Alberto	2. katua
Zurine	Ardia
Ama	Txerriak
Maitagarria	Guztiak

### **I. ESZENA**

*(Eskolan. Umeak plastilinarekin jolasean daude).*

<b>Anderena</b>	Beno, plastilina jaso eta batuketa batzuk egingo ditugu.
<b>Anderena</b>	Bi gehi bat?
<b>Sonia</b>	Hiru Miru.
<b>Anderena</b>	Zero gehi lau?
<b>Aitor</b>	Lau bakalau.
<b>Anderena</b>	Bost gehi Bost?
<b>Saul</b>	Hamar karramar.

- Andereñoa** Hiru gehi lau?
- Alberto** Zazpi pipi.
- Andereñoa** Ai ene! Hauek umeak! (*esaten du bere kolkorako*)  
 ...Orain Hizkuntzako koaderno atera eta idatziko du-  
 zue.
- (*Zurinek maleta miatzen du; koaderno ez du aurkitzen. Guztiak zain daude. Azkenean Zurinek maletari buelta ematen dio eta mila gauza azaltzen dira, koaderno aurkituz. Gauza guztiak bota egiten ditu maleta barrura*).
- Andereñoa** Beti esaten dizut: oso narratsa zara!... gaur ere jolasor-  
 duan gauzak ondo jartzen geratuko zara!...
- Tira, ireki koaderno! (*koaderno erdian txorizo xerra bat azaltzen da; koaderno oso zikina dago...*).
- Andereñoa** Hau gehiegi da! A! ...ze nazka! (*koaderno behatz pun-  
 tez hartuta erakusten du eta zakarrontzira botatzen du*).
- Desesperatuta nago! (*iletik tiraka doa beste izkinara*).

## II. ESZENA

(*Etxean. Ama etxean dago bazkaria prestatzen*).

- Zurine** Kaixo ama! (*musua ematen dio*).
- Ama** Zer moduz eskolan?
- Zurine** Andereñoak errita eman dit!
- Ama** Zergatik?
- Zurine** Txorizoa ez baitzaio gustatzen!
- Ama** Eskuak garbitu! (*asper doinuarekin*).
- (*Zurine eta ama bazkaltzeko eseritzen dira. Zurinek, zopa jatean, soinu handiak ateratzen ditu*).

- Ama** Beno, Zurine zure gelara joan zaitez jolastera!  
*(Jolasten dagoen bitartean, Maitagarri Txukuna azaltzen zaio).*
- Maitagarria** Ezin duzu honela jarraitu!  
Joan zaitez kalera zure anaiarekin jolastera, bitartean zure logela garbituko dut!
- Zurine** Nik ez daukat anaiarik!
- Maitagarria** Ah! Bai! Anaia bat duzu! Agian zuk ez duzu ezagutuko, baina berak ezagutuko zaitu.
- Zurine** Ez dakit!

### III. ESZENA

*(Kalean. Bi txakur bere ondotik pasatzen dira).*

- Zurine** Nere anaiak al zarete?
- 1. txakurra** Ez dut uste. Nere ilea ondo orraztuta dago.
- 2. txakurra** Eta nerea.
- 1. txakurra** Musua oso garbia dut!
- 2. txakurra** Eta nerea ere bai!
- Txakurrak** Zelako galdera egin diguzun!  
*(Bi katu bere ondotik pasatzen dira).*
- Zurine** Nere anaiak al zarete?
- 1. katua** Joan zaitez ispilura zeure burua ikustera.

- 2. katua** Goizetik nere ileak miazkatu ditut. Ikusten denez, zuk ez dituzu zure ileak inoiz orrazten.
- Katuak** Zu ez zara gure familiakoa eta pozten gara. Hum...!  
(*muzin eginez*).
- (*Ardi bat pasatzen da*).
- Zurine** Zu nere anaia al zara?
- Ardia** Noski ezetz! Nolako txorakeriak galdetzen dituzun!  
(*Txerri bat pasatzen da*).
- Txerriak** Egunon, arreba!
- Zurine** Ni ez naiz zure arreba!
- Txerriak** Bai, bai, nere arreba zara. Gure familiakoak edozein lekutan ezagutzen dira. Etorri nerekin putzura bainu bat hartzera eta gero zimaurretan itzulipurdika ibiliko gara.
- Zurine** Ez zait gustatzen zimaurtegian ibiltzea!
- Txerriak** Ala! Beste bati konta iezaiozu hori! Begira zure eskuak, hankak eta jantziak. Goazen, goazen. Gero ezkurak jango ditugu.
- Zurine** Ez dut ezkurrik nahi!  
(*Maitagarria hortxe azaltzen da*).
- Maitagarria** Logela osoa garbitu dut eta horrela egon behar du. Norekin joan nahi duzu, zure anaiarekin ala nerekin eta garbia izaten ikasi?
- Zurine** Zurekin, zurekin!
- Txerriak** Pozten naiz, neretzat izango dira ezkur guztiak...

#### IV. ESZENA

*(Eskolan).*

**Zurine  
eta guztiak**

Egunon!

**Andereñoa**

Egun...on! *(harridura handiz)* Zurine al zara zu? Ai ene, zer aldaketa ona!... Zer gertatu zaizu?

**Zurine**

Atzo Maitagarri Txukuna ikusi nuen... baina hori historia zahar bat da.

**Aitor**

Abestuko al dugu?

**Guztiak**

Bale, goazen kantatzera.

*(Abesti bat abesten dute korro batean poz-pozik).*





# EUSKARA ZERBITZUKO ARGITALPENAK

## Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

### 1. GLOTODIDAKTIKA-LANAK

#### a) *Hizkuntzen irakaskuntzaren inguruko gaiak*

- HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZA: TOPIKOAK ETA METODOLOGIAK. N. Gardner (1).
- HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZA: GRAMATIKA ARIKETAK. J.A. Mujika (2).
- HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZA: MAILAKETA GRAMATIKALA. I. Olaziregi (3).
- HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZA: ZENBAIT ARTIKULU (5).
- HIZKUNTZ JOLASAK. M. Sainz-I. Olaziregi (15).
- BAKARKA 1. EUSKERA A DISTANCIA. J.A. Letamendia (18).
- BAKARKA 2. EUSKERA A DISTANCIA. J.A. Letamendia (22).
- BAKARKA 3. EUSKERA A DISTANCIA. J.A. Letamendia (29).
- TREBATZEN. OHO.ko GOIKO ZIKLORAKO HIZKUNTZ ARIKETAK. M. Sainz (23).
- EUSKALKIZ EUSKALKI. R.M. Pagola (19).
- EUSKARAREN OINARRIZKO HIZTEGIA. MAIZTASUN ETA PRESTASUN AZTERKETA. J.M. Etxebarria. J.A. Mujika (31).
- OINARRIZKO HITZAK. EUSKARAZKO HITZ ERABILGARRIENAK. I. Olaziregi (34).

#### b) *Bideo-gidoiak/Txotxongiloak/Musika*

- HAURRAK EUSKALDUNTZEN GIÑOLAREN BIDEZ I. I.M. de Lezea-Kukubiltxo (6).
- HAURRAK EUSKALDUNTZEN GIÑOLAREN BIDEZ II. I.M. de Lezea (9).
- ESKOLARAKO IPUINAK ETA TXOTXONGILOAK. I.M. de Lezea (14).
- IPUIN ZAHAR ETA BERRIAK. L. Iriondo (10).
- KONTU KONTARI. L. Iriondo (20).
- AMONAREN IPUINAK. E. Genua (12).
- IPUIN GEHIAGO. A. Lertxundi - J. Lucas - Keinu - Maskarada (13).
- JOLASEAN. I. Urbietta (11).
- MUSIKA HEZKUNTZA ESKOLAURREAN. I. Urbietta (21).

#### c) *Euskararen Gaitasun Agiria (EGA)*

- EUSKALTZAINDIAK BATASUNERAKO ESKAINI DITUEN ERABAKIAK (8).
- EUSKARAREN GAITASUN AGIRIA. PROGRAMA (7).
- EGA. 1990-91-92KO AZTERKETAK (40).

d) *Hizkuntz testak eta ebaluazioak*

- EABHEM. EUSKARA-MAILA NEURTZEKO TESTA (D ereduko eskolaurreako). G. Ajuria - I. Ibarra - J. Sierra (16).
- GALBAHE E1 HIZKUNTZ TESTA (B eta D ereduetako OHOk 2. mailarako). I. Olaziregi - J. Sierra (26).
- GALBAHE E2 HIZKUNTZ TESTA (B eta D ereduetako OHOk 5. mailarako). I. Olaziregi - J. Sierra (25).
- GALBAHE C1 y C2. TESTS DE LENGUA (Gaztelaniazko testuak OHOk 2. eta 5. mailarako). J. Sierra - I. Olaziregi (27).
- ZORTZI-A HIZKUNTZ TESTA (A eredu OHOk 8. mailarako). I. Olaziregi - J. Sierra (28).
- PIR-5 HIZKUNTZ TESTA (B eta D ereduetako eskolaurre-amaierako). I. Olaziregi - J. Sierra (30).
- EIFE 1. EUSKARAREN IRAKASKUNTZA: FAKTOREEN ERAGINA (euskaraz, erdaraz, frantsesez eta ingelesez). J. Gabiña - R. Gorostidi - R. Iruretagoiena - I. Olaziregi - J. Sierra (H.U.I.S.-H.P.I.N.).
- EIFE 2. EUSKARAREN IRAKASKUNTZA: FAKTOREEN ERAGINA. J. Sierra - I. Olaziregi (33).
- EIFE 3. EUSKARAREN IRAKASKUNTZA: FAKTOREEN ERAGINA. J. Sierra - I. Olaziregi (36).
- EUSKARA PROBAK. Irakurmena eta idazmena (OHOk 8. mailarako). I. Olaziregi - J. Sierra (37).
- HINE. HIZKUNTZA IDATZIAREN NEURKETA ESKOLAN. J. Sierra - I. Olaziregi (38).
- PRUEBAS DE LENGUA. Comprensión lectora y expresión escrita (8º de EGB). J. Sierra - I. Olaziregi (39).

## 2. HIZKUNTZ PRESTAKUNTZA

- BIZKAIERAREN IDAZTARAUAK. DEKLINABIDEA ETA ADITZA. A. Arejita - J.M. Irazola - J. Uriarte (1).
- EUSKAL ADITZA: BIZKAIERA ETA BATUA. J.M. Irazola (2).
- BIZKAIERAZKO JOSKERA. A. Arejita - J.M. Etxebarria - J.M. Irazola - J. Uriarte (4).
- HEZKUNTZ ADMINISTRAZIOKO BEHIN-BEHINEKO HIZTEGIA. I. Artola - J.M. Berasategi - G. Narzabal - I. Olaziregi (3).

## 3. ZABALKUNDE LANAK

a) *Euskal Ikasmaterialgintza (EIMA programa)*

- IKASMATERIAL IDATZIEN BILDUMA 1990. M.K. Kamino (22).
- IKUS-ENTZUNEZKO IKASMATERIALEN BILDUMA 1990. M. Usabiaga (23).
- EIMA. EKINTZA-PLANA. AZALPEN BATERABILDUA 1986. (14).
- EIMA. LAGUNTZA-DEIALDIEN EMAITZAK 1980-85 (10).
- HEZKUNTZ SOFTWAREAREN BILDUMA 1990-91. M. Usabiaga (27).

b) *Irakaslegoaren Alfabetatze Euskalduntzea (IRALE programa)*

–IRALE. 1992-93ko AURKEZPEN-TXOSTENA (29).

c) *Normalizazio Legearen Garapena (NOLEGA programa)*

–IKASTETXEEN BARNE-ERROTULAZIORAKO ESKULIBURUA. I. Artola - J.M. Berasategi - I. Muruaga (15).

–EUSKAL GIROTZE-EGONALDIETARAKO ESKULIBURUA. R.M. Ardanza - I. Artola - J.M. Berasategi - L.M. Landaluze - A. Mujika - I. Muruaga (16).

–ESKOLA-ANTZERKIA (18).

–URRUZUNO LITERATUR LEHIAKETA. LAN SARITUEN BILDUMA 1992.

–GOAZEN BARNETEGIRA (bideoa).

–EUSKAL GIROTZE BARNETEGIAK (bideoa).

–ESKOLA HIZTUN BILA (28).

–ESKOLA ANTZERKIA 2 (30).

–ESKOLA ANTZERKIA 3 (31).

d) *Beste txostentxo batzuk*

–EUSKARA GAUR EGUNEKO HEZKUNTZA ARAUBIDEAN (20).

–EUSKAL IRAKASKUNTZA: 10 URTE (24).

–EUSKAL IRAKASKUNTZAREN GARAPEN-BIDEA (txostena) (25).

OHARRA: Parentesi artean jasotzen da liburu bakoitzak kasuan kasuko sortan duen zenbakia.







*Hezkuntza Saileko Liburutegia*



1005360

891.69-2 ESK





Adin bakoitzak bere neurriko tratamendua eskatzen duenez gero, asko dira testu bat osatzen hasteko bideak. Maila bakoitzerako "metodoa" bilatzea eta aurkitzea agian interesgarria litzatekeen arren, nik neuk, oraingoz, Goi Ziklora mugatu nahi izan dut, bai adin eta baita interes eta premia aldetik, adierazpide hori lantzeko ziklorik egokiena iruditzen zaidalako. Honek ez du esan nahi liburuaren sarreratxo hau aprobetxatuz eskaini nahi dizkizuedan abiapuntu banaka hauek egokitu ezinak direnik. Alderantziz, hortxe legoke, agian, mailaketa bakoitzari dagokion "metodoa"ren lehen hurbilketa. Eta hori, denborak eta esperientziak emango lukete.

Orain, berriro ere aipaturiko abiapuntu guztiak hartu eta elkarrekin jolastuz konbinaketa berriak egiteari ekinez gero, agian beste amaigabeko bide, abiapuntu eta pista zerrenda osatzera iritsiko ginateke. Baina hori, nahiago izan dut zeuon gain uztea; sorpresa eta aukera berriak norberak bidean aurkitzea askoz dibertigarriagoa da eta.

*Yolanda Arrieta*



Eskola antzerkia EK22090064

**EUSKO JAURLARITZAREN ARGITALPEN ZERBITZU NAGUSIA**



Salneurria: 700 pta.